

JUAN CRUZ ARROSAGARAY

CALIFORNIA - TIK KANTUZ

CALIFORNIA-TIK KANTUZ

AUSPOA LIBURUTEGIA

(163)

Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza Santa María, 2 — Tolosa, Gipuzkoa
Teléfono (943) 67 12 82

JUAN CRUZ ARROSAGARAY

CALIFORNIA-TIK
KANTUZ

AUSPOA LIBURUTGIA

1983

***Azalean:* Luzaideko Bordelia, Juan Cruz
Arrosagaray-ren sort-etxea.
Luis de Lerchundi jaunaren
marraskia.**

© Auspoa Liburutegia (Tolosa – Guipuzkoa)
Fotokonposatzalle: Okena – Lasarte
Inprimatzalle: Gráficas Lizarra, S.L., Estella (Navarra)
ISBN 84-7158-105-1
Depósito Legal: NA. 389-1983
Abril 1983

ARKIBIDEA

Hitzaurrea	9
Juan Cruz Arrosagaray Changala	15
Zazpi urtez nere bizian.....	21
I. Lehen berriak	25
II. Bigarren partea	29
III. Hirugarren kantua	35
Nere andre onari	41
Jeiki, jeiki, Maria Anjela.....	45
Euskal herrira bidiaia	51
Itzuli naiz oraintxe	55
Luzaideko gazteria bi parte	61
Luzaidar bat kantuz.....	65
Ospitaleko bisita.....	69
Karlisten kantuak	73
Bordelen segida.....	79
Bordele bertsolariaren bestako kantiak	83
Juan Pedro Iroz Etchamendy zenari	89
Maria Anjelak bere ahaideri (I)	95
Maria Anjelak bere ahaideri (II)	97
1980. eko Eguberritan.....	99
Eguberri eguneko kantia	101
Urte berriko agurra	103
1982. eko Eguberritan.....	105
M. Bidart – J. Bicary espos eguneko kantiak	107
Espos eguneko kantiak: J. B. Etchepare etaChristine M. Bardot Turlock	111

Juan. B. Etchegaray eta Dominika Begue esposatu dira	115
J. Bautista Arrosagaray eta M. Socorro Eguinoa esposatu dira Orreagan	117
Sortetxeko iloberi	121
Agur bat Angel Ainziburu ilobari	125
Ene lehen kusi zena	129
Don Miguel Sagaseta-ri esker ona dantza jauziz egin duen liburuaz	131
Irakurleak mintzo. Gure mintzairaz zombaitgogoeta....	135
Euskaldun batek Californiatik	137
Gure mintzaira	141
Euskarari mintzo Kaliforniatik.....	145
Agur bat euskalduner	149
Xalbadorri agur on.....	153
Ene Eguberriko agurra euskalduneri	157
Chino-ko euskaldun bestako kantiak (I)	159
Chino-ko euskaldun besta (II)	165
Euskaldun eliza besta Bazko zaharrez Chino Californian	169
Euskaldun klubaren afaria	173
Chino-ko azeri famatuari	175
Gure artzainaren partitzia	181
Jose Maria Satrustegiri, esker onez	185
Azken aldiko gutunak	191

HITZAURREA

Orain baino lehen ezaguna da bertsolarien munduan Kaliforniatik datorkigun, Juan Cruz Arrosagaray luzaidar argiaren izena. Nafarroako «Principe de Viana» euskal aldizkarian, eta Baionako «Herria» astekarian argitaratu zituen behin eta berriz bere bertsoak. Euskal Herritik kanpo ere agertu izan du bere lana. Reno-ko *Newsletter* aldizkaria dut, besteak beste, gogoan. *Euskaldun fidel* izen-ordearekin zabaldu ditu askotan bere gauzak.

Hirugarren adinean plazaratutako bertsolaria da Juan Cruz. Harrigarria badirudi ere, hirurogei urte inguruan ekin zion bertso sorketari eta azken hogeitaz urte hauetakoa dugu liburu honetako emaitza gehiena. Zaletasun haundia zuen gazte gaztetatik kanturako, eta euskal kantuen bilduma egina zuen beretzat, noizbait Ameriketan ostu bazioten ere.

Odolez eta familiaz zetorkion erraztasuna eta ez zen bakarra etxean: «Banakien gure anaia zenak nik bezala gusto haundia ekartzen zuela kantuz, idatzi zidan 1966an. Hamalau urte zituen ni Amerikara jitean; geroztik ez nuen ikusi. Arjentinara joan zen eta hogeita sei urtetan erre zen, alcohol tanke bat esplotatu eta. Zazpi hilabete zuen ezkon-

durik. Hura ere pena haundiko nahigabea izan zen. Gure familiak badu holako! Duela bi hilabete gogora zitzautan galdegitea haren familiari, eta igorri derate haren kahierra, erdia izkiriatia».

Anaia honen paperetan aurkitu ditu, hain zuzen ere, 1929an Juan Cruzek berak egindako bertso batzu egileak achantziak zituenak. «Luzaideko Gazteria bi parte», izen-datu zituen orduan. Hogeita hamabost urteko ixilunea gero, eta 1964.ean abiada berria Kaliforniatik.

Juan Echamendi, «Bordel» bertsolari famatuaren biloba eta haren etxe berean sortua da J. Cruz Arrosagaray. Horretarik datorkio, behar bada, bertsolaritzarako lokarri-rik tinkoena. Luzaideko koblakariaren bilduma egitera-koan Arrosagaray izan nuen berri emailerik zehatzeneta-koa. Bere izena aipu da nunahi «Bordel Bertsularia» ize-neko liburuan.

Bere lehen gutunak, hala ere, erdaraz izkiriitzen zizki-dan Juan Cruz adiskideak, eta nere agerpenak erdaraz izki-riatzeko eskatu ere bai, behin edo beste. Neuk, berriz, eus-karaz idaztera bultzatu nuelarik honako bertso hauekin erantzun zidan:

*Euskaraz mintzo nauzu oraiko aldian,
badakit, ez dut egin hau lehen klasian;
estimatuko duzue norbaitek, egian,
eta zuk, Jaun Bikaria, eskura hartzian.*

Hamar bertsoko kantu baten azken aurreko ahapaldia da. «Luzaidar bat kantuz», dio berak. Bide horretatik jarraitzeko esan nion orduan, eta egun batez liburua aterako geniola, behar bada. Asmo hura gaur bete da.

Nortasun haundiko izaera, eta bere buruari gogor egi-

nez oztopo eta errebes haundiak gainditzen ikasia da bizian. Ez da goldeari eskua bota ondoan atzera itzultzen direnetakoa. Hori bera gertatu zaio bertso sorketarekin, eta handik hiru urtera, bere hiru kantu sartu nituen «Luzaideko Kantiak» izeneko liburuan. Oraikoan badira berrogei.

Ez zuen izkiriatzeko bultzatzaile beharrik handik aurrera. Akuilari gerta zitzaidan geroztik eta ez zen kontenene erantzunen luzapenaz. Hitz lauez batzutan, eta bertso-tan beste askotan, hartu izan ditut bere salaketa zorrotzak eta lotsaren gorridura sendi izan dut barnean, adinaz nere aita izan zaitekeen gizonaren eraginak zapaltzen ninduela ikustean. Egunoroko lanaren zamak, beste alde, ez zidan asti gehiegirik uzten. Hona, esate baterako, 1971ko Gabon txartela:

*Zer pasatzen ote dan, Jauna Satrustegi,
Jakin nahia nauzu laster eta garbi,
Aspaldian ez bait dut izan zure berri:
Jainkoak dezaizula eman osagarri.*

*Ene azken bi karten ez arraposturik,
Zer pasatzen da, Jauna, hain luzaz isilik?
Ala ofentsatua zira lehendanik?
Ez dut ideia txarrez nik deusik erranik.*

*Nahi ez duzun zerbait erran badut ere,
Erreklamatu zaite beldurrikan gabe;
Zure graduan dena ez daite herabe,
Nik nahi nuke izan berdin adiskide.*

*Eguberri oraintxe heldu zauku laster
Agur bat emateko bihotzez guzier,*

*Gure jendaki eta berdin adiskider,
Ikusi ez badaizke adrezatuz berer.*

*Eguberri denbora Jesusen sortzia,
Giristino fidelak hartan du fedia;
Otoiztu dezagun ba Kristo Erregia
Guzier eman dezan bakezko bizia.*

Egoera emankorra izan da, beraz, gure harremanena eta gutun asko da denbora honetan Juan Cruzengandik jaso dudana. Hori bera, beste aberastasun haundi bat bezala ikusten dut bizian, eta nik asma ahala baino berri gehiago badut esku artean. Hauetaz baliatu naiz liburua gertatzerakoan. Kantu bakoitzaren aurretik, han hemenka gutunetan emanak diren argibideak sartu ditut bertsoen ingurua girotu eta esan-nahia argitzeko. Horrela, liburu guzia bertsolariarena da.

Esan beharra dut, gainera, izana naizela Kaliforniako bere etxean, eta ikusi dut gertutik lurralde haietako bizi-modua; entzun dut neure belarriz artzain euskaldunaren bakardadeko oihartzun latza, eta badakit Juan Cruzek ibili duen arantzaz jositako bidea. Bertsu hauek ez dira alfer orduetako asmakizun antzu edo aingerukerien izarretako amets hutsak, odolez zipristindutako bizi baten arrosa zuri-gorriak baizik.

Ez gara behar bezala jabetzen Euskal Herriko hainbeste seme atzerriratuen neke, herrimin eta bizi gogorraz. Gure-gureak ditugu, Euskal Herriko amen ume eta geure baserritatik mundura jalgiak. Beren sorlekuan txertatua dute bihotza eta Euskal Herriak ez ditu haintzat hartzen. Nun da etxeko seme guzien berri dakarren euskal literatura?

Eskertzekoa da, bihotz-kolpea izanik, lana utzi ondorean bertsogintzan hasitako gizon trebearen emaitza, eta estimagarriago hain gutxi ezagutua den Ameriketako artzai euskaldunen lekukotasuna edo testigutza eskaintzen duelakoz.

Nere lana joskin edo dendari soilarena izan da: oihala aurkeztu, adabakiak josi eta itxura apaindu. Bitartean jabea badu bertsoen oihal mardulak eta jostura guzien hariak. Nolabait liburu honen aitaxo gertatu naiz bataioan haurra jasotzeko. Besterik ez da nere hitzaurrea.

J. M. Satrustegi



Juan Cruz Arrosagaray Changala.

JUAN CRUZ ARROSAGARAY CHANGALA

Nere sortzeko agiriak dionez, Valcarlos (Luzaide) herrian sortu nintzen, Bordele deitzen den laborantzako etxean, 1905.eko irailaren 14 goizeko ordu batean. Bainan nere ama ez zen segur, eta aunitzetan gero erraten zautan gauerdi ingurua zela eta ez zuela erloirik ikusteko momento hartan; berdin izan zitakela gauerdi aitzinean nere sortzea. Gainera berak zion, «hala izanez hamahiruan sortua hiz eta zorigaitz aunitz izanen duk heure bizi guzian». Orduko jendek eta orai ere aunitzek ez dute uste hamahiruan zorionik izan daiteken. Hargatik ote ninduten eman hamalau goizeko ordu batean sortu nintzela?

Noiznahi sortu izanagatik, nere amak orduan aipatu zorigaitzez beti oroitzen naiz, zeren zorigaitz aunitz gerta zeraut nere bizimodu nahasi eta zoritxarrekoan.

Nere haur denborako bi gertakari agertu nahi ditut lehenik: Bat. Nere ondoko anaia sortu zelarik nik 25 hilabete nituen eta ordu arte amaren ohean lo egiten nuen. Gero, anaia berriak hartu zuelarik tokia, neretzat toki berria behar zen, eta aldeko ganbaran ezarri ninduten gure etxean sehi zen neskatoarekin. Bainan nik ez nuen harekin laket

eta amaren ondoan nahi bait nuen, hasi nintzen oihuka ama-ama galdez. Eta neskatoak:

—Egon isilik. Ama jinen duk gero.

Nik berriz oihu eta oihu ama ez bait zen heldu. Noizbait loak tronpatu ninduen noski. Aunitzeri erran izan dut nola oroitzen naizen hogeitabost hilabetetan neri gertatu zitzaitana, eta irri baizik ez didate egiten, erranez ez dela nehor oroitzen ahal adina hartan gertatu gauzetaz. Bainan ni oroitzen naiz, zeren amarenganik iruntzea ezin ahantzizko bihotz zimikoa bait zen neretzat.

Bigarrena. Ez nituen oraino hiru urte, elaka ez nakien; erraten nituenak, aita, ama, lolo, mumu, eta hola zerbait. Auzoetxeko andrea etorri zen bisitaz gure etxera eta xutik zegon sukaldean ele eta ele gure amarekin. Hala xutik ikustea neri ez zitzaidan ontsa eta ekarri nion errestan jarralaki bat ondora eta erran nion:

—Ttotto.

Harritu zen auzoko emaztea eta bai gure ama ere, nola nere adineko haurrak pentsatu eta egin zezaken halako lanik. Geroztik aunitzetan erraten zautaten nere amak eta auzoko emazteak ere zer izpiritu argia nuen hain gaztetik; ezin sinetsia zela.

Ikastetxe edo ikastola. Uste dut sei urte hurbil edo eginak nituen eskolan hasi nintzelarik eta ez dakit zonbat ikasi nuen lehen bi urtetan; bainan gero, zortzi, bederatzi eta hamar urtetan harritzen ziren nere irakasle guziak ikusiz zoin aise eta laster ikasten nuen edozein gai.

Hameka urte nituelarik errientak biali zuen auzoko mutil bat nere aita-amer, ni eskolara bial nindezaten errateko. Bazkaltzen ari ginen eta negua hurbil zen orduko. Banituen zortzi edo bederatzi hilabete eskola utzirik eta

galdua nuen ikasteko gustu guzia. Aita isilik zegon; ezagun zen harek nahiago zuela bera lagundu nezan etxeko lanean, bainan amak buruan hartu zuen bialdu behar ninduela eskolarat. Nik, aldiz, ez nintzela joanen, ihes egin nuen goiko salara eta ama ondotik, oraino zalu kurritzen bait zuen. Han atzeman eta nere haur denborako zafraldi haundiena eman zautan, eta begiak nigarrez hanturik eskolarat biali. Nere izebak ere nigar egin zuen ikusiz amak zer zigorrada eman zautan beste gaizkirik egin gabe.

Hilabete bat justoki ibili nintzen eskolan, eta orduan aitik behar ninduela laguntzeko, ekendu ninduen handik eta hortan finitu zen nere ikasbidea. Handik hameka urteren buruan, 1927-an, nere Luzaideko azken errientak biali zautan Kaliforniarat hiztegi baliosa (1). Liburu hau oraino osorik daukat berrogeita hamar urteren buruan, eta hau izan da nere ikasgai hoberena Luzaideko eskola utziz geroz, eta liburu huni esker ikasi nuen erdararen idazkera eskolan baino hobeki. Artzain nintzelarik ehunka orduak egin ditut erdararen zuzentzen, eta aski ontsa idazten nuen denbora batez nahiz aspaldian ez dutan guti baizik erabilzen liburu maitagarri hau, ez eta ere erdara.

Kristau heziketa

Amarenganik ikasi nituen lehen otoitzak. Ez ginduen huts egin behar egunoro goiz eta arratsean. Otoitz egitea gure etxeko legea zen. Ez zuen debruak gure etxe inguruan egitekorik, non ez zen gu lo ginelarik jostatzen. Don Martin apaiza zen euskaraz kateximan gure irakaslea eta harri-

(1) LA FUENTE. Diccionario Enciclopédico. Publicado bajo la dirección de José Alemany.

tzen zen ikusiz zoin aise itzultzen nizkion haren galdeak. Oraino oroitzen naiz, anitz aldiz lagunekin elaka edo begia baztertzearekin uste gabean heldu zen galdea neure izenaren ondotik eta armatik tiroa doan bezain zuzen bialtzen nion erantzuna.

Gure haur denboran baziren Luzaiden bi bikario. Ardura nere atakan ausart ziren eta berdin gure ama gaixoren: nahi zuten ni apaiz egin nindadin eta ama izanen zela nere gelari. Ez zitzaien gogoratzen gure amak bazituela beste bederatzi haur. Gaixo amari hori sartua zioten buruan. Gainera erraten zautaten zerbaitengatik eman zautala Jainkoak nauken argitasun paregabea nere izpirituan. Bainan nik maite nituen orduan nere sortetxea, aita-amak eta haurrideak, eta besteen bide bera nahi nuen jarraiki; hartara nuen nere amodio osoa. Hartu nuen beldurtasun ikaragarria eta uste izan nuen, isilik, haurrider erran gabe eramaten nindutela norabait eskolarat, eta beldur hura izan zen nere nahigabe haundiena; harengatik galdu nuen eskolara joateko eta ikasteko gustu guzia eta gelditu besteen lerrotan loturik. Ze domaia!

Artzai

1913.ean, zortzi urte arras bete gabe, artzaimutil bortura biali ninduen aitak beste anaia hamabi urtekoaren lagun, eta gu bion kontu ziren bortuko lanak. Astean behin etortzen zitzaunkun aita bizigailuekin eta ber denboran eramaten zituen guk egin gaztak etxerat. Gure janaria nahiz arras sinplia geuk egin behar ginduen, ardi eta ahuntzak deitzi eta gazta egin egunoro; sugai eta korral egurrak moztu oihanean, bizkarrez ekarri eta korraleak egin. Gerroztik urte guziz, adinean ginen haurrideak aldizka geure egonaldia egin behar ginduen bortuan ardiak antzutu arte,

eta gero handik aitzina bat bakarrik. Hamalau urtetarik haste, bakarrik nintzen bortuan.

Aitzinago joan gabe, 1920.ean nere amaren anaia Juan Changala, nere aitabitxia, etorri zen Uruguay-tik eta urte bat egonik Euskal Herrian itzuli zen Montevideora. Partitzeko bezpera igandea zen eta berekin eramanez ninduen elizarat. Bidean erran zerautan:

—Juan Cruz, neurekin eramanez nahi zintudan nik, bainan zure aita-amek ez zaituzte utzi nahi. Jinen da egun bat beste guzietan jin zeraukun bezala, aita-amak, haurrideak eta sortetxea utzi behar dituzuna, eta orduan etor zaite neregana Montevideora. Gaur elizarat zoazin bezain gostuan prest izanen dut nik zure lekua.

Etxetik ateratzeko tenoria hurbildu zelarik banituen hiru anaia Californian eta aita-amek nahio zuten beste anaien bidea har nezan, eta neuk ere bai. Aita-amek bazekiten Ipar Ameriketatik aunitz seme itzultzen zela, zorbait urte han egin eta. Hego Ameriketatik biziki guti. Horregatik, aita-amen erranari behatzen genion haur denboran eta berdin hogeitun urtetan ere, oraiko haurrek baino aunitzez hobeki.

1924.eko Maiatzean, ni jalgi baino hamasei hilabete lehenago, hertsitu egin ziren Estados Unidos-en emigrantez sartzeko legeak. Nere amak galde eginarazi zuen kontsulari Bilbora, eta erantzuna jin omen zen aldia har nezan erranez, bazirela aunitzen izenak ordukotz listan eta nere xantza heldu orduko zortzi-hamar urte joanen zela. Orduan beste bide zenbait behar nuen hartu, eta jendaki batzuri esker atzeman nuen jalgitzeko zuloa mugaz Iparraldetik, nahiz ondoan biziki kirats eta gazi atera zitzautean.

Hogei urte betetzeko egunetan atera nintzen sortetxetik, eta hamaseian untzian sartu Le Havre portuan New

York-era buruz. Bi gauza ikasi nituen oroz gainetik etxean: *otoitza* eta *lana*. Bietarik aunitz, zombait aldiz sobera. Lehena zen ene edukazionea, eta bigarrena ene dotea, hogeitun urte arte etxean egin lan guziendako. Libertatea biziki guti gazte lagunekin jostatzeko.

Californian arribatu nintzelarik urrun utzirik aita-amak, haurrideak, gazte lagun guziak, eta ezin konpreni hemengo mintzamoldia ez da dudarik bizimodu gogor bati hastera nindoala. Bi lan ziren denbora hartan euskaldunendako: *artzain* eta *laborantza*. Nik lehena hautatu nuen, duda gabe penitentzia gehio egiteko bakartasunean, eta gero zeruan sartzeko esperantzan. Horregatik uste dut orai hurbildua nizan.

Kantuak. Gaztedanik anbizio haundia izan dut eta Californiara jin eta izkiriatu nituen kahier batean nazkien kantuak. Gero, 1932.ean, ebatsi zaaten baliza eta ene kahier eta bertze kantu guziak orduan galdu nituen.

ZAZPI URTEZ NERE BIZIAN (1935-1941)

California. Hemen sartu eta bederatzi urtez ez ninduen nehork xerkatu. Bost urteren buruko nere ardiekin lotu nintzen; beste bi lagunekin bi mila bildots erosi gintuen. Urte gaiztoer buruz hasi ginen gure bizibidetan. 1930.enean hasi nintzen neure ardiekin eta hasi memento-tik bortz urtez pasatu genuen Amerikako historian izan den depresione luzeena eta serioena. Gainera urte idorrak bertze alde. Negozio ttipi eta haundi anitz erori eta desegin zen; gu, aldiz, xutik gelditu ginen zuhurki segituz geure eginbider. Hau izan zen bizitzen ikastea eta oroitzapena ene bizi guziko; geroztik Amerikara jin direnak ikusi eta ikasi ez dutena, eta erranik ere sinetsi ezin diotena.

Orduan banituen bi gauza Probidentiak emanak aita—amen medioz: *osasuna* paregabea, eta *kuraia* neurri gabea. Hauek lagundu naute anitz lanetan eta anitz urtez.

Urte idorrak, bazka xuhur eta gure azkurrien balioa zolara jautsia, 1934 urtea genuen txarrena. Martxo lehenen ardien ilea moztu eta hasi ginen kurri Mojave—ko desertura buruz zelaian bizia ezin eginez, eta desertua ere

xuhur aurkitu genuelarik behartuak ginen goragoko mendietara treinez ardien eramatera.

Ardien sanja hori egiteko behar genuen gobernutik baimena gobernuko lurretan pasatzeko, eta baimen hori izateko behar genuen ardien udako bazka pagatua zelako froga erakutsi. Horiek ardietsirik Mono Lake eta Bodie aldera, leku freskora joan ginen atseginarekin.

Beste ardi nagusi bat, euskalduna hau ere bainan fintasun gutti eta tzarkeria beti berekin etorri zen gure ondotik, gobernuko baimenik ez ardien bazkarik deus izan gabe. Batzuen eta bertzeen lurretan sartu zen eta gero geuretan deus erran gabe. Orduan lurraren nagusia hartu genuen eta legez bortxatu kanpora.

Hain zuzen, haren artzaina ene gazte denborako eza-guna gertatu zen, Ondarrolan mutil egona, eta hark bazekien nola isilik jalgi nintzen Luzaidetik, eta ez nintzela Ameriketara bide zuzenez sartua salatu zion bere nagusiari. Hartarik hasi zen ene gudua inmigratzeko gizonekin, eta urte bat eta erdi joan zen Gobernuak atzeman eta ni kanporat bialtzeko deliberoak egin orduko.

Los Angelesen ezarri ninduten treinian eta *Galveston Texas* kargako untzian, hogeit egunez, apirilaren lehen aldera heldu nintzen Bilbaora. Betan ezarri nuen Amerikano kontsulean itzultzeko erreklama, bainan ez nuen baliatu; laster bazterrak nahasi ziren Españaan, populua altxatu zen Gobernuaren kontra eta hiltze ikaragarriak hasi ziren.

Nere anaiak hartu zuen nere lekua, bainan nekabide haundia zen harentzat. Ez zakien auto gidatzen ez bazka erosten, ez beste sal-erostetan; lan berriak ziren horiek harentzat. Ez nuen anaiaren berririk Californiatik eta haren esku utziak nituen nere ontasunak. Biali nion galdea

mugaz beste aldera igor zezan erantzuna, eta haren berriak nik eskura orduko ardiak saldu zazkidan. Nigar egin nuen eta galdatu anaiari berriz eros zitzaiz ardiak, nik ez nuela bestela itzultzeko xantzarik. Eta erosi zituen.

Nere atxikidura berria galdu zen Bilboko Konsulan, hango bulegoa hertsu zen eta langileak ihes joan. Hogeitabi hilabetez ez nuen deus egin ahal izan eta aspertua nintzen. Azkenean, berriz ere mugaz beste aldean, lehenik Hendayara eta gero Biarritzera joan eta handik ardietsi nuen sei hilabeteko baimena Californian utzi aferen zuzentzera joateko.

Bertsuak egin ditut ene biziko manera gustua duenari adierazteko. Leku gutitan nahi dut aunitz erran bainan ez da aise. Pundu larrienak bakarrik agertu ditut, zeren xeheki emaitera beste hainbeste bertsu eman behar nituen eta luzegi eginez nehork ez ditu irakurtzen.

April 1956



Juan Cruz Arrosagaray bere artaldearekin.

I. LEHEN BERRIAK

Airea: Oilanda gazte moko fier bat...

1.-

Pedro Juan, zuk eman bertsuak orantxe zaizkit eskura,
Ez nuen uste horrenbeste zuk nindukezula ohora;
Diozun gisan altxatzen nautzu nere aitasoin gradora,
Horgatikan naiz obligatua zuri ordain emaitera.

2.-

Hoinbeste gauza berdintsu ditû guk biok bizi moduan,
Sortuak ere elkarri hurbil Euskal herriko xokoan;
Ni Luzaide'n ta zu Ondarrola kartierraren buruan,
Bertsu egiten ere hasiak biok zahartu onduan.

3.-

Zure bertsutan eman dautazu sobera grado handia:
Nola ordaintzen dutan nik orai Bordele bertsularia;
Bainan ez naiz ni haren gradoko nihun aski kurtsatia,
Dolutan nago gazte denboran ez hartuz haren xedia.

4.-

Haur denboratik beti bai nuen kantatzen gustu handia,
Presuna batek preziski egin zautan hartara galdia;
Ofizio hartan egiten ahal nuela neure bizia,
Pena zaikela boz xoragarri hau isilik gelditzia.

5.-

Haur denborako fazoina gero han sanjatu zautanian,
Kantuz artzia ere baztertu halaber uste gabian;
Malurostasun aunitz izan dut adinik hoberenian,
Oroitazten nauzu orai zuk neri bertsu emaitian.

6.-

Egia duzu ukan duztala nik zorigaitzak askotan,
Hoitarik zonbeit agertu nahi ditut oraiko bertsutan;
Lehen-lehenik kontrako bidez nintzala Ameriketan,
Ontasunak nik hemen utzirik joan behartu zitzautan.

7.-

Nere partitze ezin bestea sekulan ezin ahantzi,
Neure aferen zuzentasuna ez nuen ere ardietsi;
Ardi-bildotsak bi partidetan bidean nituen utzi,
Nere abokat traidorea bestek zautaten erosi.

8.-

Hura ikusi beharrez nintzen joan azken egunian,
Bainan ez nuen xantzarik izan segur zagon gordegian;
Saldua zela ez bainakien nehondik ordu artian,
Urran goizian partitu behar harek utzi tristezian.

9.-

Ezin besteak hartu ninduen galdurik nere babesa,
Koropilotan estekaturik jarri zitzaitan bihotza;
Manera hartan utzi behartu nere ontasun baliosa,
Bai eta ere begistaturik naukan izar loriosa.

10.-

Los Angeles-en sartu ninduten segurtaturik treinian,
Gorputzan urrun ba zoan eta gogoa California'n;
Nere izerdiz egin dotea utzirik bihotz minian,
Malurosago ote da nehor hobenik gabe denian?

11.-

Galveston Texas eman ninduten kargako itsas untzian,
Hogoi egunen buruan nintzen heldu Bilbo Spainian;
Nahi bai nuen handik itzuli, sartzeko California'n,
Bainan ez nuen baimena ukan orduan han Konsulian.

12.-

Sortu herrira arribatzian estonatu jendakiak,
Nola nindoan ez bai nituen nehondik abisatiak;
Halarik ere gorde nituen barneko sendimendiak,
Sobera dolu eman beldurrez nere zorigaitz tristiak.

13.-

Bi hilabeten buruan bai zen gerla zibila han hasi,
Zorigaitzaren gainera hori ere behar nik ikusi;
Hoben gabeak bizi galtzera, hori nik ezin iretsi,
Xantza agertu zen bezen laster itzuli nintzen ihesi.

14.-

Bainan oraino nahigabeak familiako menbrotan,
Ezin ahanzi izanen dire nere bizi egunetan;
Ait'eta hiru haurride galdu oi bi urteren barnetan,
Horiek oro golpe bortitzak bihotz eriaian kaltetan.

15.-

Bat gerlan eta, beste bat erre hogoi-ta-hemezortzian,
Hirugarrena eritasunez, San Franzisko'n berrogoian;
Aita gaixoa nahigabeak eraman urte berean,
Hainbeste dolu lotsagarri zen oro familia batean.

16.-

Sinetsi ahal dezakenaren aitor dezaket egia,
Zazpi urtez dut gobernuari atxiki neure auzia;
Denen gainera onestasuna nuela pare gabia,
Ontsa gostarik ardietsi nik dauketan libertatia,

17.-

Pedro Juan, nik nere berriak dauzkizut zombait aitortu,
Gainerakoak beste aldiko beharko ditut altxatu;
Zonbat zorigaitz nik jasan dutan nahi baduzu negurtu,
Konsolatzeko etsenplu zombait zuk eman ahal baduzu. (2)

California'n 1974'eko Otsailan eginak

(2) *Príncipe de Viana* euskalduna, 1974-VI eta 1974-X.

II. BIGARREN PARTEA

Erran dena, Espainiako itzuliaren ondotik sei hilabeterako sartu nintzen New York-en 1937.eko abenduaren 24-an, bainan nere guduak Gobernuarekin lau urte gehiago jarraitu zuen oraino harat eta honat asko eginik.

Orduko ene beldurra nere paperen zuzentzea zen, eta Canada aldera jo nuen. Hamar egunen denbora eman zautaten bakarrik Canadian egoteko; egun haiek finitu gabe behar nuen aldebat Estatu Batuetarat sartzeko *visa* ardietsi hemengo Consulan; ez banuen ardiesten Canadak entregatzen ninduen hemengo Inmigracionearen eskutara eta orduan lekurik gabe nintzen eta ez jakin norat bialduko ninduen Gobernuak. Bainan uroski ardietsi nuen.

Hasi bertsuak finitu ditut eta hemen bialtzen dizkizut. Ez ditut nahi bezen ontsa eginak, zeren lan zaila baita enetzat eta bertso egiten ez dut ikasi izpiritua azkar nuen denboran; bakarrik kantuz izan dudan ene anbizioniak eta borondateak bortxatzen nau bertsu zombaiten agertzera. Bestalde poz ematen deraut Urdiainen adiskide on bat badugula ikusteak. Hurbiltxeago bazine jin nindaik berriz ere solastatzera, bainan bide luzearen uzkurtasuna senditzen dut oraikoz.

Orai ni naiz burua hingatua; ezin hartu gauzak lehenago bezala. Pentsatzen nago hasi behar dutala neure kantuen berriz izkiriitzen denak berdin izan ditene; orai diren gisan kantu bezanbat izkirio diferentzia badute.

Aire edo Doñua: *Oilanda gazte moko fier bat.*

1.-

Zazpi urteren ene bizitza eman berri dut bertsutan,
Heien eskasak emanen ditut orai hasi naizen huntan;
Turista gisan sartu bai nintzan berritarik Amerikan,
Sei hilabeten permisionia ukan nuen bakarrikan.

2.-

Denbora hura bururatzian eskatu beste seiena,
Erraxki eman zautaten behin bainan hartan zen azkena;
Gero ez jakin norat jokatu, gerlan zen mundu gehiena,
Hobendun gabe urrikari zen ene hersturan zagona.

3.-

Ene etsaiak oraino hala zirela jakin bai nuen,
Gizon espresa omen zaukaten ezarria Washington-en;
Bi aldiz ene jujamendia han pasatu izan zuten,
Eta etsaien mutila beti han ene kontra bozkatzen.

4.-

Orduko hasi nintzen ni ere harat hedatuz apela,
Washington-erat gidatu nuen ene defentsa leiala;
Zuzen kontrako bataila hura jarraiki behar nuela,
Arrazoin gabe manera hartan atakatzen nindutela.

5.-

Eztabadako ezin bestean joan ziren hiru urte,
Pasaportetik ere ez nuen balio zuenik bate;
Espainiako gobernua zen hemen Konsularik gabe,
Pazientzia hartu beharko denbora hobe jin arte.

6.-

Kausa bizirik idukitzera ari zen ene defentsa,
Denborarekin sanja zaikela ene aldera balantza;
Urrundanikan ezagun zela argizari esperantza,
Konserba nion nuen bezala ene zuhurtze baliosa.

7.-

Bakersfield-en hasia nintzen, gero sanjatu Fresno-ra,
Beste pausuan urrundu nintzen negozioz Estockton-era;
Lau mila bildots bai nituen han ekarriak bazkatzera,
Inmigrazio txakurak beti segi ene errestora.

8.-

Batian galde, edo izkiria ehun mila kestione,
Abaildurikan ninduten beti kriminale baten pare;
Beharrik nuen poliz-rekorra nihun tatxarikan gabe,
Jende onestak sofritu behar tzarren gatik hala ere.

9.-

Galde egin ta joan beharko heiek manatu bezala,
Ikusten nuen saltsa handian nahasirik nindutela;
Halarik ere guduka segi borrokarien gisala,
Pentsatzen nuen noizbait bederen nagusituko nintzela.

10.-

Esperantza han arribatu zen nonbaitikan azkeneko,
Ene etsaia bere kargutik joan zelarikan kanpo;
Abisa nuen orduan izan lanari berme lotzeko,
Deliberoak prepara nitzan Canada-rat jalgitzeko.

11.-

Lehen urratsak egin behartu oraino San Francisco-ra.
Inmigrazioko xefa handien bekoz-beko mintzatzeraz;
Eta gainera Español Konsul berria ezagutzera,
Handikan nuen segida hartu jalgitzeko Canada-ra.

12.-

Bidaia hura hasi bai nuen beldur ikaran treinian,
Abenduaren zazpi arratsa ni Canada-rat heltzian;
Oroitgarriko eguna baitzen maluros mundu guzian,
Japonak zuen gure armada sutan errautsi ordian.

13.-

Ni Canada-rat partitze hartan, nerekin nuen beldurra,
Hamar egunen eman zautaten permisa neure eskura;
Egun heietan ardiets nezan Permanent *Visa* segurra,
Bestela berriz jinen zitzala inmigrazioko txakurra.

14.-

Urran gozian bederatzitar: ene Konsulan sartzia,
Isilik eta serio zagon hango langile guzia;
Radiotikan mintzo zitzaukun gure President noblia,
Japona-rekin gerlan gindela abisatzeko mundia.

15.-

Jaun Presidenta isildu eta bakoxta bere lanari,
Atsegin nuen etorri zela berehala ene aldi;
Han presentatu nindutelarik Konsulako nausiari,
Arratsaldeko ene paperak zuzen zituen ezarri.

16.-

Canada nuen gibela utzi hamargarren egunian,
Eta Estados Unidos-etan sartu leihaltasunian;
Konsolamendu handia nuen pena guzien burian,
Bainan galduak ezin atzeman sekulan ene bizian.

17.-

Abokat, Juja eta jendaki, traidoren gradokoak,
Malurra eni eginez nahi salbatu zuen buruak;
Bainan oroitu gaizki eginak ditu ondotik doluak,
Merexi arau gaitzala oro jujatu gure Jainkoak.

1974.eko Apirilaren 10ean eginak.

III. HIRUGARREN KANTUA

Banakien zer nuen eskas bainan ez nakien noiz ardietsi-ko nuen.

*Harat eta honat kurri ez nakien non geldi,
Txakurrak beti gibel aldetik neri segi,
Lan nekosa eta gastu eman zautaten neri,
Bainan, azkeneko, guzien nagusi nintzen jalgi.*

Ni abokataren hitzean fidatu nintzen, harek erratearekin gostuan jarraiki nindadin nere lanetan eta ez beldurrik izateko. *Maluros ez ezagutzia / Nere saltzalearen jukutria.*

Gobernuko gizonak jakinarazi zautan hiru egun partitu baino lehen:

— Zure abokatak ez du deusik egin zuretzat eta jalgi behar duzu asteart goizean.

Harritu eta mututu nintzen, ez nakien zer erran. Ortzi-ralea zen, larunbat eta igandean ez nuen deus egiten ahal zeren bulegoak hertsia ziren. Astelehen goizean nere lanak utzirik abokataren ikustera joan nintzen. Bulegoa idoki gabe han nintzen ehun milla eginik nere ardien lekutik. Bederatzi t'erditan abokatak telefonatu zion bere segetariari hartzeko haren beha ginauden klienten izenak. Nik ere nere eman nion maleziarik gabe; jakin banu beste izen bat emanen nion eta orduan segur jinen zen bere lanera, bainan ez nuen pentsatzen saldu ninduela. Arratsaldeko

hiru t'erdi arte egon nintzen abokataren beha eta ezagutu nuen ez ninduela ikusi nahi. Saldua ninduen eta ikusi gabe haren bulegoa uztera behartua nintzen.

Biharamon goizean Inmigracioneko jaunen eskura behar nuen Los Angelesen agertu. Berrehun millaz gora bazen nere lekutik. Nere artzainak ez nituen despeditu; bi partida bildotsekin bidean utzi nituen. Gainera azken erditzen ari zirenak biehun bat nihauk artatzen nituenak nehor gabe utzi nituen. Kriminal bat ere ez dute legez ekentzen ahal artzaingotik ordaina artzain ezarri gabe. Eta ni nere ardien jabe eta artzain nindagona holaxe urrundu ninduten Espainiarat. *Urrikarrizko zorigaixtoa.*

Aurten (1978.2.28) badugu euri frango; abendu erditan hasirik hogoi pulgadaz gora. Bi aste huntan gelditua zen, bainan egun berriz hasten dauku. Kanpoak berde eta lorios dire, behi eta ardiak asetzen aise, eta gainera errekolta haundien esperantxa badugu heldu den udako.

Bakarrik, malur izigarriak egin ditu. Euri urek eraman dituzte aunitz etxe errotik, eletrika eta telefon hariak ere berdin, aunitz automobil ehortzi ditu erreka bazterretan eta jendea frango eraman; zenbaiten gorputzak atzeman dituzte, eta besteak ez, heiek gelditu dira ehortzirik nunbait. Hilarriak ere leku batean berrogoi bat kutxa beren gorputzekin ateraiak ziren erreka bazter batean eta, bestalde, aunitz malur kondatzeko sobera. Itsas untziak itzuliak zolak gainera eta jendeak galduak.

Airea: Sujet eder bat deklaratzan dut...

1.-

Zazpi urteren ene bizitza emana dut bi kantutan,
Hango eskasak emanen ditut orai hirugarren huntan;
Ene etsaiek nola tronpatu ninduten uste gabetan,
Ustez nituen adixkidiak, buru ziren etsaietan.

2.-

Bat abokata, bertzia juja, jarri ziren ene berme,
Lan hori berek hautatu zuten, eni deus galdatu gabe;
Iñorant nintzen, ez jakin zertaz, nahi zuten ene jabe,
Otsoak artzain jarri zauzkitan, ta ni bildots baten pare.

3.-

Bertzek erranik onartu nuen laguntzeko abokata,
Mila espantu eta promesa harenganat joan eta;
Nik hartan utzi Konsularako bide zuzen ta prudenta,
Eta hargatik pairatu gero, bortitz heldu zen tormenta.

4.-

Ene abokat saltzale hura Bakersfield-era zohala,
Idatzi zautan berekilan ni eramanen ninduela;
Bainan idera sanjatu zuen eta utzi ni gibela,
Maluroski nik ez nuen jakin ene saltzia zutela.

5.-

Larrazkenean beti bezala etorri zen azaroa,
Eta justoki denbora hartan gure ardi ertzarora;
Hainbeste nintzen lanez beterik, gau-egun okupatua,
Nik jakin gabe ais'egin zuten ene saltzeko tratua.

6.-

Azaroaren bederatzia ezin ahantzi dudana,
Lerro urdinez idatzia dut egun hartan egin lana;
Bi abokatek elgar adituz nitaz egin zuketena,
Eta nik ezin orduan pentsa gero gogora zautana.

7.-

Bi ehun eta berrogoitamar dolar zauzkitan ekendu,
Eta etsaien aldetik ere norbaitek zuken lagundu;
Erran zerautan: Zure afera oraikoa dut konpondu,
Egizu lana gostura eta egon zaite ene kondu.

8.-

Zorigaitzeko konfidantzia nik hartu haren eletan,
Jarraiki nintzen beti zuhurki nihauren egin bidetan;
Gogora gabe maleziarik bazukela hark obretan,
Ni berantegi ohartu nintzen nindutela hek saretan.

9.-

Azken erditzen ziren erdiak nituen neure konduko
Ta bi partida bildotsekilan bidean jarraikitzeke;
Herrira nintzen beharrez jina jangailia erosteko,
Han jakin nuen inmigratziora laster nihaur agertzeke.

10.-

Denak utzirik agertu nintzen harat biramun goizian,
Han jakin nuen denbora labur naukela Californian:
Zur'abokatak ez du deus egin zure kausaren gainian,
Los Angeles-en behartzu sartu segur asteart goizian.

11.-

Ortziralia zen hura eta hainbertze lan egiteko,
Denbora labur, egin-bideak zuzenki bururatzeko;
Larunbat eta igandia-re hetsiak lan hoietako,
Astelehena azken eguna abokata ikusteko.

12.-

Haren lekura heldua nintzen, lanak eginik goizian,
Nonbaitik zuen telefonatu bederatziaik aldian;
Beha ginauden jenden izenak eman ginitzan ordian,
Bainan halere ezin ikusi nuen nik egun guzian.

13.-

Orduan nuen galtzera utzi bizi nuen esperantza,
Harek zerautan jokatu oso, sendikor nuen bihotza;
Ezin bertzeak estekatua, bertzek zuten ene giltza,
Eta berri bat egiteko nik, denbora nuen eskasa.

14.-

Ez nakien zer egin orduan, bidez-galdua bainintzan,
Neure artzainen despeditzeko ez nuen astirik izan;
Bihotz jukutre infame heiek ni utzi ninduen gisan,
Ez dakit nola hoinbertze urtez geroztikan bizi nizan.

15.-

Ene bizian ez itzultzeko atea hetsi zituzten,
Bainan hek baino konduta hobe, enia atzeman zuten:
Guduka frango gostarik ere, sartzera utzi ninduten,
Californian bizi naiz eta duda gabe hemen hilen.

16.-

Zenbat uros den etsairik gabe munduan bizi daitena,
Bainan ez dio harek estima beraren urostatasuna;
Nik pairatu dut ene bizian plazer baino gehio pena,
Horgatik orai esperantza dut zerurako zoriona. (3)

(3) *Herria*, 1978-X-5; *Newsletter*, Reno (Nevada), 1980-V.

Nov. 5. 1960 Catalina y Juan Cruz



Juan Cruz eta Catherine espos egunean, 1960. azaroaren 5ean.

NERE ANDRE ONARI

Honekin bialtzen ditut aste hontan nere andreari egin ditudan zortzi bertsoak; egun egin ditut hauen kopiak prisaka. Ez ditut merexi duen bezain ederrak eta luziak egin, baina oroitzapen bat izanen du. Neretzat lan nekosa da orai bertsu egitea. Duela zenbait urte galdegiten zaskidan noiz eginen nituen harentzat zenbait bertsu eta beti gibela uzten nituen zeren euskara ez du konprenitzen, baina ikusten dut nehoi baino zor gehiago dutala nere lagunari.(4)

Aurten ez gira Catherine eta ni nehorat jalgi, ez eta hemen La Puente eta Chinoko euskaldun bestetan ez gira izan. Orai arte beti joaiten ginen. Joan den urtean izan ginen Reno, Nevadako bestan, eta Bakersfield-ko bestan. Joan den ekainean izan nituen hiru buru zoradura, goizetan ohetik jeikitzean ezin egon xutik. Azkena izan nuen Maria Anjela esposatzeko bezperan. M.^a Anjela etorri zautan laguntzera sukaldera eramaiteko baina ezin joan eta berriz

(4) Catherine CHALDU da Juan Kruz ARROSAGARAY jaunaren emaztea. 1960.eko Uztailaren 5ean ezkondu ziren.

ohera etzan nintzen. Geroztik hartzen ditut hiru pastilla egunean eta ez nau geroztik atakatzen Jainkoari esker; ez dakit noiz arte.

Doinua: *Otxalde eta Etxahun (Agur adixkidia)*

1.-

Bertsu berriak orai nere andreari,
Aspaldi galdua zautan lan hau neri;
Eginen diot hemen nik zerbitzu hori,
Zor diot nik hainbertze lagun maiteari
Ordainez hark neretzat egin laguntzari.

2.-

Bakarrik bizi nintzen ezkont aitzinian,
Osagarri nueno libramen handian;
Gero bihotza hautsi han zitzaitanian,
Abantxu utzi nuen mundu hau ordian,
Eta pentsatu: Norbait behar dut aldian.

3.-

Hartarik etorri zen nere ezkontzia
Bakartasuna utziz lagun bat hartzia;
Egin niolarikan ezkontzaz galdia
Emazte-gaiak laster «bai» errepostia,
Ezin gerta zaiteken bertze bat hobia.

4.-

Mende laurden' abantxu ezkondu ginela,
Laguna gertatu zaut nik behar bezala:
Langile baliosa, prudent ta fidela;
Hainbertze laguntzen nau ta egin ahala
Jainkoari esker dut lagun hau dutala.

5.-

Nere andrea leihal bere eginetan,
Garbitasuna oso bazter guzietan;
Ez du nagitasunik dakien gauzetan,
Beti prest dago zuzen bere orduetan,
Pare gabia duzu dabilan lekutan.

6.-

Janaria egiten ere ontsa daki,
Gostu ona du eta beti bada aski;
Arrangurarik ez du finitziareki,
Eskerrak emateko gu prest gira beti,
Kozinerra satisfos guk erranareki.

7.-

Ni errebes nabila bai osagarrian,
Andreak laguntzen nau behar dutanien;
Mediku-erremedio falta direnien,
Andrea erne dago beti tenorian,
Hau ez izanez nintzen hila aspaldian.

8.-

Andrea, nahi zaitut beti zu onduan,
Lagun nezazun ontsa ni behar orduan;
Jainkoa otoizten dut nik errespetuan,
Hemen bizi gireno eta hil onduan
Ezar gitzan gu biak gozaten zeruan.

9.-

Huna zure bertsuak mila plazerreki,
Ahal izanez egin nezazke hobeki;
Bainan nehork ez dauta lan hau erakutsi,
Arrazako giltza dut zerbait gisaz hunki,
Ordainez emadazu besarka bat tinki.

1982.eko Abendua.

Gu hemen pulliki, bainan beti apalago; ni beti erre-
dio hartzen tableta eta kapsula gau eta egun hamar aldiz
egunean. Etxe bazterretan hasten naiz zerbait lan porroska
egin nahiz eta zorbait aldiz utzi behar dut finitu gabe.

Catherine bere kadera juntatik nekez dabila; aspaldian
operatu behar zuen bainan gibelatzen du eta ez dakit ze-
rengatik.

JEIKI, JEIKI, MARIA ANJELA

Primaderako goiz iruzki garbi batez zortzi ordutan, usaian bezala joan nintzen Maria Anjela jeikiaraztera. Hau nekez altxatzen baita goizetan ene galdeari ez zuen ihardesten. Orduan leihoa zabaldu eta iruzkiak hunkitzen zuela bere ohea hasi nituen bertsu hauk eta urran egunean finitu. Luzegi delakotz suiet guzia emateko bertsutan, hemen dagona neurtua da hamabortzetan.

Ez dakit zer idurituko zauzun eta ez dakit oraino nola hedatuko ditudan. Bakarrik erran nahi dauzut galdu gabe altxatzeko, eta gero ikusiko dugu zoin kazeta edo liburutan emanen ditugun; denbora berean zuk emanen derazu zure iduripena.

Oraiko bertsu hauetan zenbait badira hunkigarriak bainan egun batez behar bada Maria Anjelarendako aurkibide bat izanen da zer gertatu zaion bere haur denboran, eta nork hazi eta kasu egin dion ez luke achantzi behar. Sendigarriak dira familia eta jendakiaren, hargatik erran nauzun azken letran idukitzeko nik abisatu arte. Aldiz, orai zuk

galdegin permisionia emaiten dauzut urte hau finitu gabe zabal ditén. (5)

Eta azkenik, uste bai dut kazetako inprentan gure maxinako letretan baino toki gutiago hartuko duela, bertsuén eta ene izenaren azpian behex ezartzen ahal duzu hemen igortzen dutan bertsu hau, edo bertze zerbait kantu honen ohoretan:

*Hau da luzaidarren oroitzapena
Eta zenbaitentzat pena haundiena;
Nahi duenak altxatu kopia honena
Ahantzi gabe, nola igan bertsu emailena.*

Airea: *Jeiki, jeiki, etxeakoak argia da zabala...*

1.-

Jeiki, jeiki Mari' Angela, *argia zabala da, (bis)*
Zerutikan iruzkia garbi eder heldu da,
Ottok zure askaria orai prestatua da,
Etor laster jatera.

2.-

Askaria zuk jan eta *soineko sanjatzia, (bis)*
Bezti garbia jantzi eta biloa moldatzia,
Gero laster harturen du eskolarat bidia,
Zur'obligazionia.

(5) *Principe de Viana*, Iruñeko euskal aldizkarian, 1970.eko urtarrilean argitaratu zen. DN. *Nafar Izkuntzan Orria* 1970.IV.23

3.-

Bide hori eginen dû *zuk eta nik batian*, (bis)
Eramanen zaitut harat nere auto ttipian,
Bai ta ere ekarriko gero gisa berian,
Eskola finitzian.

4.-

Zure ottok nahi du zu *ontsa edukatzia*, (bis)
Jostaketak negurrian et'aunitz ikastia,
Handitu ta errespetuz igaiteko bizia,
Laite pare gabia.

5.-

Ottok eman kontseiluak *hartu ontsa burian*, (bis)
Gau-egunak pasatzen tut orai zure guardian,
Nahiz ontsa zu gidatu jendetasun moldian,
Zerurako bidian.

6.-

Mundu huntan irriskuak *guzientzat ba dire*, (bis)
Lanjerretik begiratuz konserbatu bertute,
Emazteki baliosak hortan ezagun dire,
Hartu beti kuraie.

7.-

Aita-amak galdu tutzu *zuk haurra zinelarik*, (bis)
Hein egintzak guk egiten zuk behar tutzularik,
Otto-ttanta okupatzen dire zutaz bakarrik,
Ez bai tutzu hoberik.

8.-

Zu zaitugu mundu huntan *hazteko haur bakarra*, (bis)
Zurekilan enpleatzen pazientzia ta indarra,
Jabeik gabe gelditzian, kusiz zure beharra,
Ordutik gure haurra.

9.-

Zortzi urte orai tutzu *sorturikan mundura*, (bis)
Bi-ta-erdi ba zintuen jin orduko gutara,
Ezin ahantz dezakegu orduko zur'itxura,
Bihotz hautsgarri hura.

10.-

Ikusirik beizik nehork *ez dezake sinetsi*, (bis)
Zer tormentak egun batzuz zuk dituzun ikusi,
Doctor, Nursa, oro arrotz, nehor konsolagarri,
Ait-amak han galdurik.

11.-

Dozena bat egun egin *Fresnon Ospitalian*, (bis)
Zuretzat zer sofriztiak ahal ziren ordian,
Oraino're senditzen dut zauri bat bihotzian,
Han zutaz oroitzian.

12.-

Egun txarrak iraganik *onerat ba zoatzi*, (bis)
Zuen auziak hasirikan ia sei urte ba ditzi,
Parte bat da konpondua, bertzian orai hasi,
Ez da segur goizegi.

13.-

Auzi horrek eman deraut *sobera pentsaketa*, (bis)
Gau-egunak arranguran nihun ezin deskantsa,
Adina're bizkarrera jautsi zeraut doblezka,
Hau da ene presenta.

14.-


Justiziak ezarri nau *zur'aferen gidari*, (bis)
Kontuak nik zuzen eman behar ditut jujari,
Hogoi-ta-bat urte arte ez zire zeure nausi,
Ordura banintz bizi!...

15.-

Hemeretzi ehun eta *hiruogoi bederatzi*, (bis)
Bertsu hauk nik eman ditut illobaren haurrari,
Oroitzapen altxa ditzan guk hauxe hazi-sari,
Esker Jainko Jaunari.

Bertsu hauk nik eman ditut *iloba ttipiari*, (bis)
Oroitzapen altxa ditzan guk hauxe hazi sari,
ESKER OTTO-TTANTTARI.

Pomona, Californian. 1969-an.



Maria Anjela euskal besta egunean.

EUSKAL HERRIRA BIDAIA

Euskal Herrira bidaia baten egiteko prestatzen ari gira Jainkoak laguntzen banau. Ez naiz gogo osoan heldu, zeren osagarri delikatua dut ia hogoi urte huntan. 1950.eko abenduaren 14an izan nin bihotzeko atake bortitza eta ez dakit nola bizi naizen ere, geroztik nik egin ditudan lan eta bertze aferan anitzeri kontu emanaz. Horregatik badakit ez dutala gogoan dutan gauzarik eginen ahalko hor ere; baka-
rrik, nahi diot Maria Anjelari ezagutarazi bere jendakia, zeren berantago ez naiz hobeki izanen.

Pentsatzen dut bidaia emozione haundikoa izanen dela, oroz gainera enetako hoinbertze urteren burian eta, gainera, haur honekin hor Luzaiden agertzean lehen egunetan. Guzien gusto egiteko eta soportatzeko batek ontsa behar luke osagarriz eta hau nekez konprenituko dute gure jendaki eta adiskidek. Horgo jendearen borondate soberakina ez zaugu konbeni guri. Uste dute hek eman jan eta edan guziak gure onetan direla, eta ez baditugu jaten eta edaten gaitzitzen zaie eta hori da guretako kalterik haundiena. Bai nik eta ene emazteak jan-edanak negurturik behar ditugu eta segur niz ez dugula pozik emanen askori; hemen beretik ikusten dut.

Gure arreba Iruñera jina da orai bizitzera eta, menturaz, denbora parte bat hor egonen gira. Auritze maiteago nuke klimaren partetik Luzaide baino; bainan ez dut eza gutzen han nehor.

Egun hotan (1970. Apirilaren 2) eman ditut bertze kantu batzu. Izena: *Euskal Herrira Bidaia*. Ez ditut inprentan ezarriak oraino, bainan egun guti barne hor izanen dituzu. Gure afera, legezko puxka batzuen finitzen ari naiz gure haurraren kondutan, eta hau finitu bezain laster izkiriatuko dut Luzaidera. Agertzen ahal dituzu ekainean, zeren goizago agertzea ez da konbeni zerbait gerta balakigu arte hontan. Gure osagarri delikatuan ez da deusik erraiten ahal.

Ontsa sendi bagira, Ekainaren 25-ean airatuko gira Los Angelesetan, 26-an Parisera. Gero, ez dakigu oraino egun berean izanen dugun aitzina segida edo biharamonean. 28 eta 29 uste dut Donibane Garazin pausatzea; gero ikusiko handik aitzinakoa. Ez dakigu oraino nun izanen den gure egoitza.

Airea: *Aurten arnua merke da...*

1.-

Mila bederatzi ehun hiruhogei ta hamarra,
Bidaia luze batian aurten naiz joan beharra;
Jinko-Jaunak emaiten badu neri behar den indarra,
Duda gabe ikusiren dut nere sort-leku xaharra.

2.-

Luzaiden sortua eta gazte denboran han hazi,
Hogei urte betetzian sorterri maitea utzi,
Geroztikan Californian nabil harat-honat beti,
Nekaturik ardurenian eta plazer arras guti.

3.-

Nahigabe ainitzetan iragan bizi modua,
Halarik ere oraino ba dut konsolamendua;
Gaizkiago zombait ikusiz, naiago neure gradua,
Gainera zeruan sartzeko dut esperantza osua.

4.-

Esperantza atxik dezagun bizi gireno mundian,
Harek gaitu kontsolatzen pena guzien erdian,
Baita ere oro argitzen nonahi behar ordian,
Aingeru bat badago beti zerutik gure guardian.

5.-

Otoitz egin dezakogun aingeruño fidel horri,
Laguntza hark eman dezala gure behar ordueri,
Xantza onez gida gaitzala orai goatzin bidaiari,
Biziko guk oroitzapena izanen baitugu hori.

6.-

Ekainain hogoi ta bortza partitzeko tenoria,
Los Angeles-en hartuko du frantses airezko xoria;
Hau izanen da enetako esperientzia berria,
Airekotan sartzen naizela oraintxe lehen aldia.

7.-

Orai arte dakiguna gure bidaiain segida:
Hamabi ordu ta erdiz arribatzen Parisera;
Handik gero Baiona alde berriz airatuko gira,
Uztaila-ren lehen aireko uste dugu Luzaide-ra.

8.-

Arnegui-tik jakina dut uste ez nuen berria:
Automobilez estaltzen dela karrika guzia,
Arras nekez dela handik Luzaide-rat pasatzia,
Mendi gainez hartu beharko haurrian kasi bidia.

9.-

Jendakia, adixkide, baita Luzaidar guziak,
Urrun danik bialtzen tut oraiko konplimendiak,
Ez ahanzi egiteko guretzat otoitz nobliak,
Zuen ikusteko ditugu hartzen irrisku handiak.

10.-

Aitzinago joan gabe orai hemen gelditzen niz,
Nahiz oraino badauket zueri erraiteko ainitz;
Californian egiazki mintzatzera libro bainiz,
Euskaldun sortu, eta hazi, eta Euskaldun hilen niz (6)

1970-eko Martxoa.

(6) Ikus: *Principe de Viana*, EUSKALDUNA, 1970, ekainean. *Newsletter Reno U.S.A.* 5, june 1971, p. 6. *Herria*, 1970 - X - 8

ITZULI NAIZ ORAINTXE

Principe de Viana duela aste bat izana dut ene kantu eta fotoarekin. Orai emazteak burlatzen nau, duela 28 urte atera fotoa kazetan ezarriz. Egia erraiteko ez nuen hortarako bialdua, bainan oroitzapen bat da nahi dutenendako. Jakin dut Bordelen altxatu dutela, eta mila esker zuri (7).

(7) Ikus: *Principe de Viana* (Iruñea, 1970) Azaro-Abendu-ko alea.

Catherine, Juan Kruzen emazteak, honela dio itzuliaren berri ematean: «*Juan Cruz estuvo muy contento de verles y hablar con Vds. Le gustó mucho el viaje pero le cansó mucho el avión de Madrid a Los Angeles. Como Juan Cruz tiene el corazón muy delicado, necesita mucho descanso.*

Llegamos a Los Angeles la noche del 4, y la tarde del 6 tuvo dolores en el pecho y le llevé a Pomona Valley Community Hospital. Está allí todavía. Hoy va un poco mejor y espero que el médico le dejará venir a casa en dos semanas más.

Juan Cruz parecía tan bien y alegre en España que yo no pensaba que iba a enfermar al regresar a Pomona. Gracias a Dios que no se enfermó allí. El le escribirá a Vd. cuando se sienta más fuerte.

Mil gracias de Maria Anjela y yo también. Ella empezó los estudios el 7 y tiene mucho trabajo ahora. Le hace bien usar los sesos después del buen tiempo que tuvo en España. 17 de septiembre de 1970.

Orai bertsu berri bat emendatzen diot, bainan duda niz agertu behar dutan edo ez. Gure Maria Anjela ospitalean zelarik Bordelen poderioak hartu zituzten gezurrez gure jendaki batzuek, eta gero bertze batzuek adotatu nahi izan zuten haurra guk eskuratu ondoan. Guk utzi izan baginu aita-amek eman izena galdua izanzen zuen eta horregatik eman niro bertsu hori; egun batez haurrak oroitzapen bat izan lezake, bainan gainerakoan ez du edertzen suieta batiere:

*Dotia dote dela, bai bertzerik ere,
Gelditu da aita-amen izenaren jabe.
Gu orduan ernatu laster ez bagine,
Izena sanjatzeko desiran bazire,
Jendakia guzien zaiken desohore.*

Airea: Bordelen *Donostian soldado* edo *Antton eta Maria*.
Biak berdin dira.

1.-

Itzuli naiz oraintxe izanik European,
Kantuz hastera noa hango berrietan;
Ez nauzu sartzen ahal dakitan guzitan,
Sobera baliteke maiteko bertsutan,
Limitatu behar dut neure jendakitan.

2.-

Garazin egin dugu lehen pausaldia,
Handikan ikasteko aintzina bidia;
Ikusi dugularik abantail haundia,
Hego alderat hartu hurranen jauzia,
Bisitatzeke laster Nafarra aldia.

3.-

Eguerdi aitzinean helduak Arnegin,
Aduanaren berri oino ez ginakin;
Pasaportak odrian genituen gurekin,
Amerikano ditû, erakustiarekin
Uros *ongi etorri* zaukuten bai egin.

4.-

Uztailaren lehena sartzia Luzaiden,
Ordukotz jendakia zombait kusi ginuen;
Gainerakoak beha gure arribaren,
Emozioz beterik gu bezala zauden,
Aunitzak ez genituen ere ezagutzen.

5.-

Heieri hurbiltzean musu ta besarka,
Plazerraren nigarra begitan xortaka;
Laster hasi baiginen elgarri solaska,
Alde guzietarik etxerat gomita,
Estimagarria zen gure arribantxa.

6.-

Okupatuak aski han zombait egunez,
Jendaki berriak hor memento guziez;
Ilobak muntaturik beren haur ederrez,
Hoinbeste bazutela ez ginakien ez,
Gu kontent ikusiz hek azkar osasunez.

7.-

Aste baten buruan gero Iruñera,
Arrebaren familia han ezagutzera;
Azkeneko aldian utzi nuen soltera,
Orai haren umeak adinera dira,
Hiruetarikan bi aurten espos dira.

8.-

Orduan sortzekuak, orai ezkontiak,
Zonbat itzuli duen geroztik mundiak;
Gisa bera gaituzu gu abantzatiak,
Osasun ta kuraiatz arras higatiak,
Gazte itzul baginte zer dantza jauziak.

9.-

Osasun izaitia zonbat den haundia,
Eritu arte nekez da estimatzia;
Horgatik galdatzen dut Jaunari grazia,
Otoitz batean sartuz jendaki guzia,
Luzaz izan dezaten sendo bizitzia.

10.-

Naturalki den gauza hau baginakien,
Karesa beroenak beti haur ttipien;
Guk ere *ilobaso* gurekin ginuen,
Jostagarri izan da jendaki guzien,
Aspaldi ikusteko desiran baitziren.

11.-

Sei urte eta erdi orai pasatia
Legez hartu ginuen iloba ttipia;
Geroztik egin dugu ahal den guzia,
Defenditzeko haurra ta hunen auzia,
Guri esker izan du zuzen den hartzia.

12.-

Misione serio bat dugu bururatu,
Egin dugun lanaren frogak eman ditu;
Jendakia hurranak denak ezagutu,
Besten medisentziak airean botatu,
Gisa hortan gaituzu oro satisfatu.

13.-

Gure bisita orai ez dadin ahantzi,
Bertsu hauk nahi ditut publiko ezarri;
Gostu duenak ditzan memorian atxiki,
Bai eta ere kanta omorez airoski,
Hori galdatzen dut nik bihotzez deneri.

14.-

Jendaki, adixkide, hauxe da guzien,
Guk milaka eskerrak zuen zerbitzuen;
Bizi guzian gira zuez oroituren,
Agian elkar dugu berriz ikusiren,
Esperantza hori dut nik konserbaturen.

Pomona, California. 1970-ko Irailan.



«Luzaideko gazteria bi parte» kantuaren airea.

LUZAIDKO GAZTERIA BI PARTE

1923.ean eginak ardien zain nengoelarik urrun Californian. Galduak eta ahantziak nituen oro. Duela lau hilabete izan dut Arjentinatik hauen inprenta kopia neure izena azpian eta orduan oroitu naiz okupatu nintzela kantu hauen egiten. Hogeita hiru urte nituen horien egitean. Gure anaia zenak altxatua bazuen kopia. Bertze zombait ere baditazke galduak gisa berean.

Uste dut xehetasun guziak badituzun aldi hontako eta hotarik gusto duzunak emanen dituzu liburian (8).

Airea: Bordel bertsulariak emana Luzaidoko kontseilu eta diru zainari.

1.-

Bertsu berri batzuek nik nahi ditut ezarri,
Uste gabe zautalarik suieta hau etorri;
Konbeni da ixtoria dezagun erreberri,
Gazteria bi partetan delarik orai jarri.

(8) Ikus: J.M.Satrustegui, «Luzaidoko Kantiak». Auspoa 65, 113.orrian.

2.-

Aspaldian desberdinki zabilzaten kondutak,
Batzuk dira onest eta bertziak aldiz tranpak;
Estimaten ditut anitz azken berrien notak,
Jakitiaz tranperiak dituztela bai faltak.

3.-

Arrazoina bazitaken ba horien artian,
Erreklama zaitekena segurki aspaldian;
Izanikan ere tranpak abil zikanerian,
Tronpatuak omen dira orai uste gabian.

4.-

Ez naiteke orai geldi erran gabe egia,
Egin nahi dudalakotz neure egin bidia;
Irtzarri delarikan onesten alderdia,
Arbuiatuz utzi dute hobendun tranperia.

5.-

Tranperia ba zabilan engaño maleziaz,
Etsenplu tzar emanekin duten abileziaz;
Pentsaketa egiten dut horien itatiaz,
Baliatu dira ontsa zaukaten sekretiaz.

6.-

Afera hauk ez banitu lehenago asmatu,
Ez nitzazke gisa huntan orantxe publikatu;
Ba herrian ala kanpo dugularik tratatu,
Guzientzat irabazia berek dute altxatu.

7.-

Suspetchatu anitzetan horien portamendia,
Erabili diren gisan duda etzen galdia;
Buruzagi zabiltzano beti handi kondia,
Soberakin zen dirua hau berentzat gordia.

8.-

Gisa hortan abil gisan zabiltzan negoziari,
Uste gabe ez balira tronpatu azkenian;
Beren botuz soinulariak ezarririk herrian,
Gero ezin zazketela pagatu tenorian.

9.-

Akordatu'ta goberna bertzeri erran gabe
Berak izanik bezala herri guzian jabe;
Holakorik ez ahal da aditu nehon ere,
Soinulariak dituztela utzi pagatu gabe.

10.-

Dela gazte buruzagi, bai ala kontseiluko,
Karrikatar denaz geroz ez da estonatzeko;
Egundaino nausi izan direlarik karguko,
Ahal guzia egin dute bertzen gain bizitzeko.

11.-

Anitz aldiz baliatu bainan orai kanbio,
Atzemanak izan dira uste baino serio;
Manobratzen zuten ontsa engañoaz medio,
Bainan orai ez dukete pasaturen gehio.

12.-

Jakina da ez daizkela orai aisa errex,
Konpañian ez nahirik bai dituzte berexi;
Nausi handi egon eta, mutil baitze itsusi,
Beren hutsa daukatela behar dute ikusi.

13.-

Aldi huntan modu hitsak dituztela holaxe,
Duda gabe dolutuak ba direla berantxe;
Buru gorak nahirikan geldituak apaltxe,
Errespetuz segituko dira agian oraintxe.

14.-

Bertsu hontan zerratzen dut partikular berria,
Argitzeko nola doan Luzaide-ko herria;
Gastatzale «karrikatar», berme «laboraria»,
Gazte ala zaharretan berdin zikaneria.

15.-

Biba orai bitoria oneski daudenetan,
Kuraios egoz zaizte dituzien deretxotan;
Etzaitzela otoi beldur engañatzalietan,
Plazer handi izanen da adixkide orotan.

16.-

Bertsu hauk nik moldatuak apiril lehenian
Hemeretzi ehun eta hogoi-bederatzian;
Ardien zain nagolarik urrun Californian,
Gustu onez kantatzeko gure Euskal herrian.

Luzaidarrereri onesten oroitzapena bihotzez.

California, 1929.IV.1

LUZAIDAR BAT KANTUZ

Juan Cruz—engandik izan nituen lehenbiziko berriak erdaraz emanak ziren. Nik euskaraz erantzun eta «Luzaide» aldizkaria bialdu ondoan hartu nituen bertsu hauek.

—Adiskide, erraten zidan—, aldi huntan euskeraz igortzen dauzut —eta bertsu hautan— zure letraren arrapostia, eta barkatu ene ausartzia. (9).

Hitza frango sanjatu dut kantu hontan ustez hala hobeki diren. Hau izanen da azken apaindura eta hala emanen ditut kassette rekordian kantuz, ene botza geldi dadin oroitzapen.

Airea: Xarmegarria zira eder eta gazte...

1.—

Gaur goizian izan dut Luzaide—tik letra,
Nik igorri kantuek dutela errekesta;
Ez naite isil geldi hori entzun eta,
Horgatikan nahi dut nik eman kontesta.

(9) Ikus: *Luzaideko Kantiak*, 119.or.

2.-

Orai zuri mintzo naiz, Jaun Bikarioa,
Zure azken letratik argituz gogoia;
Nik Euskeraz izkiria duzu nahikoa,
Huna zonbat dakitan hementxe badoa.

3.-

Nola ikasi nuen hola izkiriitzen,
Bertzeri begiratzuz lumaren ibiltzen;
Erakuslerik gabe nihaurek moldatzen,
Hutsak eginik ere ez naiz estonatzten.

4.-

Euskeraintzat izan dut beti anbizioa,
Holako mintza bideik ez baita nehon-e;
Bainan pratikatzen du bakoitxak ber'alde,
Zuzenki nork dakiten nik egin dut galde.

5.-

Oraino ez dut izan horren errepostia,
Nehork ote dakiten nauzu dudatia!
Jende abilek dute hau estudiantia,
Ezin atzeman nun den Euskera sortia.

6.-

Euskal herriak ttipi ta hurbil elgarri,
Halare batek bertzia ez dio konpreni;
Gure izaite guzia bat egin baladi,
Egin ahal diteke erresuma handi.

7.-

Zer desiratzen dautan barnetik bihotzak:
Denek berdin egitia Euskaldun solasak;
Bai eta iskiriatu gisa bera hitzak,
Noiz atzemanen gaitu holako amentsak?

8.-

Aments hori ardietsiz gauza baliosa:
Denek konprenitzia familiako gisa;
Gidariek erakuts balezaute ontsa,
Ez litaike ikastia batere nekosa.

9.-

Euskeraz mintzo nauzu oraiko aldian,
Badakit ez dut egin hau lehen klasian:
Estimatuko duzue norbaitek agian,
Eta zuk, Jaun Bikaria, eskura hartzian.

10.-

Azken bertsuño huntan erran nahi dut nik
Luzaidar guzientzat agur on hemendik;
Aunitzek bai nauzie arras ahantzirik,
Jinkoari esker naiz oraino bizirik.

*1964.eko Martxoaren 12an egina;
1971.eko Maiatzaren 12an berritua*

OSPITALEKO BISITA

Pedro Juan Etchamendi, ondarrolarra, eri zegoen 1965.ean eta ikustera joan zitzaion Juan Cruz. «Ni ez naiz bertso emalea, aitortzen zuen orduan. Ambizionia banuen gaztetikan, bainan pratika falta nuen beti. Bakarrik, konprenitzen dut puxka nork ematen dituen ontsa eta gaizki. Aunitz aldiz, airearekin berdintzeko, hitzak behar dira luzatu; bertze zombait aldiz laburtu». (10)

Kantu hontan ez da sanjarik, bainan eder izanen da beti jarraiki diten Pedro Juanen bi bertsoak, nik hari emaneri erantzuna.

(10) Ikus: Luzaideko Kantiak. 123. or. «Liburuan eder izanen zen, nik hari eman bertsoen ondotik haren arrapostu hontan bere izenaren azpian den partea eta bi bertsu eder horiek ezartzea. Oraino ere nonbait inprenta ahal balite... eta zenbait kopia neri bialdu kontent igor nezako bat bera-ri». (1968. Uztailaren 19)

Airea: *Dama gazte xarmant bat jiten zaut bixtara...*

1.-

Agur adixkidia, Pedro Etchamendy,
Bisita bat egin dut berrikitan zuri;
jakinean zinela Ospitalian eri,
Ez baitzitzan atsegin neri berri hori,
la-la, la-la, la-ra-lai, neri berri hori.

2.-

Ospitalia ez da leku alegera,
Ezin bertzela salbo nunahi hobe da;
Bainan heltziarekin extremo batera,
Zoinatzeko lekurik hoberik ote da?

3.-

Oroipen izanen dut zure ikustia,
Iduri zaut zirela paziente noblia;
Egin operazione biziki handia,
Onera doa itxuraz oraintxe guzia.

4.-

Pasatuak pasatu onera doan geroz,
Ikusten dut zirela biziki kuraios;
Zurekin solastatzia izan zaut kurios,
Berriz ere artzeko bete naiz deseoz.

5.-

Eritasunik gabe bizi den presunak
Ez daki zonbat duen balio osasunak;
Ez eta estimatzen adixkide onak
Oro frogatzen ditu pasatzen duenak.

6.-

Ospitaletik fite zu atera zaiten,
Bihotz onez deraizut hori desiratzen;
Zeure familiara etxerat joan zaiten
Eta zeure aferez han okupa zaiten.

7.-

Bainan joan behar duzu oraino emeki,
Urratsa beti aitzin, gibela ez utzi;
Segurtatu artian kasu egin beti,
Gero luzaz biziko zirade uruski.

8.-

Bisitaren ondotik hemen uzten zaitut,
Berriz ikustekotan omore ta gustuz;
Agian ariko gira elgarrekin kantuz,
Zure adixkide on gelditzen naiz Juan Cruz.

Otsaila 1965-ean.

ZURE BERTSUEN ERANTZUNA

Airea; Deskalabratua niz munduko bizitzan...

1.-

Zure pertsu horiek kusi tuztalarik,
Harriturik gelditu, ez egin dudarik;
Bordel pertsularia nik egundainotik
famatua izan dela ororen gainerik,
ikusten dut duela segida ondotik.

2.-

Ehun zaldi lerroan entseatu dira,
naturalezak bezain ez dirote tira;
zaharren erran hori jin zeraut gogora,
natural heldu zaizu aisa ageri da,
segi, Juan Cruz, aitzina, bide onian zira

Pedro J. Etchamendy, Otsaila 22, 1965.ean.

Hauk izain dira ene biziko lehen pertsuak.

KARLISTEN KANTUAK*

1965.eko Irailaren 28. Apezen kantiak. Ez nuen sekulan entzuna izen hori, eta *Bertsu Liberalak* ere ez zuk Luzaidetik igorri arte. Egia da Bordelek aipatzen ditu Sacerdote eta Apez; bai eta aipatzen ditu ere Karlos eta karlistak. Orduan ez da konparantzarik izen berri horren ezartzeko eta ez dugu sekula gure aitari ez bertzeri Luzaiden, Arnegin, ez nehon, apezen gerla ez apezen kantuak, bainan bai karlisten gerla eta karlisten kantuak; eta hau behar zen kantu hauen izena zeren hala bait da justoena. Orduan ez ziren apezak bakarrik, gainera infanteria eta bertze banda guzia Karlos setimori segi zirenak. Denak karlistak ziren, eta estonatzten naiz *Apezen kantiak* izendatzea apez batek partikularzki.

Hona gure aitaren errana:

—Gu haurrak gintian Karlisten gerlan eta Frantziarat erretiran hasi zirelarik ereman gineztean haurrak Ondarrola Biskaira eta han egon gintian karlistak pasatu arte, eta karlistak ereman zieztean jateko eta harrapatu puska guziak bai eta zingarrak sukaldean dilindan zauden lekutik.

*J. M. Satrustegui: *Bordel Bertsularia* Auspoa 45-46. (1965) Apezenak, 176.or.

Karlos emigratu zen diruz kargaturik (8.bertsoa). Ez ditake gezurra, baina ez zuen diru guzia berekin ereman; ondotik jin ziren biltzaliak. Hona gure aitaren bertze erran bat:

—Artzain ginabiltzalarik gazte denboran *Erdiko Biskarrian*, Zabaletatik goitixago baduk harri-peña bat, eta euria hasten zuelarik peña haren azpian egoiten gintian. Eta gero ikusi ginian lau kantoneko urre kesa bat atera zutela gure zangoen azpitik; bertze bat Ibañetako elizaren bortaren azpitik.

Anitz aldiz zion:

—Karlistek urre anitz gorde zitean ihesi juaitean.

Gure aitak haur denborako karlisten itateak barnean zauzkan bizi guziko, eta min haundi hori berekin hil zen 1940.ean.

Orain ikusten dut *Bordel Bertsularia* liburuan (185.or.) nere izena, eta ondotik «Luzaiden bilduak hogeita bi bertso ziren. Hirur gehiago ekartzen ditu Juan Kruzek, 15, 16 eta 18 garrena». Hau ez da egia: Juan Kruzek igorri zauzkizun 28 bertso eta hola behar zuen atera paja hontan; baina 25 bakarrik eman dituzu. Horrek min egin daut biziki, alde batetik ez ezartzea garbi nik igorri nituela 28 bertsoak; eta bertzalde ezarri gabe uztea hiru bertso, 15, 18 eta 28. Ez nuen hori espero ez eta merezi nik ahal guzia egin ondoan. Eta oraino galdegin nahi dauzute nonbait publikak dituzten 28 bertsoak izen zuzenean. Bertze liburua egiteko ideian bazauzke hartan ezar dituzten edo bertze nonbait ezarriko dira, zeren denak Bordelek formatuak ziren. Orain dena nahasirik eta konfusionean geldituko dira.

1965.eko Azaroaren 16. Diozunez, neke anitz izan duzu liburu berri horren bururatzen, eta diozu karlistak nola gobernatu ziren Luzaide aldean ez dutela nahi agertarazi.

Hortarik ezagun da, egia gordetuz juzga daiteke, karlisten erro zaharrak azkar direla Españan eta oroz gainetik euskal probintzietan. Aitaren erran batez oroitzen naiz. 1936.ean, suerte txarrez gertatu nintzen sortetxean. Rebuluzioea hasi orduko agertu ziren bonet gorriak izen berean, eta aitak erran zidan:

—Lehen ere badakigu bonet gorriek zer itateak egin zuzten eta oraikoak ere ez duzkek hobeak.

Izanagatik izena berria, aita oroitzen zen nork zituen bonet gorriak 70 bat urte lehenago.

Zernahi dela, ez da plazer aditzea Bordel-en bertsoak debekatu duztela liburuan ezartzetik; eta segur naiz ez dela Españako Gobernua Bordelen bertsoak eta karlisten istoria argitzetik debekatu nahi dutenak... Bakarrik egiaren gordetzea injustizia haundia, saindu iduri duten kargu haundiko jende horietan. Maluroski.

Aitaren bertze erran bat merexi duena altxatzea:

—Karlistak gordeka zabiltzan mendi aldetik eta isilka jin eta ebasten zituzten harrapatu guziak Luzaideko etxetik. Orduan guardia formatu zuten herriko gizonak aldizka, eta behin guardia bazoan iluntzean karlisten gordelekuak atzeman beharrez eta batek *Erradoraiko bordan* eskua sartu zuen bortaren zabaltzeko, eta karlistak han izaki gordeak, guardiak atzeman zuten besotik. Estekatu eta segido Orriara ereman.

Han ostatua karlistek ederki afaldu eta presoari batere ez eman. Orduan ostalerrak galdegin omen zien zerengatik ez zioten jatera emaiten luzaidarrari. Errepostua:

—Bihar hil behar duen zerriak gaur ez du jan beharrik.

Gero lo egitera joan omen ziren ostatuan eta bi karlistak lokartu zirelarik presoak eskapatu bien artetik eta leihot

tik jauzi. Uroski, ongarrri meta bat gertatu leihoaren parean, kanpoan, eta harek salbatu omen zion bizia. Eta zenbat holako kruelkeria gertatu zen karlista gerla denboran? Eta orai 90 urteren buruan egiaren agertzea ez zaie konbeni. Ordukoak bezain krudelak badirela orai Españan ez dago dudarik. *Amen.*

Orai berriz aipa ditzadan «Apezen kantiak», zuk eman izena; enetako beti «Karlisten kantiak», bigarren gerlakoak, izanen dira, hala justifikatzen bait du sujetak.

Orai, begira: gure amak ez zuen nahi entzun bere haurrik kantu horiek kantatzen eta haren botuz ez genituen sekula ikasiko. Zerengatik? 1) Berak ez zituen ikasi bertsu guziak eta ez zakien zenbat egia zauden bertso horietan. 2) Ez zakien suietaren sustantzia; ignorante zegon. 3) Aski zuen hirugarren bertsoa entzutea bere haurreri laster iatsa edo makila harturik jinen zen ondotik eta ihes egin behar genuen. Harendako apezen kontrakoak edo apezen kantutak ziren, eta ignorante izaitte horrek ezarria da Luzaideko jendetan orai eman diozun izena. Orai ezarria da eta gaizki, eta hola segituren zaio ez Bordelek eman zuelakoz bainan haren obra gaizki konprenitu dutelakoz erran dutan ignorantziaz.

P. D. Uste duzu Baionako jurnalean ezarriko duztela karlisten 28 bertsoak? Banaki, igorri nezazke nihaurek eman bertsu batzu *Hitzaurreako* aire berean eta zerengatik igortzen ditudan erranez. Zer iduri zauzu?

Bertze bertso zenbait ere jinen zauzu anitz denbora gabe. Suerte on.

Lehen sartu ez ziren bertsoak hauek dira:

15.-

Desohoragarri da karlisten bandera,

Beti ladronkerian, hori da manera.

Karlos gobernatzen da bertzen arabera,
Seinale maite duela ofizio bera.

18.-

Karlos pretendienta gizon fanfarrona,
Ahala bezain sekreto sasuan egona,
Armada deseginik emigran dagona,
Orai goza dezala ladronen korona.

28.-

Karlos emigratu zen diruz kargaturik,
Giristino legia abandonaturik;
Ez dut ainitz denbora hori aditurik,
Etzuela erraiten «Gloria» bat kitorik.

BORDELEN SEGIDA

1969.eko Azaroaren 15. Hil honen hamarrean hartu dut zure Buruilaren bikoia. Nik eman kantu hau «Bordelen Segida» eta honen ordaina orai igortzen dauzut hitz batzu sanjaturik; bertzela ene bertze kantuek ez dute behar den baliorik izanen hauk gabe.

Airea: Kattalin ttuku ttuku Kattalin arina...

1.-

Hemeretzi ehun ta hirurogoi seia,
Bertsu berri ezartzen orai niz hasia;
Odolian badut nik obligazionia,
Defenditzeko Bordel bertsu egilia.

2.-

Bordel bertsulariak zituen moldatu
Karlisten ondar gerlan hogoi-zortzi bertsu;
Haur denboran nituen gogoz ontsa hartu,
Bainan nehork ez ditu denak publikatu.

3.-

Jakina dutalarik bide zuzenetik
Zonbait bertsu direla falta liburutik,
Ekendu dituztela orai agertzetik,
Inprudente horiek karlisten errotik.

4.-

Karlist erroak daude oraino Españían
Estableziturikan izen bat berrian;
Saindu iduri gatik beren presentzian,
Don Karlos-en zakarrak dituzte barnian.

5.-

Ateratu direnak orai poxeluko,
Karlisten suietari bertso ekentzeko,
Arrazoinik balute horren egiteko,
Frogak eman bitzate erreformatzeko,

6.-

Karlisten bertsoetan etzen ezarria
Noraino heldua zen han salbaikeria,
Nola tratatzen zuten prisioner tristia,
Jujamendurik gabe gogor sententzia.

7.-

Karlisten itateak ez nahi-re entzun,
Partido hartakoak baditugu egun;
Konfesatzeko orde zirela hobendun,
Gorde dute egia, jakin ez dezagun.

8.-

Izanik noblezia, ala sazerdote,
Jainkoaren legeak zuzen behar luke;
Bainan igan ixtoriek erakusten daute:
Injusto lanjerosak orok badituzte.

9.-

Aunitz entzun izan dut karlisten berria,
Ohoingoan zutela beren balentria;
Informe hori ez da nitarik jalgia,
Aitaren erranetan ikasi guzia.

10.-

Dotatua naizela aitasoren hatsaz,
Helduarazi date berrikitan letraz;
Ez nabila oraintxet ni urgulu hortaz
Dudakoak argitu nahi ditut hortaz.

11.-

Arrangurak badira oino Españatik:
Jende pobria dela diskriminaturik;
Bertsoen baliteke material aunitz,
Bordel Bertsolaria berriz hemen balitz.

12.-

Zonbat gradoetara daitekena heldu,
Geroko denboretan hori jakinen du;
Orduan bizi denak egin beza kondu,
España salbatzeko fedia ez galdu.

13.-

Egiak merexi du zuzen den bidia,
Onek, ala gaiztuek, zoin beren aldia;
Horgatik ez naiteke orai umilia,
Garbiki eman gabe nik opinionia.

14.-

Badakit ez dudala dener poz eginen,
Horgatikan ez nauzu lehena izanen;
Bainan ahal dudano hitz hau dut erranen:
Injustoaren kontra naizela ni hemen.

15.-

Bordel bertsulariak balaki nor naizen,
Ari naizela haren kantu defenditzen,
Estima nidezake bere haurrak bezen,
Zerutik etor laite maitera eskerren.

(1966.ean)

BORDELE BERTSOLARIAREN BESTAKO KANTIAK

Irakurtu ditut atseginez zuen planak Bordel bertsolariari ohore egiteko. Gainera nahi duzu nik bertso ateratzea okasione hortako. Bainan jakin zazu enetako lan gogorra da hori, ez dut aski pratika izan eta orai burua fite akitzen zeraut. 1929.etik 1964 arte ez dut bertso bat ezarri, ez izkiriatu. Orain bortz urte ditu hasi nintzela eta burua sobera higatia dut lan onik egiteko.

Halare, kantuak beti maite izan ditut eta horgatik hemen igortzen ditut hamar bertso —borrador gisa—. Ez aterra nehon, bakarrik zuhaurek irakur eta baldin bada konbentzi ez den pundurik markatu eta bial neri segido kopia hau bera. Gainera lau bertso gehiago nahi dazkot eman eta zure izena ere bertsu batean, zuk egin lan baliosak merezi bait du. Hartako, igorri ontsa zaizun. Nor den buruzagia beste horren egiteko jakin nahi nuke. Uste baduzu balio dutela agertzeko hemen bialtzen ditudan kantu hauk, igorri zure iduripena eta kantu bera gibela bertze xehetasunekin; ordian arrañatuko ditut eta berriz igorriko horrarat.

Noiz izain da besta hori? (1970.IV.2)

Hemen bialtzen dauzut bertze borrador bat: zuhauk

galdegin bertsoak Bordelen bestako. Nahi dut berriz ikus ditzazun; sanja zombait egin diot, eta oraino baditut hitz zombait bi gisetan izkiriatiak. Ez duzu igorri behar paper hau gibela; bakarrik hitz horien ea zoin diren hobeki.

Ontsa da bertsu hauk ez agertzea besta egun arte; baina egunaren hautatzea ez da ene lana, hori ziek behar duzue hautatu. Egiten baduzue ni jin baino lehen besta, bertze norbaitek kanta ditzala egun hartan kantu hauek; horgatik ez naiz samurtuko. Zure arrapostia izaten dutanean fi-nituko ditut berriz ikusi ditzazun.

Aste huntan izkiriatu behar dut Luzaidera. Beldur naiz oraikoz badakitela, zeren Agerreko Karmen ikusi nuen duela bi hilabete eta erran zaan jakin zuela gure berria. Guhaurek ez genuen nehoi erran, bainan izena ikusia zuen norbaitek *Air France*-ko listan. (1970.IV.21)

Airea: Hemeretzi siglotan ezta falta anitz. (Limiten kantue-na).

1.-

Bi mila urtetara ezta falta anitz,
Hogoi-ta-amar orai aurtengo ontarik;
Bertso berri moldatzen hemen hasia niz,
Lan hunen egiteko galdeintza izanik,
Borondate onian entsegatuko niz.

2.-

Bordel bertsolaria dugu suietian,
Ohoratu beharra bere sort-herrian;
Lau-hogoi-zazpi urte bizi zan mundian,
Lau-hogoi-ta-ameka geroztik zeruian,
Lan baliosak utzi zaizkigun joaitian.

3.-

Bordel bertsolaria sort-etxe izena,
Echamendi deitura aitaren emana;
Gazterikan bertsotan hartu zuen fama,
Baita ere jarraiki bizi zano lana,
Testimonio dugu hark egin zuena.

4.-

Besta ohorezko bat harentzat Luzaiden
Egin nahia dela barda jakin nuen;
Nahiz Californian urrun naizen hemen,
Berri xoragarriak barna jo ninduen,
Bertsoak egin nitzan Bordelen bestaren.

5.-

Ezin errefusatu gaurko zerbitzua,
Nahiz bertsotan ez naiz nihun trebatua;
Naizelakotz arraza beraren fruitua,
Bordele etxe berian ni ere sortua,
Hargatik emanen dut lan hontan eskua.

6.-

Bestaren berri hori dutalarik jakin,
Bihotza urratu zaut emoziorekin;
Ez dut hitzikan aski aberats neurekin
Erraiteko behar den sustantziarekin,
Bordel bertsolariak merezi duenekin.

7.-

Bordel bertsolariain merezimenduak
Eskual herri guzitan dire zagutuak;
Aditu dituztenek hark eman bertsuak,
Konsideratzen duzte hain manifikuak,
Katixima sainduer gaur konparatuak.

8.-

Bordel bertsolariak egin zituen lanak,
Urrun zabaldu zituen arrazoin zuzenak;
Jende haundi ta ttipi harentzat berdinak,
Fronterarikan gabe auzo erresumak,
Limitarik etzuen haren bihotz onak.

9.-

Arrazoinekin dute Bordel ohoratzen
Jakín dutelarikan zoin baliosa zen;
Duda gabe arizan dira estudiantzen,
Haren pareko gutti zaukula agertzen,
Jakintsun haundiekin dute konparatzen.

10.-

Bordel bertsolaria parerik gabia,
Hargatik da aurtengo bestaren bidia;
Harriz-plaka egiteko da ordenatia,
Hartan izkiriatur haren titulua,
Glorifikatzen dute hor bertsolaria.

11.-

Luzaiden egitian besta hau preziski,
Anitzek ezin dugu estimatu aski;
Bordel bertsolaria ohore horieki,
Gora altxatzen dute errespeturekin,
Eta santifikatzen zeruian saindueki.

12.-

Besta xoragarri bat aurtan egiteko,
Norbait entsegatu da, ezta dudatzeko;
Informia izan dut hemen argitzeko,
Ayundamendia da bestaren karguko,
Jaunak agian ditu zeruan plazatuko.

13.-

Herriko Kontseiluak, Satrustegi lagun,
Zer obra egin duten hemen da ezagun;
Atsegin haundia da Luzaide-ren egun,
Bordelen ixtoriak garbi eta legun,
Lan hunen parekorik ez ahal da nihun.

14.-

Orai agur bat zuri, Jauna Satrustegi,
Guzien gainetikan baituzu merezi;
Oroitzapena duzu uzten Luzaide-ri,
Denbora jin delarik, lan hauk egin sari
Jaunak zeruan gora zaitzala ezarri.

15.-

Hontan ahantzi gabe langile prestuak,
Bestaren moldatzale jaun intresatuak;
Estimagarri dira zuen zerbitzuak,
Agian izanen zizte ongi pagatuak
Zeruaren erdian gure Jaun Jinkoak.

16.-

Azken bertsoan ditut nik erran beharrak:
Besta hau ikustiak derauzkit plazerrak;
Estimu berarekin gazte ta zaharrak,
Publiko guziari milaka eskerrak,
Ez ahantzi sekulan, otoi, Luzaidarrak. (11)

Maiatza 14, 1970.

(11) Ikus: *Príncipe de Viana*, 1970.eko irailan. «Ikusten duzun bezala oraiko kantu hontan «Bordele» hitza emaiten dut. Hala ikusten da Herria kazetan euskaraz Frantziako hiri baten izena, eta hiri hartarik zuela gure sortetxeak izena aditzen ginuen. «Bordel» iduri du erdarakatua izan dela noizbat. Zer uste duzu? Bertsoan hola emanaz izanen du diferentziarik? Eman zure iduripena. Hamabortz bertso dira oraiko borrador huntan eta menturaz bat gehiago emanen dut.

Ayundamendia edo Ayuntamendia, edo Herriko Kontseilua, zoin da euskaraz hobeki?

JUAN PEDRO IROZ ETCHAMENDY ZENARI

Hemen igortzen dauzkizut bertso hauk Iroz-en ohoretan, bainan ez dakit balio izanen duten zuen berrikarian agertzeko. Ez ditut xehetasun guziak izan oraino; galdegin eta ez dute igorri zer egunez gertatu zen heriotze hori. Enkas sanjarik behar bada, egin; bialdu gibela erranez zer sanjatu behar den. Uste baduzu ontsa direla agertzeko, lehenik behar laike irakurtarazi Iroz familiari eta harier ontsa ba zaiote, gero emaiten ahal dira. Zure kontu uzten ditut eta jakinarazi zer egiten duzun, ahal bezain fite.

Herria-n, urriaren 14-koan, agertu ziren hamar bertso Juan Pedro Iroz-en ohoretan; bakarrik, heietan Ondarro-lako zela erraiten du, eta ez dut uste egia den. Zure azken letra izan eta galdia egin dut Luzaidera nahi dutala xeheki zombait puntu jakin. (1972.II.27)

Juan Pedro Iroz-en istripuz hiltzea ez dut aldatia, bainan zuri heldu den kopian ezarria dut lehen bertsoa nola behar duen. Atxiki orai heldu diren hostoak eta desegin lehen izan dituzunak ez badira berdin orai igortzen dituztanekin. Bertze xehetasun zombait emanen dauzut urran aldian Jainkoak laguntzen banu. Ez duzu Bordel bertsola-

riain liburua egiteko bezala ibili behar xerkan: badakizu nun den ene bertsoen iturria. Abantail badaukat oraino eta bizi naizeno (12)

(12) *Ikus: Príncipe de Viana (Iruñea, 1972) maiatzeko alea; Herria, 1974-VI-27*). Aipatua izan zen istripu hau bai Frantzia eta bai España. Pau-eko Prefekturan *Merezimenduaren Urrezko Domiña* eman zioten. Honela zioen «Sud-Ouest» egunkariak biharamonean:

Son camion fou dévalait la côte de Sauveterre-de-Béarn à 120 km/h...

Par son sacrifice le chauffeur espagnol a sauvé de dizaines de personnes

Pour éviter une catastrophe qui aurait pu entraîner la mort de plusieurs personnes, voire de plusieurs dizaines, un chauffeur de poids lourd espagnol a préféré sacrifier sa vie.

Il était 11 h 10, sur la R.N. 133, M. Juan Pedro Iroz Etchemendi, 47 ans, chauffeur transporteur, de Valcarlos, en Navarre, arrivait au volant de son camion au sommet de la côte qui domine Sauveterre de Béarn (Pyrénées-Atlantiques).

Cette côte à fort pourcentage mène directement au cœur de la cité au terme d'une ligne droite de 500 mètres environ. Le camion, un douze tonnes, transportait des grumes de hêtres d'un poids de huit tonnes. Les billes de bois avaient été chargées quelques kilomètres auparavant, dans la région de Salies-de-Béarn, M. Juan Pedro Iroz Etchemendi devait les transporter en Espagne.

Dès le début de la descente, les freins du lourd engin lâchèrent. Aussitôt, le conducteur rétrograda ses vitesses. Mais il était déjà trop tard: la boîte ne put supporter l'effort auquel elle était soumise et elle explosa. L'venu incontrôlable dans sa vitesse, le camion dévala la pente. Alors commença le slalom mortel.

Tout au long des 500 mètres de son dernier parcours, M. Juan Pedro Iroz Etchemendi réussit des prodiges au volant du véhicule fou, évitant voitures, piétons et cyclistes.

Airea: Lurraren pean sar nindaiteke maitea zure ahalgez.

1.-

Dolumin haundi baten gainian hastera noa kantatzen,
Gaurko suietak hartara bainu kontzientziaz manatzen:
Nahigabeak mundu honetan ardura dira gertatzen,
Atseginetik penen erdira zoin laster giren lerratzen,
Uste gabean heldu delarik *gehiago gaitu kolpatzen.*
la-ra-la-la, la-ra- gehiago gaitu kolpatzen.

Aux dires des témoins dignes de foi, lorsqu'il entra en ville, le camion avait atteint une vitesse de l'ordre de 120 km très fréquenté, puis il se faufila dans un parking entre les voitures stationnées et deux cents à trois cents estivants présents à cette heurs-là en ce lieu très touristique.

Il prit ensuite un sens unique d'une vingtaine de mètres. Il se dirigeait enfin droit sur des enfants qui jouaient sur une place. Au dernier moment, le conducteur réussit à virer à gauche.

Le camion accrocha la grosse poutrelle d'acier d'un transformateur électrique qui explosa sous le choc et défonça la murette du parapet bordant l'esplanade qui surplombe la vallée d'une cinquantaine de mètres. Le camion plongea dans le vide. Avant de s'écraser au sol, il remplit net, à près de cinq mètres de hauteur, un gros platane centenaire placé sur la trajectoire.

Au bas du ravin, il n'erestait plus que les billes de bois éparpillées tout autour d'un invraisemblable tas de ferraille.

Les témoins se précipitèrent. Mais, avant même qu'ils aient pu le sortir de la cabine effroyablement écrasée, M. Juan Pedro Iroz Etchemendi mourut. Il s'était marié l'an dernier avec une veuve dont il avait adopté les trois enfants âgés de 19, 16 et 8 ans.

Tout le temps que dura la course folle, il criait par la portière pour faire comprendre aux gens qu'il n'était plus maître du camion. Il répétait toujours la même cri: Nada! Nada!» (Rien! Rien!)

Il voulait dire que plus rien ne fonctionnait, qu'il n'y

2.-

Juan Pedro Iroz dauket oraixe hemen aipatzen dutana,
Luzaiden sortu eta hazia, oraino han bizi zana.
Sei hilabete nonbait han zuen esposatu zen eguna,
Alarguntsa bat hartu zuela bere biziko laguna,
Hain maluroski labur izan da *horien uroostasuna*.

3.-

Juan Pedro uros ateratu zen goizian bere etxetik,
Pentsatu gabe gerta zakion halako errekontrurik;
Bainan lanjerra haundiago da haren lanian delarik,
Kamiun dorpia kargaturikan gainbehera doalarik,
Arrasta hautsi zitzaionean *etzaiken jalgi bizirik*.

4.-

Istripu hori gertatua da Saubeterre-ra sartzian,
Arrasta hautsi zitzaionean hango aldapa batian;
Ikusirikan jende anitzak bazituela aitzinian,
Kamiuna du bazterrarazi, jende salbatzia burian,
Eta laster du bere bizia *han galdu erroitz batian*.

avait plus rien à faire pour arrêter le camion. Mais il pouvait encore le diriger.

Alors, tandis qu'il aurait pu sauter et se sauver sans doute, il choisit de rester au volant et de mourir pour que les autres vivent. Car M. Juan Pedro Iroz Etchemendi connaissait très bien Sauveterre-de-Béarn. Il savait donc qu'après le parapet de l'esplanade, il ne pourrait plus rien y avoir pour lui que la mort.

5.-

Mement batetik eta bertzera horixe da desgrazia,
Azkar ta sano zagon denboran berehala finitzia;
Berrogoi-zazpi urtetan hola galdu beharra bizia,
Berri txar hori familiaren zer golpe izigarria,
Sostenitzeko behar du hartu *kuraia paregabia*.

6.-

Anitzetan dut entzun izana lehen zaharretarik;
Baten zortia egina dela guhaur sortu gabetarik;
Gisa hortara bizian ez du ordu bat ere segurik,
Irriskua dū gainean beti oroitzen ez girelarik,
Gogora heldu zauku bakarrik *zerbait gertatzen delarik*.

7.-

Jende guziak estonaturik Iroz-en kuraiarekin,
Ez dute uste harek bezala nehork ere zion egin;
Besten salbatzia imitatu du Jesukristo berarekin,
Oroit-garria izanen baita ikusi duten guziekin,
Pagamendua izan dezala *eman etsenpluarekin*.

8.-

Adixkidiak, junta gaitezen Iroz-en familiarekin,
Gure otoitzak orok eman ez Jainkoari elgarrekin;
Haren esposa gelditu baita tristerik bere haurrekin,
Ama xaharra ere gaixoa jasanahala penekin,
Kontsola diton ahal guzia *guk eman ofrendarekin*.

9.-

Parte hartzen dū, zireztenekin oraixe doluminian,
Galtze haundia izan duzie hori zuen familian;
Bainan kontsola ahal guzia pentsatuz oroz gainian:
Iroz joan da sakrifizioz mundutik bere bidian,
Ez da dudarik Jaunak duela *gora ezarri zeruian*.

10.-

Heriotze hau pasatua da Aboztuaren azkenetan,
Bai hemeretzi mendeak eta hiruogoi ta hamekan;
Agian orai gozatzen dago zorionez zeruetan,
Desira hori eman dezagun sègur gure otoitzetan,
Jaunak dezala saristatzeko *eman lehen lerroetan*.

11.-

Bertso hauk ditut orai emaiten ohorez herritarrari,
Denbora berian kontsola diren haren familia guziari;
Halakoetan adiskidiak baitira estimagarri,
Barka zazue min egin badut uste gabian nehori,
Zeruko Jauna izan dadila *hortan guzien jujari*.

1972-ko Otsaila

MARIA ANJELAK BERE AHAIDERI (I)

Egun batzu hartu ditû Maria Angelaren foto ttipi honen berritzen. Orai eskuratu dut eta segido bialtzen dauzut. Catherinek hartua zuen Arneguy-ko bestetan. Anjelak be-deratzi urte egin zituen Luzaiden uztailaren hamaseian, eta estonatu zituen bere jendaki eta gainera han zen jende guzia kopa ttipi hori eman ziotelarik, nola ikasi zituen eus-kaldun dantzak adin hartako. Memen hartan etzuten pen-tsatu bere erreinta etxean zuela.

Aitzineko urtarrilan erosi nuen nere lehen kasseta--maxina eta hartan ezarri euskal dantzak, Martxa, Bolant jantzak, Erdizkak, Arin-arin eta, ederrenak, Mutxikoak. Biziki ontsa dantzatu zituen eta inpresione haundia eman ikusi zuten guzieri.

Airea: Kattalin ttuku ttuku, Kattalin arina...

1.-

Aitatxi, Amatxi ta jendaki guziak,
Ez ziuztet oraino zuek ahantziak;
Urrun danikan hartu ene goraintziak,
Konserba zitzatela Jaungoiko maitiak.

2.-

Jaunari diot orai egiten agintza,
Zeruraino altxatuz umilki bihotza,
Kasu egin dezauzieren beti zier ontsa,
Haren borondatian dauket esperantza.

3.-

Luzaide-ko bisita ez zeraut ahanzi:
Bazter guziak perde, oihan eta sasi;
Zonbat jendakia han nik dutan ikusi,
Oroituko naiz hetaz ni naizeno bizi.

4.-

Ene otto ta ttanttak naute ni ekarri,
Horrat ezagutzera jendaki guziari;
Hauk izan balezate luzaz osagarri,
Berriz egin ginio bisita zueri.

5.-

Eguberri orantxe heldu zauku laster,
Agur bat emateko bihotzez guzier,
Gure jendaki eta berdin adiskider,
Ikusi ez badaizke, adrezatuz berer.

6.-

Eguberri denbora Jesus-en sortzia,
Giristino zuhurrek hartan du fedia;
Otoiztu dezagun ba Kristo erregia,
Guzier eman dezan bakezko bizia.

*Maria Angela-in partez, gure ahaideri, Eguberriko oroi-
tzapena, 1970-ean. (13).*

(13) Ikus: *Principe de Viana* (Iruñea, 1971) urtarrilean.

MARIA ANJELAK BERE AHAIDERI (II)

Ezin isilik egonez eman ditut bertso hauk. Letra hau izaiten duzun nahi dut jakin eta, gainera, zure berri onak denbora berean.

Desiratzen dauzut osagarri eta suerte on, eta pasatu Eguberri eta Urte Berri on.

Airea: *Kattalin ttuku ttuku...*

1.-

Aitatxi ta amatxi, osaba ta kusi,
Aspaldian ez dugu izan zuen berri;
Ahantzi gaituzuela baitzauku iduri,
Horgatik bialtzen dut milaka goraintzi.

2.-

Eguberri eguna ari da hurbiltzen,
Jesus-ek ditu orduan urteak betetzen;
Negu hotz ilunean Bethlenen sortu zen,
Ordu beretik hasi munduan sofritzen.

3.-

Hogoi ta hamahiru urteren buruan,
Juduek hil zaukuten herra-jeloskuan;
Bakea nahi zuen hedatu munduan,
Juduentzat afrontu omen zen orduan.

4.-

Egin dezagun orai Jesus-i otoitza,
Haren izen sainduan eskainiz bihotza:
Lanjerretan ez gaiten nihun ere lotsa,
Beti bezain behar dû guk haren laguntza.

5.-

Otoi oroitu zaizte, jendaki maitiak,
Urrun izana gatik ezin ahantziak;
Noiztenka helarazi zihaturen berriak,
Enetzat izan ditenek altxagarriak.

*Ene iloba-tiki Maria Anjela-ren orde,
1972.ean.*

1980.eko EGUBERRITAN

2

Joan den hilabetean izan ditugu su izigarriak, ez urrun gutarik, bainan gu ez gaitu malurtu. Jendeak eta etxeak, bai eta animale aunitz erre dire. Bederatzi hamar lekutan bazen sua ber denboran, eta haize haundi harekin su-gizonek ez zioten geldiaraz zeren haizearen kontra nekez ari ziren. Gehienik malurtu duena San Bernardino herria, lau ehun etxez gora kuadra osoak zipilatu ditu; jende zonbait ere bai. Beste zonbait lekutan ere etxe balio haundikoak \$ 200.000 goiti balio zutenak, beste batzu balio ttipiagokoak, gainera etxe barnetako gauzak eta paper rekord oroitzapen baliosak ezin ordainka daztekenak.

Gaiztaginek hasiak zirela suak diote inbestigatzailek, eta denbora halakoa gertatu zaiote.

Agur bero bat adiskideri urtea finitze huntan,
Jaunari esker heldu baigira huntara uste gabetan;
Nere desirak bialtzen ditut zueri bihotz onetan,
Eguberriak iragaiteko bake ta zorionetan.

Eguberriak pasatu eta laster heldu Urte Berri,
Atxik dezagun fede osoan haren esperantza hori;
Zeruko Jauna izan dadila guretzat urrikalgarri,
Haren laguntza izanez geroz, hura dugu salbagarri.

1980.eko Abenduan.

Maria Angelaren 1972.eko hiru bertso ekartzen ditu gero, bertso berri honekin finitzeko:

Agur hau hedatzeko, kazeta *Herria*,
Zueri ematen dut nik lehen kargia;
Irakurtzalek jakin dezaten egia
Eskualdunek dugula nunahi fedia.

EGUBERRI EGUNEKO KANTIA

(Airea: *Ikusten duzu goizean...*)

1.-

Gaur Eguberri eguna
Aspaldi beha gaudena
Biltzeko elgarren gana;
Goiz hontan dugu bihotz-erditik
ohoratu Jesus Jauna,
Haren sortzeko eguna
Mundu guzian ezaguna,
Horrek dauku zoriona.

2.-

Egun gure otoitzetan
Gaude oro elgarretan
Federik hoberenetan;
Jesus Jaunari eskatzen dugu
bake uros bat denetan,
Gida gitzan beharretan,
Biziko lanjer guzitan
Hartuz bere babesean.

3.-
Eskualdunak elgarrekin
Bozkario haundirekin
Jesus gaur dugu gurekin;
Berriz ere gerta gaitezen
holaxe atseginekin,
Osagarri onarekin
Bake uros bat harekin
Jainkoaren graziarekin. (Amen)

1973.ean.

URTE BERRIKO AGURRA

(Airea: Iruñeko Ferietan...)

1.-

Pasatu da Eguberri, eta heldu Urte Berri
Orrengatik nahi ditut, agur beroak igorri, *la-lai*,
Jendaki adixkideri, urrun bizi direneri.

2.-

Urte Berriko propina, dener desira dudana,
Jaunak eman dezauzuen bakezko uroostasuna, *la-lai*,
Lehenik behar duguna tatxa gabe osasuna.

3.-

Osasuna zoin balios, diruz ezin daite eros
Ikasi behar ginduke estimatzen gisa oroz, *la-lai*,
Zonbat girenak maluros, osagarri galduz geroz.

4.-

Orantxe despeditzean, zuez guziz oroitzean,
Ama Birjinari nago belauniko otoitzean, *la-lai*,
Lagun zitzaten lurrean, zerurateko bidean.

Zerbitzari
(1974-1975)

1982.eko EGUBERRITAN

Airea: Tiki-tikitik aitak et'amak...

1.-

Eguberriko besten itxurak ari zaizkigu hurbiltzen,
Bai eta ere adixkidetaz hainbertze nauzu oroitzen;
Agur bero bat bihotz erditik deneri diot igortzen,
Ahal dutenek erantzun bera ordainez eman dezaten.

2.-

Beti danikan oroitzagarria Eguberriko denbora,
Jesukristoren sortze eguna dezagun denek ohora;
Sineste hori haurretik guri sartu zaukuten gogora,
Ondokoentzat erakusten dũ guk ere gauza hau bera.

3.-

Jaunari orai galdatzen diot egun oroz otoitzetan:
Osagarriaz lagun nezala nere azken bizi huntzan;
Sofritu gabe bizi goxoan nihaur bermatuz lanetan,
Bertzerik gabe ibil nadien nere behar orduetan.

4.-

Ez nuke nahi hemen zorretan orai gelditu nehor,
Kontzientzia iduki nahi diot hortarako garbi;
Ardurenian gogoan daukat esperantza eder hori,
Jaunak emanen dautala gero zeruan saria neri.

1982-ko Eguberriko eginak, Pomona-n.

Zerbitzari.

M.BIDART - J.BICARY ESPOS EGUNEKO
KANTIAK

Airea: Oilanda gazte moko fier bat gure herrian badugu...

1.-

Agur bero bat bihotz erditik orai, jaun eta andriak,
Pertsu batzuek kantatzen ditut egungo egin berriak;
Bozkariozko suieta deraut emaiten okasioniak,
Egun ikusiz hemen juntatzen bi bihotz maitagarriak.

2.-

Oroz gainetik aipatu nahi ditut jaun-andre esposak,
Pentsatzen baitut zonbat zirezten memento hontan urosak;
Hola konplitu dituzielarik elgarri egin promesak,
Dударik gabe atsegin oso derauka zuen bihotzak.

3.-

Xoragarri da jenden izaitia, bat beraren sasoinean,
Partikulazki amorant gazte hola kausitzen denean;
Damurik zauku laster pasatzen batere uste gabean,
Espos gazteak, protxa zazue modurik hoberenean.

4.-

Felizitatzen zaituztet biak, bai Michael eta Jeanette,
Sakramenduak gaurko egunian elgarri josi zaituzte;
Orai bezala bizi guzian fidel egoiten ba zizte,
Jainko Jaunaren graziak segur bai lagunduren zaituzte.

5.-

Espos gazteak, gaurko ezkontzak zaituzte biak batera,
Obligazione berriak orai entsegatu konplitzera;
Lehen lehenik batek bertzia beti fidel maitatzera,
Zorionaren bide zuzena garbiki kontserbatzera.

6.-

Gazte danikan ezkontzen denak duen obligazionia:
Giristinoki altxatu behar heldu zaien familia;
Aunitzeri du horrek emaiten kontsolamendu haundia,
Lana xuhurki duenarentzat denbora pasagailia.

7.-

Lana sobera jalgitzen baita aita-amer aunitzetan,
Orduan haurrak ezartzen duzte bertze norbaiten eskutan:
Errespetua horrek galtzen du hamarretarik zortzitan,
Haurrak dituen amak ditzala atxik beraren manutan.

8.-

Pertsu hontan dut mintzatu nahi oraintxe espos jaunari:
Amodio ta karesa bero atxik beti lagunari;
Duen itxurain araberara izar bat baitu iduri,
Lausenga baizik ez daike egin horren begi eztiari.

9.-

Orai ordainez aipatzen zaitut zu ere, andre esposa,
Behar bezala hautatu duzu biziko lagun baliosa;
Merexi baitu zure ganikan errespetu ta karesa,
Elgar lagunduz egin diozie bizi bat arras urosa.

10.-

Kontseiluño bat nahi dut eman oraintxe nik zuen baitan,
Irrisku haundiz bizi baigira guziak denbora hontan;
Gaixtakeria eta malezia dabil ardura jendetan,
Hoitarik aise defenditzeko zaitte fidel elgarretan.

11.-

Oraino dudan erran beharra, espos gaztiak, zuendako:
Buraso onen argi bideak sekulan ez ahantzteko;
Hoier ikasi euskal mintzaira beti ihardokitzeko,
Euskaldun odol garbi duziela haurreri erakusteko.

12.-

Kantu hauk ditut hola moldatzen zuhurki adiskidantzan,
Espos gazte hauk laudatu nahiz uroski beren ezkontzan;
Azken kontseilu hau eman gabe ez naiteke libro izan;
Zuen burason erakuspenak jarraiki etsenplu gisan.

13.-

Etzazuela otoi gaitz hartu ni mintzo naizen maneran,
Ez baitut uste ofenditzeko arrazoinik dudan eman;
Ama-Birjina, otoitzten dizit espos hauen ohorean,
Harek laguntza eman dezoten behar ordu dutenean.

14.-

Hau hemeretzi mendeak eta hiru-hogoi-hamahiru,
Ekain'ilaren bederatzia egungo eguna dugu;
Pare gabeko eztei ederrak Turlock herrian ditugu,
Gomitak eman dituzteneri milaka esker zor dugu.

15.-

Azken pertsua nahi dut eman hemen denen izenian,
Espos gazte hauk ohoratzeko desira hoberenian;
Zorionezko suertiak ditzan lagundu bizi guzian,
Borondate hau horientzat dut *oso neure bihotzian* (14).

Adixkide - fidel

1973-ko Ekaina-ren 9 an.

(14) Herria, 1973-VII-19 eta 26.

ESPOS EGUNEKO KANTIAK

J.B. ETCHEPARE ETA CHRISTINE M. BARBOT
TURLOCK, CALIFORNIAN ESPOSATU DIRA,
OHORE HAUNDIAN.

Egun duela aste bat izan ditugu eztei xoragarriak Turlock herrian. Gu ere han ginen hiruak. Luzaide Arnegizaharreko Praxedesen alaba esposatu da J.B. Etcheparekin; honen aita Mendiben sortua eta orai San Franziskon bizi dana.

Ene bertso hauk, hemengo Misionest xuberotar euskaldunak kantatu ditu mikrotik, eta hainbeste laudorio izan du denetarik. Bost ehun jendetarik gora omen zen, eta oroz gainetik esposen familieri atsegin haundia eman dute ene hamabi bertsuek. (1974.VI.22-ko gutuna).

Airea: Oilanda gazte moko fier bat...

1.-

Bertso berriak nahi nituzke zerbeit gisetan kantatu,
Bainan hortako behar duzue memento batez barkatu;
Bozkariozko suieta zauku egun hemen presentatu,
Horgatik orai espos gazte hauk nahi ditut ohoratu.

2.-

Uste gabeko gomit ederra aspaldi ukan ginduen,
Luzaidar baten umea zela esposatzen egun hemen;
Atseginezko berri nobliak barnarik hunki ninduen,
Euskal arraza ikusiz hola zoin urrun hedatua den.

3.-

Jaun espos gazte estimagarri daukazu orai fazoina,
Eta gainera konpainiaren duzu borondate ona;
Hemen danokin partitzen duzu egun zure zoriona,
Jaunak agian emanen dauzu biziko urostatasuna.

4.-

Andere espos ohoragarri, hain zira maitagarria;
Orai artean neskatxa zinen eta oraixe andria;
Lagunarekin eramateko bozkariozko bizia,
Beti bilatu familiako zorionezko bakia.

5.-

Dударик gabe izain dituzue bertze guziok bezala:
Alde batetik iruzki argi, eta bertzetik itzala;
Bainan oroitu oroz gainetik egun hitzeman duzuela
Elgar maitatzia bizi guzian, orai duzuen bezala.

6.-

Espos egun hau izan duzue lotgailu bien bihotzen,
Hitzeman eta hola konplituz atsegín haundia zuen;
Agian beti egun bezala partzuer zaizte egonen,
Hartu duzuen Sakramendua sekulan hauts ez dadien.

7.-

Orai artean berex zinezten, egun lotuak elgarri,
Sakramendua izan duzue estekatzeko uztarri;
Horgatik behar laguntza eman beti batek bertziari,
Plazer bidetan partzuer eta penetan sostengugarri.

8.-

Hazia eta lurrarekila formatzen baita arbola,
Hura haunditu denean aski egiten dauku itzala;
Espos gazteak, konpreni zazue otoi ene parabola:
Oroit zaitezte bat eginen da oraiko bien odola.

9.-

Ezkonduz geroz denok baitugu obligazio dobliak,
Hala derauku bai erakusten mundu hontako biziak;
Familiaren formatzen behar urrix eta ahariak,
Bien arteko birtute horrek ekartzen fruitu berriak.

10.-

Fruitu horiek etor ditezen sanorik beren arbolan,
Bai eta hazi modu berean lilian dauden denboran;
Ait'eta ama lagun ditzaten ontsa hundu direnean,
Jaungoiko onak gida zitzaten oro bere babesean.

11.-

Bizi berrian egin-bideak behar dituzue ikasi,
oroitu beti zer dauzueten orai arte erakutsi;
Zuen burason etsenplu onak sekulan ez hor ahantzi,
Baliatuko dituzue segur munduan zaizteno bizi.

12.-

Azken bertsoa emaiten dizit hemen denen izenean,
Espos maite hauk ohoratzeko desira hoberenean;
Zorion osok lagun zitzaten uroski bizi guzian,
Borondate hau daukat zuentzat orai ene bihotzian. (15)

1974-ko Ekainaren 15-ean.

(15) *Herria*, 1974-VIII-29.

JUAN B. ETCHEGARAY ETA DOMINIKA BEGUE ESPOSATU DIRA

Bi luzaidar esposatu dira Los Angelesetan. Etchegaray: bere aita haurrean galdu zuen eta Ondarrola Antonioinean hazia da. Amaren aldetik Bordeleko Mari etxeoandrea-ren iloba. Dominika Begue, Antxuritzeneko alaba, eta bigarren senarra Juan Pedro Iroz galdua errekontruz Saubeterren bere kamiunarekin.

Zazpi bertsu berri hauk egin eta kantatu ditut horien espos egunean.

Airea: Suiet eder bat deklaritzen dut... edo Tiki tikitik...

1.-

Agur bero bat nahi dut eman hemen konpañia guziari,
Oroz gainetik memento hontan jaun-andre espos haueri;
Ez diot gorde dutan plazerra, hau erran gabe deneri,
Ikusiz hemen bi bihotz maite lotuak orai elkarri.

2.-

Felizitazen ditut goraki orai jaun andre esposak,
Bizi guziko izan ditezen elkarrekilan urosak;
Zeren pasatu izan dituzte bide hertsu ta nekosak,
Oraiko hontan lagun ditzala Jainko Jaunaren babesak.

3.-

Espos eguná estimagarri bi amodio batian,
Dударik ez da eguntto honen beha ziren aspaldian;
Agian orai biziko dira zorion hoberenian,
Desiratzen dut urostatuna horier bizi luzian.

4.-

Konsolagarri ikusten baita oraiko espos eguna,
Amodioa urrun danikan, elkarri eman dutena;
Delibero ta kuraia haundiz hauk biek egin dutena,
Merezi dute bizi guziko bakezko urostatuna.

5.-

Espos berriek behar dutena egin ezkondu berrian:
Hazi sanoa landatu segur, lurra trenpian denian;
Fruitu berria ekar dezala uros bere sasoinian
Ait'eta amen konsolagarri izan dadin zahartzian.

6.-

Jaun-andre espos hauek ez dute ene kontseilu beharrik,
Esperentzia badute berek ikasia lehen danik;
Halarik ere konsolagarri litaike duda gaberik,
Fruitu berri bat jalgi baladi orai ezkontza hontarik.

7.-

Jaun eta andre orai behar dut hemen berean isildu,
Sobra mintzatuz ez nuke nahi adiskide onik galdu;
Bakarrik eman desira onak egun direner ezkondu,
Lanjerretikan Ama-Birjinak ditzala gaixoak zaindu.

Esker deneri, eta Zorion oso Juan Bautista eta Dominikari.

Los Angeles, Californian, 1974-ko Urria-ren 26an.

J.BAUTISTA ARROSAGARAY ETA M.SOCORRO EGUINOA ESPOSATU DIRA ORREAGAN

Hemen bialtzen dizkizut berriz ilobari eman bederatzi bertsoak osoki eta airearekin justo ezarririk; hauk ez ditut sanjatuko gehio, horregatik lehengo kopia erre zazu segido. «Andere Mustatx»—en hiru bertsu *kantu kanta kantore* liburuan daude 170. orrian. Guk haur denboran ikasi genuen «Pixuntziaz jo nau kopetan»; orai emana da: «pitxarrez jo nau kopetan». Bertso haiek hiru lerro luze eta bat laburra dute, hargatik ene bertsu hotan lehen lerroko airea bi aldiz ematen da, nola «Oilanda gazte moko fier bat...».

Juan Bautista ilobari biziki ederrak iduritu zaizkio. Igorri deraut gogoz ikasi eta magnetofonean ezarri behar dituela. Agian jalgiko da norbait familian arrazako ohidurak atxiki eta altxatuko dituen galdu gabe lehen Bordelenak egin diren bezala.

Airea: Andere Mustatx: Konseilu on bat nahi dut eman mutiko gazten onetan...

1.-

Egun kantatzen hastera noa bozkariozko suieta,
Uztail erditan ukan ginuen Luzaide-tikan gomita:
Abuztu bian ezkontzen zela iloba Juan Bautista,
Bainan gu harat heltzeko ezin orduan nehondik presta,
Zeren sobra urrun baita.

2.-

Halarik ere atsegin dauku beti danik berri onak,
Segur nauzu hor ba zintuztela konpainiako lagunak,
Zuen bientzat ahoz emanez desirarik hoberenak,
Guk ere letraz bihaltzen ditû zuendako zorionak,
Lagundu zitzaten Jaunak.

3.-

Espos eguna gertatzen baita esposen konsolagarri,
Bainan aditze nahi dut eman kasu hortan direneri:
Mundu lanjeros batera gira lehen danikan erori,
Fideltasuna atxik fermuki esposatuek elkarri,
Ez fidatu debruari.

4.-

Beste kontseilu bat ere nahi eman espos iloberi:
Ez ahantzi zer promes duzuen orai emana elkarri;
Sakramendua ukan duzue bien arteko lokarri,
Obligazio berriak orai konpli batak bestiari,
Hori baita zuhurgarri.

5.-

Dudarik gabe izain tuzue familiako egunak,
Alde batetik argi ta legun, eta bestetik ilunak;
Bainan halere elkar konsola, oroit orai hitzemanak,
Jaunak gorarik jujaturen tu zuek elkarri eginak,
Jarraiki bide zuzenak.

6.-

Zuentzat orai bihotz barnetik nik desira dauzutena,
Beti konserba maitetasuna, eta luzaz osasuna;
Bizi moldean bardin iduki zuen klasakoen heina,
Ez da sekulan behar bekaiztu auzokoek dauketena,
Begira beti zuena.

7.-

Zerbeit gisetan bilatu beti zorionezko bizitza,
Lurra bero den denboran erein hazi garbi baliosa;
Fruitu berria jiten delarik emanen baitu karesa,
Aita-ameri bete lezoke bozkariotan bihotza,
Emenda bizi urosa.

8.-

Atsegin nuke zuen berriak xehekiago izanik,
Orai ni hemen gelditzen nauzu nere hizpide eginik;
Ama-Birjinak lagun zitzaten irrisku handietarik,
Desira hauek bialtzen ditut zuer bihotzain erditik,
Ez baitut beste modurik.

9.-

Azken bertsoa hauxe deramat beste zortzien gainean,
Jakin dezazun hemen doala paper ttipi bat aldean;
Agian duzu estimaturen eskuratzen duzunean,
Oseba hunen oroitzapena plazerrik handienian,
Zure bititza berrian (16).

1975-eko Azaroa 29-an

(16) *Herria*, 1976-II-12.

SORTETXEKO ILOBERI

Beste bertso batzu orai egin ditut «*Sortetxeko iloberi*» 1976.eko Urrian. Orai gure sortetxean dagon ene ilobaren emazteak ez du euskara mintzo eta nahi nuke konpreni dezan Bordele-ko mintzaira zer izan den etxe hori eginez geroztik eta agian jarraikiko dute aitzina oraikoek eta horien hurrek ere.

Orai okupazio haundiena dut familiako arbola; beti eta gehiago biltzen ari naiz eta nahi nuke jakin nun litaken altxatzeko leku ona hor Nafarroan. Gure jendakientzat, enkas nahi balute egun batez ikusi nik egin lana, uste dut Luzaideko herriko etxean ezartzea ontsa izango dela; baina ez dakit nori galdegin, ez eta zer permisione edo baimen behar dutan paper hauek han altxatzeko. Zuk ahal baduzu jakin zazu eta helaraz neri.

Hemen badira Kondado guzitan *Recordatzeko* etxeak. Kaliforniak baditu 58 Kondado; kobratzen dute paper orri bakarra 1'50 \$ aire hori, ematen diote *Condadoko silloa eta zenbakia* eta han gelditzen da betiko. Publikoak ikusten ahal ditu, baina norbaitek nahi badu hosto horien potreta pagatu behar du. Plazer nuke jakitea baden halako lekurik hor Nafarroan.

Iloberri eman bertso hauk Pedro Juanen musika hontan
eginak ditut:

Airea: Mutil koxkor bat itxu aurreko...

1.-

Ez diot aise kantatu egun, utzi dut eritegia!
Bainan alere ezin baztertu sortzez ukan kantatzia;
Atsegin dauket jakinik dela sortu ilobain semia,
Gure aitaren izena Miguel diote adierazia,
Orrek behar du berriz garnitu gu sortu garen etxia.

2.-

Ez da dudarik ait'eta ama direla bozkariotan,
Lehen alaba, orai semea, biok tuzte eskuetan;
Urosagorik ote da nehor bizi danik mundu huntan,
Beren fruituak ikusiz sano direla pinpirinetan,
Maitetasuna ez dute eskas, sasoi badute jostetan.

3.-

Fruitu berrien desira nuen ilobentzat ezkontzian,
Bertsu berriez eman nioten ahantzi gabe ordian;
Dударik ez da amodiokin hasi zitezken lanian
Segurtatua izan naiz gero ontsa jakin dutanien,
Ume berri bat maitagarria sortu zaiote etxian.

4.-

Ikusgarriak izanak dire beti danikan mundian,
Orai ere bat gertatu bada, izan da leku onian;
Fruitu berriak etor ditela, hazten ahal den tokian,
Beste bi ere sortzen ba dire bada leku Bordelian.
Beti famili handi izan da gu sortu garen etxian.

5.-

Gure sort-etxe orrek ba ditu abantxu mila bat urte,
Euskal mintzaira geroztik beti mingaña ibili dute;
Gure denboran guk ere hori ginduen bakarrik maite,
Aitzina ere jarraik baladi etxean ohore litaike,
Lazokerian uzten duena, bera hobendun diteke.

6.-

Ait'eta amak, ez gaizki hartu hemen dudana errango:
Euskara mintza eta erakuts haur maite horier oro;
Zeren haurrean ikasteko da anitez ere aisago,
Ahantz baladi sortu-etxean zuen hoben da izango,
Erdara utzi bigarren mailan, ikas dezatela gero.

7.-

Oroit gaitezen Euskara dela burasok guri utzia,
Eta guretzat zuzenki dela betiko konserbatzia;
Alperkerian uzten ba dugu gure denboran galtzia,
Hori liteke gure arraza guzien desohoria,
Ondokoeri eman mintzaira, guk duguna ikasia.

8.-

Ez dezazuen otoi gaitz hartu nik bertsu hotan emana,
Jakin zazue beti naizela garbi zintzo euskalduna;
Buruan dauket haur denboran nik ukan hizkuntza lehena,
Arbasotarik gure ganako bide luz'egin duena,
Hau galdu gabe utzi nahi dut munduko bizi azkena.

AGUR BAT ANJEL AINZIBURU ILOBARI

Airea: Otxalde eta Etxahun; Agur adiskidia,

1.-

Agur bat, Anjel, zuri eman nahia niz,
Errexago litaiké hurbilago banintz;
Kantu hauk bialtzian zutaz oroitzen niz,
Kantu amodioa duzula fida niz,
Altxaturen ditzula, ustez segur bainiz.

2.-

Kantuen altxatzeko norbeit dadin izan,
Hortarako karra nik ukan dut bizitzan;
Euskal-herritik urrun nola bizi nizan,
Nor naizen agertzeko herabe ez nintzan,
Arbasoer zor dugun ohore eskaintzan.

3.-

Kantu aunitz hedatu ditut bazterretan,
Euskal-herritan eta bi Ameriketan,
Jendaki, adiskide, Euskaldun umetan,
Heiek zabal ditzaten ber gisan bertzetan,
Aspaldian zintzo naiz ni lan horietan.

4.-

Sortzez izana dugun arbason mintzaira
Hurreko amodioz sartu bihotzera;
Hargatik ez diteke ni ganik atera,
Adin huntan uzteko maite dut sobera,
Nerekin eramanen dut bertze mundura.

5.-

Arbasoen mintzaira dezagun altxatu,
Ustez lan nekosa den, ez gaiten lotsatu;
Oroitu nork gaituen mundurat moldatu,
Heiek ez izanez gu ez gintezken sortu,
Odolaren arraza dezagun artatu.

6.-

Horgatik galdatzen dut Euskaldun zintzoer,
Gure mintzaira oso maitatzen dutener,
Sostenga dezatela zuzen eta eder,
Ber denboran erakuts gure ondokoer
Merezi duen gisan, Jainkoari esker.

7.-

Gogota egiteko jin zeraut denbora,
Ez naizela luzako etorri mundura;
Nere aldi egin dut penatuz ardura,
Nahiz beti atxiki bizirik Euskara,
Kar bera eman nahi dut ondokotara.

8.-

Ez dut nahi bertzerik bidetik makurtu,
Bakarrik dugun zorra guzier aitortu;
Euskaldun sortu gire, ez dezon ukatu,
Gure buraso onak gora ohoratu,
Guretzat egin obrez orai ordainkatu.

9.-

Jaunak dauzkela heiek zeruko gainean,
Aspaldi asmatu dut nere pentsatzean;
Ezagutuak daizke hango aldarean,
Otoitz bezate Jauna nere izenean,
Laster han altxa nezan, bere babesean (17).

(17) *Herria*, 1979-I-18.

Pasadenan eskura emana J.M.Satrustegui jaunari.
J.C. Arrosagaray. (1977).

ENE LEHEN KUSI ZENA

Airea: Tiki tikitik aitak et amak

1.-

Uste gabean berri triste bat egun zeraut arribatu:
Ortzaizen dela lehen kusi bat mundu huntarik partitu;
Fede handia ba zuen eta oraintxe du baliatu,
Ez da dudarik Jaunak duela zeruan gora altxatu.

2.-

Fedez handia eta gainera bestez konsideratua,
Behar ordua kusiz geroztik, harek laster zerbitzua;
Aspaldi huntan osagarriaz zabilan delikatua,
Haren sofritze guziez orai izanen da pagatua.

3.-

Oino berriki igorri nion nere azken eskutitza,
Erantzunaren beha nindagon, hura nuen esperantza;
Bainan galdu dut berri emaile fidel eta baliosa,
Haren galtziak ilundu deraut ahul daukatan bihotza.

4.-

Hari eskerrak muntatua dut heien jendaki arbola,
Ez bait nezaken deuse gisetan lan hori egin bestela;
Orai horgatik familiari egiten dut nik apela,
Nik egin lana amaren orde umek altxa dezatela.

5.-

Batzuen ama izan da eta bere lagunain esposa,
Bien artean altxatu dute familia baliosa;
Ama gaixoak bere umeri beti zabalik bihotza,
Halako bati denek zor dugu salbamenduko otoitza.

6.-

Dolumin handi hunen jasaiten juntatzen niz familiari,
Sabel berean egon haziak lotuak gire elgarri;
Geroztik dire mundura sortu lau jenerazio berri,
Denak fededun zintzoak eta ez lotsa beren lanari.

7.-

Orai galtze hau ezin ahal dut bizi huntan ahantziko,
Sobera froga bilduak ditut aise hartaz oroitzeko;
Jaunak ahala eman balezo nere galden entzuteko,
Leku bat nere atxik dezala, harat joaiten naizeneko.

8.-

Otoitz kartsu bat bihotzez zuri, kusi Maria Terexa,
Bizian izan fede handiak eman dezauzun laguntza;
Jainko maitea, Zutan bakarrik zuen harek esperantza,
Saritzat orai zero gainean emozu horgo babes. (18).

Kusi fidel
1981-eko Apirilan.

(18) *Herria*, 1982-III-4.

DON MIGUEL SAGASETA-RI ESKER ON DANTZA
JAUZIZ EGIN DUEN LIBURUAZ

Airea: *Tiki tikitik aijak et'amak...*

1.-

Ez naiz koblari baina maite dut beti Euskarazko kanta,
Oroz gainetik haize aldera etortzen bada suieta;
Egun goizean eskuratu dut uste gabeko presenta,
Orai beretik milesker zuri, oi Don Miguel Sagaseta.

2.-

Gure elkarren ezagutziak orai ba ditu sei urte,
Dantza-jauzitan okupatua zindela ez nuen uste;
Zeren apezak dantzaren etsai ziren lehen hainbeste,
Jaungoiko bera dugula orai, sinesteko duzu neke.

3.-

Oroitzen nauzu atzoz bezala nere gaztetto denboran
Dantzan artzeko apezan beldur gintutzun beti ikaran;
Etziren gutti trufatzen gutaz inorant ginen maneran,
Jostaketako xantza gutti ta ezin balia orduan.

4.-

Mila-bederatzi ehun eta han hogoi eta bostian,
Faustin gidari bolant beztitu ginen Iruñe hirian;
Herriko dantzak eman gintuen toro plazaren barnian,
Luzaide-rentzat ohore handi eman ziguten ordian.

5.-

Gero ondotik heldu bai ziren gure Luzaide-ko bestak,
Gazteria zen deliberatu han egiteko bolantak;
Baina debeku eman zeraukun herriko apez bortitzak,
Eta golpatu hobendun gabe gazteriaren bihotzak.

6.-

Orduan ziren iluntasunez iragan bestak herrian,
Gazteria zen asaldaturik jarri denbora berian;
Geroztik beti pentsaketa naiz apez garraztasunian,
Jesusek hori etzuen eman gure erlisionian.

7.-

Apezak ere zabiltzalarik beren erregelaz kanpo,
Nahaskeria muntatzen zuten bertzer kalte egiteko;
Ez ditut oro barne ezartzen, gehienak ziren gisako,
Errespetia ba dauket beti zuzen dabiltzanendako.

8.-

Aunitz sanjatu dire ordutik dantzen gainean apezak,
Publiko plazan debru gintuzten mutil-neskatxa onestak;
Aldiz oraintxe xingolaz bezi, Elizan bardin bolantak,
Erran diteke *Jainko ta Debru* ezkondu direla biak.

9.-

Orai nahi dut, Don Miguel, zure lanari eman eskerra,
Dantza-jauzien konserbatzeko ba zagon zure beharra;
Xeheki biltzen egin bai duzu pare gabeko indarra,
Oroitgarria izanen baita zure liburu ederra.

10.-

Oroz gaisetik aipatzen duzu gora Luzaide herria,
Beti danikan izana baitu ixtorio fama handia;
Dantzetan ere denbora batez zagon parerik gabia,
Jarraiki behar ginduke beti lehen izan ohoria.

11.-

Ez dakit berriz izanen dutan grazia zu ikusteko,
Desira dutan esker onaren bekoz-beko aitortzeko;
Don Miguel, zure lan xoragarri hau ez baita ahantziko,
Jaungoiko onak agian dauzu osasun on luzarako.

1976-ko Maiatza-ren 12 an eginak, Pomona, Californian.

IRAKURLEAK MINTZO GURE MINTZAIRAZ ZONBAIT GOGOETA

Irakurtu izan ditut bi artikulu *Herria* kazetan, bat urriaren 5 ekoan, Buffalo'tik igorria, eta bertzia arrapostua Urriaren 19 koan, Baionatik. Egileak, B. E. eta E. L. Biek laudatzen dute goraki gure mintzaira Eskuara, bainan ez dira arras akort izkiriitzen dugun gisan. Biziki ontsa zaut arrangura horiek zabal dituen *Herria* kazetaren bidez, hola jakin dezagun ez bakarrik kazetaren irakurtzalek, bai eta ere gainerako adiskide eta Eskualdun guziek.

Konprenitu behar ginuke zerbait gaizki badela gure mintzairan, bertzela ez laiteke hoin desberdin mintza eta izkiria herri batetik eta bertzera; eta aitzinago joan gabe puntu hau bakarrik aipatzen dut hemen: *Herria* Hazilaren 16 ekoa paja 6 an Urepele Heriotze *azaroaren* 10 ean eta gero sail berean Aldude *Hazilaren* 11-an; bi auzo herritan ez dute berdin izkiriitzen hilabetearen izena ez eta kazetak ez du berdintzen huts ttipi hori.

Bigarren puntua, bizitegiaren izena: *Etchea* edo *Etchia*, izen hau hola izkiriaturik baditake zonbait ehun urte ontan liburu zaharretan, eta hortarik jalgiak ditazke aintz jenden izendeiturak, nola: Etcheberry, Etchezahar, Etchegoin, Etchebehere, Etchamendy, Etchemendy, Etchegaray, eta

bertze zombait, ordian deitura hori dutener ez dugu erraiten ahal *CH* ez dela eskuara, eni erran daaten bezala.

Orai utzi deiturak geldi eta errespetatu diren bezala ez baiditugu deiturak guhauenak, bainan aiten aitetarik izanak etorkiaz edo dotez, segi ditzagun aitzina.

Hirugarren pundia, badugu bertze hitz hau: *H*. Onek emaiten dauku gehiago nahasdura eta mugaz iphar (ipar) aldean izkiriitzen da ainitz gehiago hitzetan, mugaz hego aldean baino. Zertako? Hori nahi nuke jakin nik ere, nola: bethi (beti), ainhitz (ainitz), orhoit (oroit), hartu (artu), hemen (emen), hiru (iru), hamar (amar), hogeï (ogeï), eta bertze ainitz hitzetan desberdin gira batere behar gabe. Ordian zergatik ez izkiriatu mugaz bi aldetan oro eskualdun garen bezala gisa batera?

Gure ait-amek etzuten Eskuara beizik mintzo eta izkiriitzen, eta behin ere ez nuen aditu heier *konpreni* edo *konprenitu*, beti *konprendi* edo *konprenditu*, eta nik ere hala izkiriitzen nuen berriki arte. Bainan ikusi dualarik Euskaldun kazeta eta kantu liburu berrietan, nihaurek sanjatu dut nehork erran gabe. Ontsa egin dut?

Orai azkenekotz ene opinioia da gure mintzaira zuzendu beharra zen duela zombait ehun urte, bertze mintzairak bezala, eta guretako aiseria eta atsegin izanen zen denbora huntan, bainan orai zuzentzen badugu atsegin hori bera izanen dute gure ondokoek, ez da egia?

Agian ideia hau zabalduko da Eskualdun kazeta, liburu, eta erakustegi guzietan. Bihotzetik galde hori egiten dut. Errepostuaren beha egonen niz Herria'n edo nihauri. Milesker. Zerbitzari

Pomona, Kaliforniatik. (19).

(19) Ikus: HERRIA (Baiona) 1967.eko Azaroa.

EUSKALDUN BATEK CALIFORNIATIK

1964. Agorrilaren 9. Eskuratu dut «Hiltzera kantuz prestatu zen bertsularia» izendatu liburua, biziki interesanta. Bainan, pena da ez baiditut hitz guziak konprenditzen. Honek burura ekartzen daut, Euskal herriak ttipi eta hurbil elgarri, halere batek bertzea ez dio konpreni, ene seigarren bertsoan dagona, eta dudarik gabe gauza bera gertatuko da Bordel zenaren liburua agertzen delarik; haren arrazakoek eta herritarrek eta gure euskara mintzo duten Garaziko eta Baigorriko kantonamenduko euskaldunek ez dukete dena konprenituko. Halere galde egin nahi dauzut, bertsoetako hitzak bederen ager diten gure lekuko euskaran.

1970.eko Urriaren 29. Ikusiko duzun bezala hitz batzu diferente izkiriartzen ditut kantu hauetan, nola *hemen*, *haundia*, h letra honekin. Zonbait urte hontan utzia nuen alderat ikusiz Bordelen liburuan eta bertze zure liburu eta letretan ez zinduela usatzen. Aldiz orai ikusi dut sanjatu duzuela berriz, nola Bordelen omenarrian.

Jakin nahi nuke nola den hobeki eta nola egiten dituzuen sanja horiek batetik bertzera. Aurten nahi nuen eka-
rri euskal gramatika, edo dikzionario edo bertze liburu

zonbait euskal ortografia ikasteko, bainan ez dut nehon ikusi eta ez dakit baden ere.

Euskara xuxen izkiriatzeko diozun liburuska plazer nuke izaitea ez bada sobera pizua igortzeko. Orai fite jitekoak dira Luzaide Ardandegiko Beatriz bere senarrarekin eta Luzaidera heltzen ahal bazenu liburu hori uste dut ekarri lezaketen. Bestela igorri untziz.

Diozu, nik hainbertzetan aipatu batasunaren bidean sartu ziztela. Plazer nuke nik adibinatua bururaturik ikus baneza. «Euskaldun batek Kaliforniatik» 1967.eko ene kantiak ere behar laizke agertu.

Airea: Suiet eder bat deklaritzen dut...

1.-

Orain berriki irakurtu dut *Herria* Euskaldun kasetan
Bi euskaldunak diskusioez elgarri urrun danikan;
Gure mintzaira sanjatzan ari dela lehen danikan,
Izkiriatzen ere dugula hitz zonbait berriturikan.

2.-

Estimatzen dut bi jaun horien oraiko diskusionia,
Arrazoin horren juiatzeko ni ez naiz aski kapabilia;
Bainan horgatik eman nahi dut neure opinionia,
Hobe dugula gizon jakintsun horier galdegitia.

3.-

Konpreni daite nonbait badela Euskeran falta handia,
Herri batetik eta bertzera badugu diferentzia;
Ainitz alditan gertatzen baita elgar ez konprenitzia,
Abantail luke gure mintzaira orok berdin mintzatzia.

4.-

Lan hori utzi behar ginuke gizon inparzialetan,
Denborarikan galdu gabe hor ar diten lan horietan;
Irakaspenak zabal ditzaten Euskaldunen herrietan,
Ontsa finkatu arte betikotz gure buruko muinetan.

5.-

Euskaldunak gu mintzo gaituzu urrun sortzeko herritik,
Guk ere odol bera baitugu ait-amen ganik sortzetik;
Nahiz beharrak manaturikan urrunduak gira hortik,
Odol hau bera gure zainetan joanen gira mundutik.

6.-

Euskaldun oro batean orai jarraiki gaiten aurrera,
Behar bezala berdindurikan ezarri gure mintzaira;
Liburu eta erakuspenak zabal ditzagun hartara,
Norbait bederen entsega bedi berandu gabe sobera.

7.-

Jendeak ez du munduan behar beretzat bizi bakarrik,
Nahi badugu bertzetarikan izan nehon estimurik;
Gure mintzaira berdin eginez ez luke gero dolurik,
Konprenitzeko batek bertzia abantail luke segurik.

8.-

Lehenago-re ezarria dut bertze bertsu batzuetan:
Euskal herriak hurbilki eta desberdinak mintzairetan;
Serioski hor lotzen bagira gure hitz eta obretan,
Ez da dudarik egin ginio gure mintzaira odretan.

9.-

Odre onetan ezarriz geroz gure hitzkuntza Euskera,
Denborarekin junta gintezke Euskaldunak batetara;
Idera hori gogoan hartuz entsega gaiten hortara,
Orok batian altxa dezagun gora Euskaldun bandera.

10.-

Ofentsatuek barka zazue eta ez ahalaz gaitzi,
Ez bainiz orai xede hortako bertsu hon egiten hasi;
Ainitzak hemen hutsian gaude, behar ginuke sinetsi,
Gure mintzaira deneri berdin behar laite erakutsi.

11.-

Adios, beraz, adixkideak nahi ditut despeditu,
Batto Buffalon, bertzia Baionan, urrun gaitan gertatu;
Diskusionia segi dezazuen, ez dut nahi debekatu,
Bainan Euskera bat egitera gaiten oro entsegatu (20)

1967-ko Arazoan.

(20) Ikus: *HERRIA* (Baiona) 1967. azaroaren 21. *Príncipe de Viana* (Iruñea, 1971) Martxoan.

GURE MINTZAIRA

Zenbait urte hontan aipatzen dugu ainitz gure mintzaira. Alde batetik irakurtzen dugu berrikarien bidez nola ari diren Euskaltzaindiaren biltzarretan Euskal mintzaira batera hurbildu nahiz, edo errextu beharrez gero elgar aisago konpreni dezagun.

Aita Villasante Euskaltzaindiko buru denaren hitzaldi ederrak hedatu dituzte Eskualdun berrikariek bai hego eta ipar Euskal herrietan.

Aldiz bestaldetik entzuten dugu guhaurek zenbait aldiz erraiten: batzuk gure mintzaira xaharra xehatzen ari daukute, eta bestek gure mintzaira pollita sanjatzen ari daukute, ez dugu gehio konprenitzen.

Goazin orai pausu bat aitzina, orok badakigu nola ikasi ginduen mintzatzen haurrean «entzunez» gure buraso eta heien familian, eta badakigu bakotxak zoin estimagarri dugun gure burasoetarik ikasi mintzaira maitagarria, hainbeste karesa eta amodiorekin erakutsi zaukutena gure haurtasunean. Orduan uste ginduen bakotxak gure etxean ikasia ginduela zuzena.

EntzUNETIK IXTUDIORA

Goazin orai bigarren pausura, gure burasoen eta gure haur denboran ere ez ginen sort herritik jalgitzen nun etzen soldado edo Amerikarat. Ez ginduen lehen auzo herritik urrunago joateko xantzarik, ez eta ilusionerik jakiteko nola mintzo eta bizi ziren beste Euskal herritan. Bakotxa gure etxeko lanetan aski estekan eta izpirituak ilunpean bizi ginen. Geroztik sanjatuak gira, azken 25 urte hontan jendeak erabiltzen eta ikusten dugu ainitz gehiago.

Horgatik ikasi dugu urruntxago bizi diren Euskaldun anaiak zoin desberdin mintzo diren gutarik hoin eremu ttipian, eta badakigu «entzunez» ikasi mintzaira ez dela nihun zuzena, eta zuzentzeko behar ditugula Erakuslierrak, Ikastolak, eta irakurtzeko liburu zuzenak, beste mintzaira guzien ikasteko behar diren bezala.

Ordu litake Euskaldunek aitortu dezagun «entzunez» ikasi ginduen mintzaira basaki mintzo dugula, eta gure aitzinekoek eta guk ere ez dugula zuzenki ikasteko xantzarik izan gure haur denboran, eta horgatik garela hoin desberdin gaurko egunean.

Ez da mintzaira bat bakarrik munduan «entzunez» zuzen ikasten ahal denik, eta froga hoiek ikusten ditugu aunitzek nahi badugu aitortu edo konprenitu.

Hemen ipar Amerikan Inglesa dugu ofizial mintzaira, eta hemengo haurrek beren etxetan «entzunez» ikasten dute Inglesa, guk ikasi ginduen bezala Euskara, baina zuzentzeko joan behar dute Eskolarat eta hartzen dute zenbait urte ontsa ikasteko.

Ez lotsa

Ezagutzen dut 6 urte hontan Eskolan dabilan haurra, eta bere grupa edo klasan hoberena da hizkuntzaren hitzak

banazka (bakarzka) behexten gogoz. «Spelling» erraiten diote hemen eta oraino behar ditu gutienaz bizpahiru urte gehio zuzen ikasteko Inglesa.

Horgatik ez gaiten estona Euskaldunak, ez badugu ontsa mintzo gure mintzaira.

Beste mintzairaren ikasten hartzen duten bezanbat denbora, hartu bagindu guk gurearen ikasteko, segur eta fida naiz ez ginduela oraiko difikultade edo deseberdintasunik izanen. Oraino ere iduri zaut poxi bat ikasten ahal dugula denok, ez ba lotsatu zeren bizi gareno badugu ikastearen beharra.

Orai nahi nuke norbaitek erran dezautan zoin den gure mintzairaren izen zuzena, (Eskuara edo Euskara) eta zeren gatik agertzen dugun bi gisetan. Esker asko. (21)

Eskualdun fidel

(Airea: *Ttiki-ttikitik aitak et'amak...*)

1.-

Gure mintzaira ikasi dugu aita-ama onetarik,
Oroitzapen hau ez dezagula sekulan utzi gutarik;
Irakurtu dut mundu guzian ez daukela ez parerik,
Jende abilek ezin dirote aurkitu honen errorik.

(21) 1973-ko Apirilaren 26-an *HERRIA* kasetan emana. *Herria* kazetaren artikulua hau igortzen dut zuen eskutara, ontsa iduri bazaizue agertzeko okasione duzuelarik, edo bertzela uzteko bazterrerat; zuen kondu.

Ez nuke nehoi minik eman nahi, bakarrik gure mintzaira zuzentzearen kontra diren hoik nahi nuzke sanja dituen emeki emeki.

Ideia berarekin igortzen dauzuten orai, adiskide Satrustegi jauna, zuri, eta sei bertso heldu dira honekin batean.

2.-

Erroak ditu atzeman ahal baino barnago lotuak,
Arta ditzagun eihartu gabe horien adar sendoak;
Ahal duguno garbi atxiki ekendurik afruntuak,
Primaderako lilien pare eman ditzala fruituak.

3.-

Fruitu sanoak ematekotan gure mintzairak orotan,
Erakuspenak landa ditzagun jende gazten gogoetan;
Eta ez lotsa lan hau nekosa orai iduri gatikan,
Zer nahi egin behar ginduke Eskuara altxatzekotan.

4.-

Zabal dezagun gure mintzaira gabiltzan leku guzitan,
Ederragorik ez dugu uste jalgi dadin nihundikan;
Pratika beti ez dadin ahantz, izan gabe beldurrikan,
Gure burason erakuspenak ez uzteko alferrikan.

5.-

Eskualduneri mintzo naiz hemen isilik ezin egonez,
Ez nuke nahi nihor afrunta dadin orai nik erranez;
Eskual-herriak mende honetan zenbat desberdin mintzatzez,
Hori ikusiz hementxe nago doluz urturik herabez.

6.-

Ordu litake dezagun orok denbora hontan konpreni
Gure mintzaira berdin eginez zenbat litaken konbeni;
Bainan hartako entsegu onak ez ditzagula desuni,
Lan nekosaren bururatzeko laguntza eman elgarri.

EUSKARARI MINTZO CALIFORNIATIK

1975.azaroaren 19. Orai honekin bialtzen dizkizut hila-bete hontan eginak. Izena, «Euskal Herriari mintzo Kaliforniatik». Uste dut merezi duten agertzea ez bakarrik Iruñeko paperean, bainan beste euskaldun paper edo berriketari guzietan. Musika behar laike bertsoekin batean, bainan musika ez dezaket nik egin. Xalbadorrek bere artzain etxolari aire berean emanak ditu.

Badu zenbait denbora bi *cassette* kantuz bete nituela zuri bialtzeko eta gero horgo berri eta nahaskeriak entzuz gibelatu naiz bialtzeko. Horgatik nahi dut jakin kurritzen diren behar bezala kanpotik heldu diren letra eta beste gauzak. Uste baduzu helduko direla, jakinarazi fite eni.

Egon hauetan ez dut kantatzen ahal, zeren seian joan nintzen medikuaren ikustera etxerat segido itzultzeko, bainan ez ninduen utzi urrats bat egitera. Errotazko kaderan ezarri eta ospitalean atxiki nau bost egunez ene bihotzaren kondizionia segurtatu arte. Uroski ez dut llaga berririk, bakarrik aldizka ez behar den odola zirkulatzen. Bainan

polliki naiz. Goizetan sei ordutan altxatzen naiz beti bezala eta egun oroz kanpoan nabila, bainan erreposki.

Herenegun maxinan neuk izkiriatu ditut bertso berri hauk, eta nahi nituzke ikusi dauden bezala sail batean paperetan ager diton gero kopiak egiteko.

Gaur berean bialtzen dut honen beste kopia bat Idaho-ko hileroko berriketariari, eta ez dut dudatzen atseginekin agertuko dutela martxoko paperean. (1976.II.8)

Kantuz izeneko liburuan irakurtu ditut aire berean diren bi kantu; bat, «Sorlekua utziz geroz» (62.or.) eta beste bat «Irrintzina» (20.or)

(Airea: *Sort lekua utziz geroz ondikotz hala beharrez...*)

1.-

Ez dakit noiz danik ziren, Euskera maitagarria,
Arbasoen mendetarik gure gana etorria;
Nehork ere ez daki zu noiz eta non ziren sortia,
Iduri duzu mirakuluz zeru gainetik jautsia.

2.-

Jakintsunak erabili bilatzen zure erroa,
Duda gabe barna duzu ezin atzemanekoa;
Horgatikan zabaltzen duzu munduan zure fruitua,
Udan ala neguan dago beti bardin loretua.

3.-

Euskaldunek ezagutzen zaitugu zu haurretikan,
Burasoen belaunetan ginelarik jarririkan;
Zu entzunez atsegin dugu beti danik geroztikan,
Zu gabe guk ez dezakegu egun baten bizirikan.

4.-

Aita-amen ahotikan ikasi karesa beroz,
Hain eztiki aditzean borondate amodioz;
Zuk bakarrik konsolatzen gu, han eleka hasiz geroz,
Ordutikan gurea zire eta izanen betikotz.

5.-

Badakigu atakatzen zaituztela aspaldian,
Zu desegin nahiz ari dire jelosi handian;
Bainan ezin zaituzte egin sekulan Euskal-herrian,
Iratzartu bai gire oino, beharrezko tenorian.

6.-

Laidotua izan zire ezin sinets heineraino,
Bai erdaldun, ta franximant, jukutrek ahal duteno;
Bainan orai xerto berriez muntatua kaskoraino,
Horren beste laguntzale zuk ez duzu izan oraino.

7.-

Biltzarretan, kasetetan, baita ere bertsolari,
Zure alde errepikan aste guziz dire ari;
Jarraitzen badute hola, hasia duten lan hori,
Euskera, zu izanen zire Euskal herrien lokarri.

8.-

Berritze bat aspaldian ginautzun guk egin behar,
Desbardinki mintzo gire, ezin konprenituz elkar;
Orai gire iratzartu-ta, ez gaitezen berriz lokar,
Altxa zaite zuzenki gora eta egon beti azkar.

9.-

Zonbat urus ezagutuz konbeni den Euskalduntza,
Ikastolak zabaltzia pare gabe baliosa;
Aspaldi nik hortaz nuen ba egina lehen amentsa,
Orai obrak hor ikusirik, pozez bete zait bihotza.

10.-

Euskera, zu mintzaitetan maite zaitudan bakarra,
Sort-herritik urrun daukat beti bardin zure karra;
Altxagarri zire neretzat nola zeruan izarra,
Zurekilan nahi nuke iragan bizi ondarra.

11.-

Euskaldunen mintzaira, zu egon garbi ta lorios,
Zurekilan bai gire gu beti danikan kuraios;
Maite zaitut bihotzetikan, eta maite amodioz,
Gelditzen naiz erran gabe ni sekulan zuri adios (22).

1975-eko azaroan

(22) *Zeruko Argia* 1976-IV-4.

AGUR BATE EUSKALDUNER

1969. Uztailaren 19. Hemen heldu da kantu kopia bat «Agur bat Esukalduner» deitua, nik joan den urtean egina, eta orai publikatu da lehen aldiko Nevada Unibersitateko euskal istudioen bigarren edizionean. Ene ideia laike zuk igortzea zure adiskide Lafitte jaunari *Herria* kazetan ager dezan ahal bezain laster, zeren nik igorri eta ez dute menturaz artarik hartuko. Gainera ene plazerra laike heldu diren bezala bi sailetan ager ditzen kazetan, orduan kazetatik moztu eta fotokopiak egiten ditut hemengo usaiako paperetan. Ez dakit hau konprenituko duten. Lerro batean ezarriz, sail batean, luzegi heldu da gure usaiako paperean kopia egiteko (23).

(23) *NEWSLETTER*, July 1969. En nuestra primera edición de la revista «Newsletter» invitamos a nuestros lectores a mandarnos cualquier artículo de interés, para su posible inclusión en futuras ediciones. Recientemente, el Sr. Arrosagaray de Pomona, California, respondió componiendo diez originales versos, generosos en el elogio de Estudios Vascos. Nosotros deseamos agradecer al Sr. Arrosagaray su pensamiento y entusiasmo. (Ingelesetik itzuliak)

Ikus: *Príncipe de Viana* (Iruñea, 1969) Urria; *D. de N. Nafar Izkuntzan Orria*, 15.I.1970.

Airea: *Kattalin kuttu kuttu, Kattalin arina...*

1.-

Agur bat Eskualduner noa erraitera,
Iratzar gaiten oro orai da denbora;
Eskualdunen ixtoria doatzi emaitera,
Ensega gaiten orai haren ikastera.

2.-

Berri noblia baitut izan Nevada-tik,
Lan hortan okupatzen den buruzagitik,
Eskualdunen ixtoria segur oraikotik
Emanen daukutela ongi prestaturik.

3.-

Atsegin haundi batek piztu daut bihotza,
Ikusiz heldu dela Eskualdun amentsa;
Ixtoriain agertzia izain da baliosa,
Bere lekian ezarriz Eskualdun arraza.

4.-

Eskualdunak aspaldi daude Amerikan,
Kolonbus-ek lagunak zituen gutarikan;
Zertako utzi behar egia gorderikan,
Ixtoriak izatekotz justiziarikan?

5.-

Ixtoriain agertzia da gauza prudenta,
Egiak izkiriatu, gezurrik ez konta,
Eskualdunen bizitza nekosa izan baita
Langile onest eta kuraiatz puxanta.

6.-

Ezin ahantz ditazke Eskualdun zaharrak,
Bizitza gogor hartan hek egin indarrak;
Ardura bustirikan izerdiz bizkarrak,
Lan aunitz egin eta irabazi txarrak.

7.-

Halare bazauketen laneko bertute,
Bizi moduarentzat beti borondate;
Oraikoak hainbertze intresa baginte,
Eskualdun ohidurak konserba litazke.

8.-

Gure Aitattoetan har dezaun etsenplu,
Heiek bezala beti deborrak konplitu;
Gure obra guziak Jaunak kusiren tu,
Heien araberara jujaturen gaitu.

9.-

Esker emaiten diot Doctor Douglass-eri
Bai eta haren lagun diren guzieri;
Eskualdun ixtoria jalgi zaten garbi,
Erakusteko zuzen ez dakiteneri.

10.-

Hemeretzi ehun eta hiru-hogoi zortzi,
Eskualdun gidarier dauzuet goraintzi;
Hasi duzien lana dezazuen segi,
Eskualdunen izena bizi dadin beti.

(1968 an.)

XALBADORRI AGUR ON

Airea: Ikusten duzu goizean...

1.-

Hemen aipatu nahia
Xalbador pertsularia,
Urepele-ko semia;
Aurten duzula irabazia
kurtsan Xenpelar saria,
Hori dudarik gabia
Zinduen merexitia
Ukan duzun ohoria.

2.-

Xalbador, zure izena
Aspaldi nuen entzuna
Koblaritan hoberena;
Ofizio hortan kurritu duzu
Euskal herri gehiena,
Zu anitzen jostakina,
Eman dezu atsegina,
Hori da nahi zutena.

3.-

Xalbador, zu mintzatzen
Sort etxearen gainian
Sendimendu hobengan;
Zu bezalako etxe umiak
balira mundu guzian,
Estima ginio ordian
Gure arbason bizian
Zer utzi zauten joaitian.

4.-

Arbasotarik ukana
Lehenik gure dohaina
Bai eta gero izena;
Gainera utzi ere zaguten
mintzaitan ederrena,
Hori orok dakiguna,
Ezin ukatu duguna,
Baita gure Euskalduna.

5.-

Xalbador, zure pertsutan
Sort etxeain ohoretan
Zaude amodio handitan;
Zure ideiak plazaturikan
zeure haurren eskuetan,
Ontsa jarraikitzekotan
Zuk eman etsenpluetan
Ez dukete dolurikan.

6.-

Batek bere etxeari
Behar luke erakutsi
Amodio zoin den handi;
Ez balinbada hau jarraikitzen
eskasak dira ageri,
Pentze landak sasu jarri,
Aterbeak hor erori,
Hori da desgustagarri.

7.-

Gurasok kusi baluzte
Anitzak nola gabiltze,
estonatuak litazke;
Hoi en izerdiz ontsa gostaiak
guk abandonatuz fite,
Oroitu behar ginduke:
Munduratu eman gaituzte,
Zor dugu heier hainbeste,

8.-

Pagatzeko gure zorrak
Ditugun egin beharrak
Lauda guraso xaharrak;
Xalbador, zure pertsutan ditû
hortaz etsenplu ederrak;
Nola auzo herritarrak,
Inguratzen nau plazerrak,
Zuri milaka eskerrak.

9.-

Ikusi dugu askotan,
Nola euskaldun herritan,
Berdin hemen Amerikan;
Gure gurasok utzi presentak
anitz estimu txarretan;
Menturaz pentsatu faltan,
Edo sartuz urgulutan
Alegia ahantzirikan.

10.-

Hau dut nik azken pertsua
Zuri, Xalbador prestua,
Besten herronkan sartua;
Gaur hemen Chinon zu ezagutuz
dauket plazer arrarua;
Dutan desira osua
Zuri bizitza goxua,
Zerurat azken pausua. (24)

*Estimu onez Xalbadorrek bere sort-etxeari eman dituen
pertsu ederrez 1972.eko Azaroan.*

(24) Ikus: *Herria* (Baiona) 1973.III.8; *Principe de Viana-*
euskalduna, 1973-II.

ENE EGUBERRIKO AGURRA EUSKALDUNERI

Airea: *Ikusten duzu goizean...*

1.-

Gaur Eguberri eguna,
Aspaldi beha gaudena
Biltzeko elkarren gana;
Goiz hontan dugu bihotz-erditik
ohoratu Jesus Jauna;
Haren sortzeko eguna
Mundu guzian ezaguna,
Harek dauku zoriona.

2.-

Egun gure otoitzetan
Gaude oro elkarretan
Federik hoberenetan;
Jesus Jaunari eskatzen dugu
bake uros bat denetan,
Gida gitzan beharretan,
Biziko lanjer guzitan
Hartuz bere babesetan.

3.-
Euskaldunak elkarrekin
Bozkario haundirekin
Jesus dugu gaur gurekin;
Berriz ere gu gerta gaitezen
holaxe atseginekin,
Osagarri onarekin
Bake uros bat harekin
Jainkoaren graziarekin. (AMEN)

1973-ko Eguberri Egunean.

CHINO-KO EUSKALDUN BESTAKO KANTIAK (I)

1972.eko Abuztuaren 31. Azkeneko letrarekin igorri nauzun kantu kopia bat *Hego Kaliforniako Euskal Klubako* bestaren eginak; hemen deitzen da «South California Basque Club». Uztailaren 2an zen besta hura, eta Club harek baditu hasirik 26 urte pasa:

*Euskaldun besta dugu Uztailaren bian,
Hemeretzi ehun eta hirurogei-hamabian,
Planatia egiteko La Puente-ko parkian
Kanta dezagun orai guk haren ohorian. (25)*

Aldiz, hemen igortzen dauzut beste kantu bat, zenbait bertso berdinak bainan beste zenbait diferente, hala mantzen bait du suietak. Hauk dira Chino-ko Euskaldun bestako kantiak. Deitzen da «*Chino Basque Club*». Orai lau urte formatu edo hasi zen eta bakotzak bere egunean egi-ten du besta. Membro diferentak dira bietan bainan dantzari eta klika berbera dute; programa ere berdin. Horgatik sanja poxi bat egitera obligatu naiz.

(25) *Principe de Viana*. 1972. iraila

Denbora biziki errebesak ditugu; egun batzuz beroak erre nahi du eta bestean fresko leku hautako ezin sinetsia. Orzantz erauntsi haundia egin dauku duela aste bat; hau arraro da leku hautan eta sasoin hontan.

Gu ontsa gira hemen. Maria Anjela arras airatua igandean euskal beztia jauntzi behar du dantzan artzeko delako bestan. Guk honen adinean ez genuen dantzako arropa bereririk. Denborak sanjatu dira eta jendeak ere ba; anitz gauzetan abantail da, beste anitzetan kalte. Errespetoa galdu da gazterian ba hemen eta hor ere. Disziplina nahi bada eman etxean, auzoak eta ezagunak kontra ditugu. Holako mundu lanjerosean bizi gaituzu egun eta ez dakigu norat goatzan; ez dut uste hoberat.

1972.eko Urriaren 7. Hartu dut zure Irailaren 23-koa eta *Hego Californiako Euskal Klubako bestaren kantiak* ere harekin. Mila esker zuri. Hitz bat bakarrik huts egin dute oraikoan; *dantzari* behar eta *dantzariar* eman dute.

Orai bialtzen dauzkizut berriz *Chinoko Euskaldun bestakoak*. Hauk emendatu ditut bertsu batez eta hitz zenbait ere sanjatu. Kantu hauk bi sailak behar litezke agertu elkarrekin ahal bada: lehen bedratzi bertsoak sail batean, eta beste zazpiak beste sailean, zeren besta bertako, egun bereko, eginak dira eta elgarri segi behar dute jarraiki nunahi agertzen direlarik.

Nahi nuzke egun batez ikusi kantu hauk horgo aldizkarian duten inprenta xehe beltz-argi hortan bi sailetan eta hutsik gabe izkiriaturik.

Hemen ere larrazken sasoina dugu. Ez da oraino hotzik bainan ardura goibel eta euria eskeinka, bainan arras urte idorra dugu gu gauden leku hautan. Aldiz, Este-ko partean ureste —inundazioak— dituzte.

Luzaidetik berri guti dugu. Gure sortetxean ez dute

astirik deusetako. Iduri du hango laborariak buruz behiti doatzila maluroski. Gure aitzinekoek garbitu sasiak, berriz zikintzen eta sasitzen ari dira; eta gure arbasoek eman mintzaira galtzen ari da maluroski.

Igorri berri onak eta ene galdeari arrapostuak:

*Ene galdeak ahantzirik uzten dituzu artetan,
Seinale baita okupatia zirela beste gauzetan;
Arrapostia eni maitera hasten ziren denboretan,
Nik eman letra iduki zazu zuhauren begien bistan.*

1973.eko Uztailaren 11. Urteroko hogeitazazpigarren Euskal Besta. Aurten bestako kantu hauek nihaurek kantatu ditut mikrofonotik eta laudorio haundiak ukan ditut bertso bakar aldi oro, bai eta gero finitu eta ondoan. Ez nintzen behin ere ari izana mikrotik kantuz Amerikan.

Poxi bat sanjatiak ditut joan den urtekotarik eta bertso laugarrena berria sartu dut, bai eta hamargarrena. Lehen bi lerroak aldatuak daude, uste dut hola hobeki dauden.

Ene emaztea eta Maria Anjela ontsa dira. Maria Anjela arras okupatua. Aurten eskola goragoan sartu da eta azken erreporta (A) izan du sei istudiotan *Excellent eta Satisfactory*. Bestalde akordeon ikasten ari da astean egun batez, eta etxean pratikatzen du egun oroz.

Uztailaren lehen egunean genuen Euskaldun urteroko besta (*pic-nic*) eta gure nexka zen Erregina hautatua. Nik prestatu nion predikua gogoz ikasi zuen eta mikrofonotik eman zuen. Jendek ohore haundia eman zioten.

Hemen bialtzen dauzut M. Anjelaren mintzaldia:

«1973.eko lehen eguna. Mila ezker zuri, Karen Guillemet. Plazer haundi batekin hartzen dut mement huntan zuk

orai uzten duzun kargia. Biziki ohore haundia zaut Eskualdun Kluba hunen Erregina izaitea.

Ene izena da Maria Anjela ARROSAGARAY. Sortua naiz Avenal, Kalifornian, eta orai bizi naiz Pomonan. Hila-bete hunen (16) hamaseian beteko ditut (12) hamabi urte.

Eskerrak Eskual Kluba huni, eta Erregina izaiteko ni hautatu nuteneri. Agian urte oro eginen da Eskualdun besta eder hau.

*Gora eskualdunak, eta gora eskuara!
Ikasi dezagun denek gure arbasoen mintzaira.»*

Bertso hau kantatu zuen gero berak:

*Egun Uztailain lehena
Eskualdun besta eguna
Hego Kaliforniako klubaren oroitzapena, la-lai
Zenbat dugun atsegina
Ez daite aski estima.*

Airea: Koblariena edo Tiki ttikitik aitak et'amak...

1.-

Bertso batzuek kanta ditzadan orai izan dut ordena,
Abertitzeko egun dugula Irailaren bigarrena,
Euskaldun besta eder hunentzat hautatua izan dena;
Horgatikan dut orai guzier desiratzen zoriona.

2.-

Lehen agurra nahi dut eman Euskal-klubaren menbroer,
Bai eta gero besta huntako arizan diren langiler;
Koziner eta bai kantinero, musikari-dantzari,
Egun eder bat urtean behin badugu horier esker.

3.-

Etzazuela otoi gaitz hartu hemen dudana errango,
Zeren orantxe aipatzen ditut koziner ta kantinero;
Besta onaren behar bai dire duda gabe bi extremo,
Edatekoak atxiki fresko eta janariak bero.

4.-

Dantzari hauen irakuslierrak ditut oraintxe laudatzen,
Bai eta ere esker beroak bihotz barnetik emaiten;
Ikusi gabe ez daite sinets zer lan erabili duten,
Pazientzia handiarekin dantzari hauen trenatzen.

5.-

Otoizten ditut bihotz erditik mutil-neska dantzariak,
Beti jarraiki ditzaten onest Euskaldun dantza nobliak;
Haur dantzatzeko nunahi dire segur parerik gabiak,
Gure Arbaso zaharrek lehen ondokoentzat utziak.

6.-

Orai mintzo naiz atsegin osoz ni publiko guziari,
Zuen ikustia hemen baitugu guretzat estimagarri;
Anaitasuna atxik dezagun Euskaldun orok elkarri,
Euskaldun kluba hunen izenian dautzuet ongi-etorri.

7.-

Jakin zazue zer dudan orai ene plazer handiena,
Ikusiz hemen hoinbeste jende etorriak guregana;
Zenbat dohainez dotatia den mundu huntan Euskalduna,
Laneko ala besta egiten da orotan hoberena.

8.–

Egun hoinbeste Euskaldun kusiz hemen neure ingurian,
Iduritzen zaut naizela orai gure Euskaldun herrian;
Esperantxa hau atxik dezagun altxaturik bihotzian,
Hemen berian gerta gaitezen uros heldu den urtian.

9.–

Xoragarri da ezin geiago publiko hunen fazoina:
Arpegiz sano, begiz amoros, beti bezain Euskalduna;
Aberastasun hori baitugu Arbasotarik ukana,
Ohora dezaun Euskal-arraza mundurat eman zuena.

10.–

Euskaldun besta kantu onestak beztitzen dauku hainbeste,
Halarik ere isilduko naiz luzatu gabe oraintxe;
Denbora arras labur dudala deia errana derate,
Pasa zazue denek egun on, eta bestaldi bat arte. (26)

Euskaldun fidel

(26) *Principe de Viana* euskalduna, 1972–IX; *Diario de Navarra*, 1973–VIII–22.

CHINO-KO EUSKALDUN BESTA (II)

1972.eko Abenduaren 30. Diozun arabera anitz okupatua zira; agian besta hauk pasatu eta arinduko zauzu zure lana. Beldur naiz gure kantu porroska hauk ere denbora galtzeko dituzula. Hemendik aitzina gutxiago bialduko ditugu, zeren zaharreriak atakatzen nau deja nik nahi baino gehiago.

Nik nahi nuke euskaldun bestan euskaldun kantiak kanta diton, zeren bada anitz jende gure kantak entzutea maite dutenak, bainan kantari guti entregu denik kantatzeko; horgatik eman dut bedratzigarren bertsoko lerro hori: *Eskualdun besta kantu onestak beztitzen dauku hainbeste.*

Hemen aski ontsaño gira, ez nahi bezain fuxoz beti. Lanjer haundian bizi naiz sortzeak eman gaitza ezin utzi. Laneko sortua lanean hiltzeko! Polliki sendi naizelarik zerbait egin gabe ezin egon; gero indar poxi bat egiten badut, segur oñazez gelditu behar. Hila honen 14ean hogeitabi urte gertatu zorigaitza aspaldi zen, eta honi jarraiki behar Jainkoak nahi dino.

Bigarren partean azken bertsoa dut sanjatu bakarrik, hola konbeni bait da eta lehen partean bestaren eguna.

Zazpigarren zena orai bosgarren eman dut ustez hobeki den hola. Ene izena agertzen ahal duzu horgo paperean; hemen aurten uzten dut bazterturik bazterrak kalme jarri arte.

Euskal hiztegia ez dut behar orai. Joan den udan ene adiskide bat izan da Euskal Herrian eta harek altxatu daukit ene sortetxetik bi hiztegi; bat «Dictionnaire Basque Pour Tous» (Edition, Edili eta Haize Garbia), biziki ontsa egina hosto mehe eta finarekin aise zabaltzeko gisan. Bertzea, *Diccionario Vasco-Castellano*, López Mendizábal, Colección Azkue, hau arras pizua, hosto lodiak eta nekez zabaltzeko; deja laxatu zaio zati bat erditik. Eman diot berriz loturik bainan idoki aldi oro laxatzen zaio. Liburu ederra bainan ez iraunkorra.

Airea: *Iruneko ferietan...*

1.-

Programa da orai hasten
Guziek ikus dezaten;
Arbasoen dantzak ditû
guk hemen erreberritzen, *la-lai*,
Hartako utzi zauzkuten,
Sekulan ahantz ez ditén.

2.-

Aitzinez banderariak,
Haier segi dantzariak,
Xuri-beltx-gorritz jauntzirik
bi lerrotan formatiak, *la-lai*,
Zer gauza xarmagarriak,
Oro Euskaldun umiak.

3.-

Ondotik musikariak,
Tanbor ta kleronariak;
Hoiien arrabotsak gaitu
airosten bazter guziak, *la-lai*,
Bonet-gerriko gorriak
Hain dire xoragarriak.

4.-

Euskaldun besta da egun,
Horgatik erran dezagun:
Plazer dugu ikustiaz
hemen hoinbeste ezagun, *la-lai*,
Nor nahi bezen gire on,
Gauden gu beti Euskaldun!

5.-

Euskaldunak zireztener,
Galdatzen dut orai zuer:
Gure mintzaira erakuts
beti gure ondokoer, *la-lai*,
Hori egiten duzuener
Desira dut zerua dener.

6.-

Egin bide nola bete
Aunitzek ahantzi dute;
Euskal mintzaira haurreri
irakusten ez ba dute, *la-lai*,
Ait'ama horiek segur
Purgatoriak behar duzte.

7.-

Aditzaileak, barkatu
Hemen dudana kantatu,
Mendi-zelai ta erreka
orotarik dut kurritu, *la-lai*,
Nehon ez naiz ni uzkurtu,
Ez Euskalduntza ukatu.

8.-

Hau da egungo suieta:
Chino-ko Euskaldun besta;
Horren gatik izana dut
bertsu hauen errekesta, *la-lai*,
Gauza ederrena baita
Gaiten oro hemen josta. (*amen*) (27)

Euskaldun fidel, 1973.ean.

(27) *Príncipe de Viana* euskalduna, 1972-XI.

EUSKALDUN ELIZA BESTA
BAZKO ZAHARREZ CHINO CALIFORNIAN

Airea: Tiki ttikitik aitak et'amak...

1.-

Kantatu gabe ez diot utzi, eman dautaten suieta,
Ez naiz jakintsun bainan hontako borondate ez dut falta;
Euskaldun orok bozkariotan ditzagun oraintxe kanta,
Oroitgarria izan dadien aurten Bazko-zahar besta.

2.-

Honen gainean mintzatu gabe ez naiteke orai egon,
Eliza besta xoragarria kusi dugu egun Chinon;
Gizon-emazte, zahar ta gazte, orotarikan baizagon,
Ederragorik ez dugu uste jalgi ditakela nehon.

3.-

Euskaldun meza miresgarria hasi bederatzietan,
Tenore gabe aunitzak beha ginauden Eliza bortan;
Gure artzaina jalgi zauku hor ederki apaindurikan,
Klikak lagunduz sartu Elizan musikaren errepikan.

4.-

Meza guzia kantu ta otoitz Euskaraz garbi ginduen,
Gure mintzaira pratikatzia ohore da Euskaldunen;
Oraiko artzain honen parerik ez dugu ez izan hemen,
Bera kantari ederra eta artaldia're lagun zuen.

5.-

Gure artzainak erakasbide onak eman tu goizian,
Artaldeari mintzo zelarik, federik hoberenian;
Erlisionia zonbat behar den gure munduko bizian,
Haren erranak altxa ditzagun sendo gure bihotzian.

6.-

Artzai onari gustu emaiten bere artalde ederrak,
Horgatik eman dauzkigu egun fedez etsenplu zilarrak,
Jarraik ditzagun garbi ta onest beti guk egin beharrak,
Ordainez orai eman ditzogun bihotz erditik eskerrak.

7.-

Artaldearen atsegin haundi artzain ona izaitia,
Harek badaki behar orduan zer den gure gutizia;
Goizian barur iduki gatik, eginez penitentzia,
Ondotik dugu jan-edateko ostateko pare gabia.

8.-

Atsegingarri hola ikusiz elgarrekin Euskaldunak,
Holaxe behar ginduzke beti mundu hontako egunak;
Baina ez lokar, tronpa ez gaitzan filusen ele legunak,
Irriskutarik salba gaitzala gu beti Ama-Birjinak.

9.-

Ondar bertsoan gomendatzen dut Aita Sallaberremborde
Arima onen zuzen bidean gida gaitzan berriz ere;
Guretzat egin lan baliosen desira diot ohore,
Azken orduan zeru gainerat Jaunak hartu dezan bere. (28).

Zuen zerbitzari

1974-ko apirilaren 21-ean.

(28) *Herria*, 1974-VI-6.

EUSKALDUN KLUBAREN AFARIA

Azaroan hartu nuen zuk bialdu liburua «Euskara Bata-suna», eta enetako uste dut gogor izanen den zer esplika-tzen duen konprenitzea; bainan mila esker honen bialtzeaz.

Nahiz zahartua naizen oraino zerbait ikasten ahal dut gure mintzaira nahasi hontan. Orai mila urte, jende guti zen denboran menturaz aisago izanen zen (batasuna) eta orai ez ginuen lan hau izanen; bainan lan guziak ezin nahi delarik egin.

Pena dut lehenago ez bialduaz bertso hauk Eguberri-tako ager ziten.

Airea: Koblariena; edo Tiki-tikitik...

1.-

Orai kantatzen hastera noa agur emanaz deneri,
Umore onez zaiztela oro baitzeraut neri iduri;
Gaur Euskaldunak hola ikusiz zonbat den estimagarri,
Berriz holaxe gerta gaitezen galda dezogun Jaunari.

2.-

Gizon-emazte zahar ta gazte, Euskal izaite ederrak,
Hoinbeste jende hemen ikusiz sostengatzen nau plazerrak;
Horgatikan nik ditut oraintxe dauzketan erran beharrak,
Euskaldun Kluba honi emaiten ditut bihotzez eskerrak.

3.-

Xoragarri da beti bezain gaur publiko honen fazoina,
Beti holaxe sendi baginte, sobra laite atsegina;
Oroz gainetik desiratzen dut guzientzat osasuna,
Hori litake gure biziko, lehen aberastasuna.

4.-

Euskaldun Klubak gomitaturik plazerrez gaude bai egun,
Horgatikan gu egon gaitezen beti fidelki Euskaldun;
Estima beti gure izaitia dela bestena bezain on,
Uzten zituztet bai desiratuz guziendako nik gau-on.

1974-eko Urrian, Euskaldun fidel

CHINO-KO AZERI FAMATUARI

1978.eko Abenduaren. 23 Irakurtzen ditugu ez direla aferak arras legun kurritzen zuen alde hortan ere; legeko gizon horiek begitan dituzte, baina gisa hortan hilez ez dut uste deus konpontzen duten.

Hemen ere atzo hil dituzte Sacramenton bi bidetako guarda, eta zenbat holako entzuten dugu egun oro berrikarrietan! Ezin sinetsia zertaratua den jendea oraiko denboretan. Iziturik bizi gira gure toki hautan ere, bortak gakaturik gau eta egun, ebaste eta hiltze ez da bertzerik aipu, eta atzematen duztenak ez dituzte punitzen. Bozketan jendeak irabazten du kriminal handien hiltzeko eskea, baina gero tribunaleko juje haundiek bazter uzten dute. Ez dakit zergatik bozkatzen giren.

Hemen dolarra apaltzen ari da eta noraino joanen den ez dakigu. Aunitz gauza gaizki ditugu: *xahutzen dugu egiten dugun baino gehio*. Hemengo jendea hola bizi da; ez du bihar zer behar duen buruan eta orai bizia badoa biziki gora. Etxeak ere bai: orai hamar urte 20.000 \$ balio zutenak, orai 70.000 \$ edo gehio. Ez dakit nola pagatzen ahal duten jendeak.

Gainera politika zikin-nahasi bat dugu; aunitz ele eta azantz, eta obra guti. Gobernuko gizon handiek, Senato eta Kongresoko gizonak, bankero eta bertze, behar dutena irabazirik ere ez aski; bertzeri ebatsi behar. Eskandala handirik bertzerik ez dugu. Hiru senator seuri badira bahituak, eta bertze batzu bilatzen dituztenak. Beldur naiz erresuma hunek gorena jo duen eta buruz behera doan bertze batzu joan diren bezala.

Kanporat saltzen dugun baino biziki gehiago erosten dugu eta zorra beti goiti. Joan den urtean Japonekin baka- rrik hamabi billon deficit baguen, bertze herriekin gainera. Aldiz petrola saltzen daukuten herriekin gastu handi- tan gira eta orai altxatzen daukute saria eta bizimodu ne- kosa sumatzen dugu aurrera.

Bialdu nizun Urte Berriko agurra eta harekin azken egin bertsoak: *Chinoko Azeri famatuari*. Ez dakit eskura dituzun; nahi nuke jakin. Hemen bialtzen ditut beste bi kopia hitz batzu sanjaturik, eta gainera 15gn. azken lerroan kopia batean eman dut *moztu dakote*, eta bestian *moztu diote*; ez dakit zoin den hobeki. Zuk hautatu. Euskaldun hiztegi hauetan ez dut atzemaiten ahal hitz aunitz behar ditudanak eta horgatik biziki nekos da euskara zuzen izkiriartzea.

Airea: *Oilanda gazte moko fier bat... edo Suiet eder bat...*

1.-

Kantazen orai hastera noa, argitzeko dudana dena,
Suiet huntako ez naizelakotz lehenik mintzo naizena;
Aunitzen dako maluruski zen sortu Chinon Madelena,
Uroski orai galtzera doa betikotz bere izena.

2.-

Orok dakigu nork egin zuen obra horren hastepena,
Herra bide ta nahaskeria aunitzer eman duena;
Ez diot ahantz bizi guzian gure zaharren errana:
Ez daitekela ontsa finitu, gaizki hasia zen lana.

3.-

Gaizki hasia zela orduan, nornahik orai badaki,
Sobera karga hartzen duenak ez dezakela atxiki;
Eskelariak zerbait gisetan disimulatzen du beti,
Bere burua, bertzen izerdiz, nahi zuen eman goiti.

4.-

Jakintsun dauke negoziotan, dionaz, bere buria,
Bizkitartean ez dauku hala bertzer eman etsenplia;
Eskelaritzat bortaz borta zen diotenaz ibilia,
Bertze biderik hartuko zuen izan balu ahalgia.

5.-

Xehetasunak jakitekotan mintza gaitezen Bankuan,
Zergatik ez da hantxe konpondu, eta gu utzi gostuan?
Etzen hoinbertze griña izanen eskualdunetan orduan,
Ez eta ere pentsamenduek minik emanen buruan.

6.-

Denbora eskas izan duela eman dauku estakuru,
Hutsa non zuen berak egina, zergatik ez du agertu?
Urte-beteko intresak zuzen pagatu izan balitu,
Kapitalaren denbora aise, zaiteken hartan luzatu.

7.-

Konpreni zion errexki berak izanez kontzientzia,
Hitza konplitu behar zuela hartzeko konfidantzia,
Lehen aldian aisago baita nornahi enganatzia,
Bainan geroko irriskuan du bere izaite guzia.

8.-

Berak dionaz laguntzaleri ontasunak ditu utzi,
Jakin behar da lehenik hartan zonbat krema den berexi;
Gasna egin ta gaxura mehe eman ote du bertzeri?
Egia zer den jakiteko du sobera saltsa nahasi.

9.-

Gainera dio: Abokat hoiek gizendu okasionian.
Bainan gorde du lehenik bera zela hoiien gomendian;
Aise arizan hoiien dotatzen, pagatu gabe ordian,
Gero zorrak guk jasan behartu, hari egin zerbitzian.

10.-

Estimu gabe utzi gaituzu, zu lagundu zaitugunak,
Bai eta zure alderat hartu lege dakiten gizonak;
Obretarikan ageri dira bihotz krueldu presunak
Lan hori zion bakarrik egin zu bezalako frikunak.

11.-

Zuhaur hobendun izanki eta oraino mintzatuz bertzen,
Ez gare segur zure itatez nehor gutizian egonen;
Gaizki eginak segur deraizu nonbait arrasta eginen,
Jainko bat bada zero gainean, etzaitu barna utziren.

12.-

Nork ote ditu orai pagatu Madelenan ziren zorrak?
Konpreni daite errexki hori, publiko dira aferak;
Ez ginezazken bertze gisetan ukan prestatu diruak,
Izan tugunak eskura ditu, erostian Kondadoak.

13.-

San Bernardino Kondadoa da Madelen hartu duena,
Ta pagatzale guziek orai jasan beharko duguna;
Horren medioz altxatu dugu lehen prestatu zuzena,
Intresak oino galdu ditugu, hau gure oroitzapena.

14.-

Kondado huntan jende guzia aise zerauku kexatu,
Bizitegi ta gainerateko taxak baitira goratu;
Madelenaren erospenetan diru aunitz enpleatu,
Bertzen izerdiz beharko dire, guziak orai pagatu.

15.-

Jakin dezaten orai guziek zer dagon zuzentasuna,
Kondadoaren bulegoetan atzeman ahal daitena;
Eta ez sinets disimulatuz mintzo zeraukun presuna,
Zeren erroitik moztu dakote Madelenari izena.

16.-

Aunitzi malur egin dezake presuna baten lan tzarrak,
Oraino saldu nahiz dabila berak moldatu gezurrak;
Ez gaitu aise enganatuko, minbera dire zakarrak,
Oilo-kafia berri beharko Chinon azeri zaharrak.

*Aitor dezagun egia
den bezala Jainko legia.*

*(Zure bertsuen erantzuna)
1974.eko Azaroan*

GURE ARTZAINAREN PARTITZIA

Airea: *Partitzeko tenoria...*

1.-

Errespetu osoan noa kantatzera,
Halako eskutitza gaur baitut eskura;
Gainera harekilan argazki ederra,
Milesker bihotzetik, apez Xuberorra.

2.-

Zure bertsu berriak izan duztanian,
Bai ta zure itxura heiekin aldian,
Atsegin eman deraut ene bihotzian,
Altxaturen dut beti bizi naizenian.

3.-

Ikusiz zure hitzak arras negurtuak,
Ontsa sesituz dire hunki haundikoak;
Fedez zintzoak eta bai giristinoak,
Ezagun da, laguntzen zaitu Jaungoikoak.

4.-

Sortzez izana gatik zu Xuberotarra,
Bardin mitzitzen duzu Nafartar Euskera;
Gainera Frantses, Ingles, Latin ta Erdara,
Izpirituz aberats, ikasle suharra.

5.-

Izpirituz argi ta dohainez haundia
Holaxe jujatzen dut zure presentzia;
Jendetasunez ere parerik gabia,
Bakotxari nol'egin ontsa ikasia.

6.-

Nork ahantz dezazkegu zure lan baliosak:
Sei urtez Amerikan zuk egin laguntzak,
Euskal giritinoer zuk eman argitzak,
Zerurako bidea zabalduz guretzat?

7.-

Sei urtez egon zire guretzat artzaina,
Estimagarri baita egin duzun lana;
Tenorez xuxen beti zen zure fazoina,
Zure pare jin bedi, heldu den ordaina.

8.-

Ohore haundiz duzu egin partitzia,
Duda gabe zinduen zuk merexitia;
Artzaingoako zire zinez berexia,
Satisfos uzten duzu zure artaldia.

9.-

Berriz kusteko xantza ote dut izanen?
Esperantxa dut beti bizi atxikiren;
Munduan ez badugu elgar ikusiren,
Zeruan zure beha nitzaitzu egonen.

10.-

Hamar garren bertsua hauxe dut azkena:
Artzain huna galtziak beti deraut pena;
Desira dut zuretzat luzaz osasuna,
Eta Jaunak dezautzun beti zoriona. (29)

*Esker onez J. Sallaberremborde Apez Jaunari.
Pomona'n eginak 1977'ko Iraila 30-ian*

(29) Pasadena, Kalifornian, eman diot hosto hau nere adiskide Jose M.^a Satrustegi-ri, 1977.eko Urriaren 10ean, nere lanaren oroitzapena.

JOSE MARIA SATRUSTEGIRI, ESKER ONEZ

1970.eko Urtarrilaren 15. Urteberri bezperan izan dut zure liburu kuriosa «*Estudio del grupo doméstico de Valcarlos*». Ikusten dut ez zirela geldirik egon Luzaiden zinen denboran. Hango xehetasunak ongi bilduak dituzu. Istorio biziki inportantea da, partikularzki orai usaia guziak sanjatzan ari direlakotz. Lehen jendea nola bizi izan den liburutik agertzea, ene iduriko, parerik gabea da. Estimaten dut anitz eta uste dut Luzaiden irakurtzen badute han ere kontent izanen direla.

Ni Californiara jin ondoan ikusiz gure bizimodu nekosa, gure entseguak eta urratsak, anitz aldiz egon naiz pentsatzen, ez nehor izan behar izkiriatzan zakienik edo intresatzen zagonik gure gertaeren izkiriatzeko! Orduan berean hartuz oroitzapen haundia izango zen. Aldiz orai, ahantziak anitz urrats-bide eta memoria ahuldia lan horri lotzeko.

*Urteberriko agur bat, nahiz berant dagon,
Orai zuri eman gabe ez naiteke egon.
Oroz gainetik izan luzaz osagarri on
Lagun hoberik ez da mundu hontan nehon.*

1976.eko Abenduaren 20. Berriz ere etorri da ordu, gure agur usaiakoa helarazteko adiskideri, Jainkoari esker. San Pedro lo zegon ni haren bortara joan naizelarik, eta ez zuen besterik borta zabaltzeko. Horgatik itzuli naiz usaiako bizimodura. Bigarren aldia da gauza bera gertatzen zaidala eta uste dut hirugarrenean atzarrian atzemanen dudana. Orai polliki nabil, bainan ez lehen bezala. Oroz gainetik ezker besoa ibiltzen badut zerbeit gisetan sendiarazten du laster. Beti ikasten ari naiz ene bizi maneran eta sekulan ez aski.

Bestalde, bialtzen dut foto bat Maria Anjelak partitzean hor Urdiainen hartua. Hau oroitzapen izanen dugu eta gainera zuek hor eman konplimentuetaz eskerrak ematen ditugu.

*Beti denbora aitzina ezin dugu geldiaraz,
Aurten ere Urteberri leheneko bide beraz;
Zuer agur bialtzeko oraintxe nago desiraz,
Urdiaingo adiskider eman nahi dut Euskaraz.*

1977.eko Ekainaren 18. Egia da, ikusi nuen Bankan Hairako etxeko andrea, eta istorio xaharren kondatzen maite du segurki.

Sendatu naizen jakin nahi duzu. Polliki nabil bainan ez lehen bezala, indarrak ez dira itzuli; oroz gainetik besoak ibiltzen ditudalarik nekatzen dira laster. Iduri du nere zainak hilak gelditzen direla, eta nere egiteko gehienak besolanak dira.

Egun hotan irakurtzen ditugu zuen bozken berriak. Guk ez dugu konprenitzen horgo manera, bainan iduri du onera buruz ari dela; agian hala izanen da.

Zure hizkian ikusten dut Mexiko aldera itzuli bat egi-

teko asmotan zirela, eta poz haundia genuke Los Angelestan gelditzean ikusteko molderik edo xantzarik izatea. Hargatik nahi dugu jakin hortik atera baino lehen noiz uste duzun heltzea Los Angelesen. Handik egin zazu telefonoz guri. Hau da zenbakia 714/622-3145 eta etor gindaizke etxean bagira ikustera. Hargatik jakin nahi dugu aski goiz zeren udan jalgitzen gira zonbeit egunez adiskiden bisitazera eta, jakinez, egonen gira etxean zu ikusteko.

*Adiskide Joxe Mari,
gogora zaut etorri
agur emateko zuri;
Zur'eskutitza berrikitan zaut
nere eskura etorri,
beha nindagon aspaldi
zer gertatzen zaizun zuri:
pozez beterik naiz jarri.*

1977.eko Abenduaren 16. Hartu genuen zure azaroaren 20eko eskutitza bere denboran, eta poz haundia eman derauku jakiteaz ontsa arribatu zinela Urdiainera.

Bestalde diozu gure berriak jakinarazi dituzula Luzaiden. Guk ez dugu izan nehoren berririk aspaldian Luzaidetik. Jakin dugu joan den udan euri anitz izan dutela eta laneko ez zela aro, baina ez dute horgatik izkiriitzen denborarik galdu; ez dakit zer gertatzen den...

Gure berriez, osagarritz ontsaño gira Jainkoari esker eta, bestalde, egun denbora ona dugu; euria ari du ezti eztia egun guzian. Bagenuen beharra. Aspaldian egarrituak eta arras behartuak ginauden, errautsak eta suak umildu dira eta airea epeldu da bizpahiru egun huntan. Mendi gainetan elurra frango ere bada eta hori behar dugu udako Californiako errekolta lur aberatsen urtatzeko.

.Deja eskastuak ziren urez eta lur azpiko putzuak ere arras apalduak.

Gauza hauetarik eta beste frango ez ginauzun erakutsi zure bisitan. Domaia da gure laguntza eskasa izan duzula, eta ez gira on aunitz laguntza egiteko lehengo denboretan bezala. Beste itzuli bat egin bazineza egun batez, oraikoa egin ezagutzekin uste dut biziki aisago egin zenion hemengo bidaia.

Atzo eguberri eguna ontsa pasatu dugu. Meza entzun eta gero auzoko koinataren etxean baginen hogeita sei lagun Catherinen familiatik. Euskaldunak, ni bakarrik eta Maria Anjela erdizka nahasia.

*Memento huntan gauza bat zeraut etortzen ene gogora,
Adiskideri eman nahi dut sasoi huntako agurra;
Oroituz beti Jesukristo zen Eguberriz jin mundura,
Giristinoek ahanzi gabe atxik dezaun egun hura,
Bide garbiak jarraikiz beti, joan gaitezen zerura.*

(Airea: *Mutil koxkor bat...*)

1.-

Bertsu batzuek nahi nituzke zerbeit gisetan ezarri,
Eta horgatik galdatzen diot laguntza goiko Jaunari;
Suietian dut adixkide bat, izena Don Jose Mari,
California'n bisita dauku berrikitan egin guri,
Zonbat atsegin eman derautan aitortzen diot berari.

2.-

Atsegin aundiz iragan dizit zurekin hemen denbora,
Ikusiz nola etorri ziren urrundik gur'ikustera;

Adinez eta jakitateaz elgarri urrunak gera,
Bainan halere odolez biok Euskaldun zintzo baigira,
Abantail horrek laguntzen gaitu elgarren solastatzera.

3.-

Egun batzuez egina dugu gostuko solastatzia,
Zure magneto tresnan daukazu aski garbiki bildia;
Oroitzapenak eraman duzu segur parerik gabia,
Orai dakizu nolakoa den gure hemengo bizia,
Arrangurarik ez dugu eskas, hala baidugu zortia.

4.-

Nork behar zuen haxe asmatu leheneko denboretan:
Elgar ikusi eta solasta gindiola Amerikan?
Urrun bideak laburtu dire oraiko molde berritan,
Urtzoen gisan airatuz gora egazkin ederrenetan,
Gero jendaki, adixkidekin, gozatzeko elgarretan.

5.-

Oroitzapen hau idukiren dut nerekin bizi guzian,
Eta agian zuk ere bardin, beste guzien gainian;
Euskaldun solas egin dezagun beti ahal den lekian,
Gure izkuntzak merexi duen modurik hoberenian,
Arbasotarik ukan mintzaira zabalduz gauden tokian.

6.-

Euskal lanetan ari zirela aspaldi nuen aditu,
Eta Euskaldun berrikarian geroztikan irakurtu;
Zure arrazoin zintzoak hartan garbi ditzuzu agertu,
Euskaldun fidel dagon jendeak nahi badu konprenitu,
Euskal izena ez dela aski, behar dela're obratu.

7.-

Euskaldunentzat estimagarri zure hizpide garbia,
Franximant sendi denari ez du balio deus erratia;
Ez da solasez jujatzen ahal zer den jenden gutizia,
Behar du obraz ere frogatu bakotxak egin-bidia,
Bestela beti izanen dugu Euskalduntza nahasia,

8.-

Eskerrak ditut orai ematen Euskera zuzentzaleri,
jarraiki zaizte fede osoan bururatzera lan hori;
Guretzat berant izana gatik, norbeiten on izan bedi,
Oraiko lanak izan ditezke geroko estimagarri,
Euskal mintzaira eginez batto eta guzientzat garbi.

9.-

Orai eskerrak biotz barnetik, adixkide Satrustegi,
Zure bisita baitzen neretzat biziki estimagarri;
Itzul bazinte alde huntara, jakin zazu gure berri,
Gure etxean badukezula berriz-e ostatu hori.
Ahal izanez zerbitzu hori egin nahi dugu zuri.

10.-

Gaur urrundarik bertso hauk zuri lumaz izkiriartzian,
Jaungoikoari nago bihotzez zuretako otoitzian;
Haren laguntza izan dezazun zure bizitza guzian,
Egin-bideak bururatzeko ahalik hoberenian,
Bainanez ahantz adixkideak girenak Californian.

Pomona, 1977-ko abendua.

AZKEN ALDIKO GUTUNAK

1982.eko Irailaren 21. Ikusten dut hartu dituzula nik bialdu hiru kasetak nik kantatuak, zenbait aski polliki eta bertziak ene mintzo erlatsean; bainan oroitzapen izanen dituzu zenbait urtez. Nik entzun ahal izan banitu ene aitaso Juan Echamendi-ren bertsoak beraganik, anitz estimatuko nituen; bainan orduan ez zen kasetak maxinarik ez izkiriatzekorik eta satisfamen hori ez dugu izan ez izanen sekula.

Gainera ikusten dut liburu bat egiteko asmotan zaudela ene bertsoekin eta iduri zaut ideia ona duzula, eta ez utzi galtzera ideia hori. Zuk ere erran, hola erran zinautan 1964.eko Urtarrilaren 17ko letran. Gure iloba eta kusien istripu izigarria gertatu zelarik zenion: «beraz, Bordelen bertsoen gauzak ez ditugu bazterrera utzi behar. Egia erran, nahi genuke aurtengo udaberrian liburua atara».

Orai nik ere gauza bera erran nahi dauzut. Ez gaizki hartu; entseatuz zerbait egiten da.

Gure adiskide bat, Roger Sagouspe, ateratzen da hil honen 24an, bi egunen barne, hemendik Paris-era buruz eta egun guti barne helduko da Luzaidera. Luzaideko Rafael Echandi lehen kusia du eta uste dut gau bat egonen da

Rafaelen etxean. Igortzen ditut zuretzat 35 hosto, nik egin bertsoak ezar ditzan Luzaideko korreo-postan, eta segur naiz zureganat helduko direla bi asteren buruko. Hauk dira nik azkenik zuzenduak eta nahi ditudanak ezar diten ene bertso liburua egitean. Lehen nik igorri bertsoak ez badira berdin hauekin, haiek desegiten ahal dituzu.

1982.eko Urriaren 28. Ene kantu liburuaz aipatzen duzu orai Sagouspe jaunak ekarriak izanen direla agertuko direnak, baina ez dugu sobera fite joan behar, eta zerbait xehetasun gehiago oraino nahi nuke jakin. Prezeski gutun honekin heldu da kopia bat zeren uste dut kontrakoa bialdu dudala Sagousperekin.

Badakit ene hiru kantu ezarri zintuela «*Luzaideko Kantiak*» izeneko liburuan; baina nik geroztik sanjatuak ere eniak izanen dira, ni bizi naizelarik sanjatu baldin baditut.

Bertze gauza bat jakin nahi nuke. Ikusten dut oraiko liburu berrier musika emaiten diote; baina anitz euskaldunek ez dugu musika ezagutzen, eta horregatik behar litzake kantu zahar zenbaiten izena eman. Uste dut ene kantu ba-koitzak baduen aitzin seinale hori.

Bizpahiru egunen buruan igorriko dauzut bertze kaseta bat ene boz erlatsa entzun dezazun berriz ere.

1983.eko Urtarrilaren 11. Nere bertsoetan hitz anitzak bi gisetan idatziak ditut eta ederrago litzake berdin egin banitu. Nola: ene eta nere, elgar eta elkar, bihotz eta biotz, haundi eta handi, eta bertze anitz. Orai ez ditut berdintzen ahal eta dolu dut ez izanik hurbilago lan hau egiteko. Gainera juja eta juia, ez dakit zein den hobeki.

Punto eta komak: nere abenduko hamarrekoan erraiten nauzun nere bertsoer ekentzen ahal zirela anitzak, baina bigarren lerroa finitzean da zerbait, eta bertsoa finitzean puntua.



ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: Gabon, Au ostatuba!, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi*: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. *Pepe Artola*: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. *P. M. Urruzuno*: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. *T. Alzaga*: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. *A. Apaolaza*: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. *B. Iraola*: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. *Bilintx*: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. *M. Izeta*: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. *P. Larzabal*: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. *A. M.^a Zabala*: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. *A. M.^a Zabala*: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. *A. Zavala*: Txirrita. (*Aitua*).
20. *F. Goñi*: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. *P. Larzabal*: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*).
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. *F. Imaz*: Bertso guziak. (*Aitua*).
25. *A. P. Iturriaga*: Jolasak. (*Aitua*).
26. *A. M.^a Zabala*, *A. Larraitz*, *Mir*: Periyaren zalapartak. (*Aitua*).
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. *B. A. Mogel*: Ipui onak. (*Aitua*).
29. *T. Alzaga*: Burruntziya. (*Aitua*).

30. *G. Anduaga*: Egunsentiko txoria. (*Aitua*).
31. *M. Soroa*: Baratzan. (*Aitua*).
32. *M. Elicegui, A. Zavala*: Pello Errotaren bizitza. (*Aitua*).
33. *M. Elizegui, A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak. (*Aitua*).
34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara. (*Aitua*).
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa. (*Aitua*).
42. *Uztapide*: Noizbait. (*Aitua*).
43. *Bertsolari-txapelketa (I-I-1965)*. (*Aitua*).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. *J. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma. (*Aitua*).
54. *A. Zavala*: Pernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. *Basarri*: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria. (*Aitua*).
- 57-58. *C. Beobide*. Asis'ko Lorea. (*Aitua*).
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria. (*Aitua*).
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria. (*Aitua*).
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria. (*Aitua*).
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak. (*Aitua*).
65. *J. M. Satrustegui*: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. *Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967)*. (*Aitua*).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak. (*Aitua*).
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak. (*Aitua*).
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak. (*Aitua*).

- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak. (*Aitua*).
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan María Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*).
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika eta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*).
84. *M. Matxain*: Uste gabeen. (*Aitua*).
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*).
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90 *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria.
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*).
92. *I. Alkain*. - *A. Zavala*: Alkain aita-sembleak. (*Aitua*).
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak. (*Aitua*).
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*).
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari. (*Aitua*).
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari. (*Aitua*).
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak. (*Aitua*).
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*).
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *José Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. - Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*).
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria: (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsolaria.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-aria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria. (*Aitua*).
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*).
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zapirain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).

130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J.M. Arrizabalo - A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980-I-6).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (I). (*Aitua*).
144. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (II). (*Aitua*).
145. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (III).(*Aitua*).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori.
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III).
151. *Mattin Treku*: Etxe xokotik kantari.
152. *Xalbador*: Herria gogoan.
153. *J. K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.
154. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (I).
155. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (II).
156. *F. Artola, Bordari, R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
157. *Elkar lanean*: Lexoti bertsolaria.
158. *Mari Treku*: Mattin, nere gizona.
159. *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
160. *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
161. *A. Zabala*: Kuba'ko gerra.
162. *J. M. Arrieta*: Nere ondar alea.
163. *J. C. Arrosagaray*: Californiatik kantuz.



AUSPOA
LIBURUTEGIA